EGAN

3-4

1986

Suplemento de Literatura del Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País
Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa
Patrocinio: Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa

SUMARIO

Pág.

GAZTE BATI, LITERATURAZ: P. Lafitte 5
HIRUR HITZALDI ETA IZKRIBU BAT: F. Krutwig 9
IKUSPEGIAK: F. Aranzabal Lamarain 51
ELIZA LIBURUAREN AURKEZPENEAN: Fr. L. Villasante ... 101
BASARRI ETA UZTAPIDE: J. M. Lekuona 113
DEABRUA EUSKARAZ MINTZO ZITZAIEN IRUNDARREI HONDARRIBIAN: J. San Martín 121

OLERKIAK

EGIN EZPAHITU NIRE NAHIA: G. Aresti 125
LUZIFER: J. Baez 129
ZEZEN LARRUA (jarraipena): S. Espriu - Otsalar 133

KONTU KONTARI

URKATUAREN OINETARA: G. Aresti 139
GRANITO PUSKA: F. Peláez 143
ASPALDIKOA: P. Etxeberria 163
GERTATZEAR DAGO ZERBAIT: H. Böll - J. M. Zabaleta ... 165
ATEZAIN ESKOLATUA: Txejov - P. Zabaleta 173

JAN - EDANAK

Sarrera gisa 179
Zenbait ohar eibartarron gastronomiaz: J. S. M. 182

ADABAKIAK

Markatik kanporakoa 189
Donostiarrak kaxkarinak? 189
Biraoa eta lizuna, Hizkuntzaren osasuna? 190
Bibliografia oharrak edo «Universitas»-en uka ezinezko univertsaltasuna 194
Etxerako dirua? 198
Traducción simultánea 198
Asterix komikiak eta G. Aresti 198
«Badakigu euskaraz»: J. S. M. 199

LIBURUAK

J. SARRIONANDIA 203
M. YOURCENAR 208
S. ZAPIRAIN «Ataño» 210
X. ARBELBIDE 214
J. L. ALVAREZ ENPARANTZA «Txillardegi» 217
THE SUSA NEWS 218

ANTZERKIA

JEAN ETXEBERRI: P. Urkizu 223
ARROLTZE OHOINA: J. Etxeberri ... ...

EGAN

SANZ-ENEA UDAL LIBURUTEGIA
1018557
891.69 EGA
1986 3-4
M

Comité de Redacción:

ANGEL LERTXUNDI
LUIS MICHELENA
JUAN SAN MARTIN
ARANTXA URRETAVIZCAYA

EGAN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección: Luis Michelena y Juan San Martín

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca | Vol. XXXIX* (orden corregido) | Mayo - Agosto 1986

ISBN: 84-600-2992-1

Depósito Legal S. S. 400 - 1967

Impreso en Gráficas Echeverría - Easo, 47 - San Sebastián 1986

GAZTE BATI, LITERATURAZ

Urte bete igaro da Piarres Lafitte (1901-1985) hil zenetik. Poliglota hark zer etzekien? On zaigu, bere jakituriatik ikusirik, literaturaz gazte bati egin zion gutuna orrialde hauetara mezu gisa ekartzea, gai hori gure bete beharrezkoa denez.

Adiskidea, nahi zinuke jakin zer den literatura, eta literatura erakasle hanitz urtez izan naizelakoan, uste duzu aise argituko zaitudala! Ondikotz ahalgetu behar badut ere, aitortuko dautzut ez dezakedala behar litaken bezala zure galdeari ihardets.

Funtsean, orok noiz nahi argia aipatzen dugu, ez ginakikelarik zeazki azaltzen haren zer-izana. Aski zaiku jakitea ba dela eta gure begiak ederki laguntzen dituela.

Berdin erran nezake literaturaz: aski zaiku jakitea ba dela eta idazkien bidez gure gogo-bihotzak goxatzen dituela.

Lehenago hitz hortaz adi-arazten zuten, on ala txar, nunbait edo noizbait agertu idazki guzi-guzien moltzoa: eskual-literaturan berdin sartuko zituzten haurren *Arriola-marriola kinkuankin*, Axular-en *Geroa*, Amezketarraren ipuiak, *Gernikako arbola*, pastoralak, ostatu-kantuak, Lizardi edo Orixe-ren olerkiak, *Peru Abarka*, gure apez jakintsunen predikuak ala artzain ziberotarren *xikito* ausartak.

Geroxago idazki «hoberenak» baizik ez dituzte onhartu zinezko literaturatzat. Zoazi zu ordea xuxen erabakitzerat nun den «hoberenaren» muga?

Hasteko, ez du gaiak berenaz literatura egiten, gai guziak nolazpait besarka bait dezazke.

Idaz-moldeak, hots «estiloak», erakutsiko ote dauku zertarik ageri den egiazko literatura? Ez eta ere. Hanitz molde ba dira idazkintzan, denak berdin baliosak zoin bere sailean: bixtan da Topet-Etxahunen mintzaire kaldatsuak ez duela zer ikus Dibarart-en bertso baketsuarekin; ez eta Diharassarry-ren idazkera argi adimendutsuak Arbelbide-n ospearekin, are gutiago Hiriart-Urruty kalonjearen ele jori jauzikariarekin edo Etchepare midikuaren hizkuntza aberats apainduarekin.

Alta literaturaren hel-buruak ere ez gaitu hartaz biziki argituko: alabainan mendez-mende zertarako ez dute idazlek baliatu? Batek nahi ukan du izan jostatzale, bertzeak edertzale, hunek argitzale, horrek bazterren zeatz-erakusle, harek gogo-bihotzen ikerle; izan dira ere amets-saltzaleak, mundu-ukatzaileak, mundu berri asmatzaileak; agertu zaizku ixtorio edertzaleak bai eta zikintzaleak; batzu biziari doazkon auzieri jarraiki zaizkote, bertzeak jendeen arteko gaieri, zonbaitzu jakitateari, nun ez diren mundu huntaz goragoko gauzez mintzatu. Hots, zonbat jende, hanbat xede. Alde hortarik ere literatura hertsiki ezin muga.

Honoré de Balzac-ek errepikatzen omen zioten gazteri: «Erradak nork irakurtzen dituen hire liburuak, eta erranen dauiat nor haizen!». Jende xeheak ez baditu gure idaz-lanak eskuratu nahi, ba dut beldurra ez gabiltzala behar litaken bidetik. Behin aditu diot Orixe zenari, eskuarazko goi-literatura ez zela hiru ehun eta zoinbat hogoi lagunen arteko zer-egina baizik. Haren ustez gaineratiko Eskualdunek ez zuten goi-literatura hortaz gozatzeko tirria izpirik.

Jakina: irakurle xehe gehienek ez dute libururik erosten beren buruaren hausteko, bainan «denbora pasa», berek dioten bezala. Irakur-gai errexa bilatzen dute eta atsegingarria: ez dute sakonkeria laket, ez eta solas bihurdikatua. Bota ixtorio,

bota amodiozko ele-berri, bota poliza-ipuin (aski bakun diren ber), bota irri-solas, bota jakitatezko gai axal zerbait, bota bertsu hunkigarri edo jostagarri; ez ordea jendea narda teknika arradoz, metafisika ilunez, psikologia koropilatsuz, poesia zail, idor, mokor edo mainguz; ez emoka eskuara hitz arrotzez, joskera makurrez, erdara berri bat ez dadin bilaka. (Artetik aitor dezadan, ene azken lerro hauietan beretan bat edo bertze kausituko duzu, populuarentzat nola ez mintza erakutsiko dautzunik...).

Ikusten bide duzu, adiskidea, leize bat ari zaikula irekitzen, nun ez den jada zabalki irekia, herritarren artean, batzu kultura bati dagozkiola, bertzeak bertze bati.

Idaz-lanetan ari diren askok gogoan dute, eskual-literatura bertze goi-literaturen gain-gaineko ozkarat hel-arazi behar dutela, lehen-bai-lehen. Xede ederra! Gaztetan nihaur ere amets horrek lilluratu nau eta zinez uste dut goiz edo berant hortaratzeko eginbidea ba dugula.

Bainan, kenka huntan, banako ez ginuken lan premiatsugorik! Iduri zait gure literaturak ba duela herritatzearen beharra. Jauts bedi ixtant bat ilargi-hedoietarik lurrerat, baserrietarat, karrika edo kaletarat; gero emeki-emeki goratuko dugu berriz ere, herriaren kultura aberats arau.

Jende xehearen meneko idazkirik ez badugu eskuaraz ateratzen, eskualdun gehienak ez zaizkigu jarraikiko: erdaraz atxemanen bait dute beren heineko irakurtzekoa beti eta gehiago erdararat joko dute. Ez dakit hortaz aski konturatzen giren! Orduan norat ariko da goi-literatura? Errekarat ez ote?

Hots, hurbil gaizkiotela eskualdun xeheri. Eman gaiten heien mailan, umil-umila, behin segurik. Ez izan ez lotsa, ez herabe. Apaltzen dena goratuko da ondoan, eta goratuko ditu bere apal-kideak. Gisa hortan eginen da ez bakarrik idazkeraren, bainan eskual-literaturaren batasun baitezpadakoa.

Adiskidea, barka, ez badautzut zure auzia nahi bezala xuritu.

Ondoko egunak arte. Bihotzez agur!

P. LAFITTE

HEGATSEZ (1971) Liburutik jasoa.

HIRUR HITZALDI ETA IZKRIBU BAT

Federico Krutwig Sagredo

I

Hemen batera argitaratzen diren laur lan hauk' gora behera 1945 eta 1951 artean mintzatu izan dira. Nehoiz ez dira osotoro imprimatu izan, batzuen zathi batzu baizik, bertzeak huntara ere ez, eta azkena publikatu izan zena' zabalkunde ttipiko errebista sympathiko, bainan gutti salduan argitaratu zen.

Batera hemen publikatzen dira, zeren eta lan hauietan iadanik, orain ere traktatzen diren thêmak aiphatzen eta aztertzen bait ziren.

Hitzaldi batzuek huntaz gainera bere epokhêan' bertzelako influentzia ere eduki ukhan zuten, zeren eta Seminario de Rojas sartu zenean neuk eman neraukon hitzaldiaz ere' Euskalzaindiaren agerte publikoa ere hasten bait zen berriro. Orduan dano' nolabait Euskalzaindia urthe batzuetan katakumbetan bizi izan zen. Neu 1942ko Urrian euskalzain izendatu ninduten, orduan nire Euskalzainkideak (osotoro 12 euskalzain ginen), zeinak bertze personetan: Azkue, Urkijo, Boni Etxegarai P. Lhande, Elizalt etc. bait ziren. Batzu gurekin Bilbon zegozen, eta bertze neu baino zerbaixka lehenago Euskalzaindian iadanik Irigarai (Aimgeru) eta J. M.ª Etxaide sartu ziren. Gure bilkurak orduan, zentzu batetan

oraiko Euskalzaindi-Berriaren bilkurak baino ez soilki intimuago, baizik eta akadêmikoago ziren. Hauietan neuk' askotan lan batzu irakurri nituen, zeinen originalak orain galdu bait dira. Bainan neuk orduan emanikako hitzaldiak konservatu dira.

Seminario de Rojasen sarrera' Bilboko Diputazione-Jauregian egin zen, eta nola neuk orduan Azkue jaunaren sostengu moraleaz Euskaldaindia berphizteko nire aburuz beharrezkoak ziren urrhatsak egiten ari nintzen, halatan ere niri lephoratu zerautaten ethorberriari abegi hitzaldiaren emaitea. Hauxe egin nuen. Ez dakit gehiago zein zen Seminariok traktatu zuen materia, bainan neu orduan garbizalekeriaren kontrako lehen attakeak egiten hasi nintzen. Gaur egunean, nola neu orduan hasi nintzen bidea normalki onhartua bait da, ez dezake euskaldun ikasle edo irazle normal batek pentsa zer zen, mementu huntaraino hunela bethikotz finkatua omen zegoen garbizalekeriari atakatzea. Bainan hitzaldi hunetan jadanik traktatzen dut bertze problêma important bat, euskara iratziaren batasuna. Orduan proposatzen nuen bidea' orain ere hoberena dela uste dut, eta ez orain mahainkideeen artean erabilten den *quasi-laburdara in solfa minorea.* Ezen hizkuntzak bethi tradizione bikhoitz baten bidez eratzen dira, bi tradizione alegia, mintzatu tradizionea' mintzatu hizkuntzarentzat, bainan literatur-tradizionea' literatur-hizkuntzarentzat. Huntaz gainera literatur-tradizioneak' irazleek aphailatzen dituzte, eta ez linguistikalariek.

Thêmatikê huntaz ere' Lafon jaunari emanikako erantzun-hitzaldian ari nintzen; batez ere Lafonek —zeina ikherlari ta philologo handi bait zen, Burdigalako inguruetan sorthua, eta horko Universitatean ere irakasle izanki, nola sortzez euskalduna ez bait zen, Autxenherrikoa baizik, euskal problêmatikêa lehen-lehenik linguista atzeherritar batek dadukan optikaz traktatzen bait zuen— mintzatu euskararen ugaritasunaren aldekoa izanki' hauxe ere bere lanaren laboratorium-objektua lizentzat behar zuelakotz. On Julio Murde Urkijok —zeina Bizkaitarra bait zen— euskarari buruz espaldidanik erran zuen, ezen euskara «una lengua pletórica de viditas y falta de vida» bat zela. Linguista huts batentzat'

dudarik gabe oso interessante da, euskararen bizisko hauien plêthôra' bainan hizkuntza batek' beren nazional-problêmaren ikhuspunktutik behatzen deraukon persona bati' gauzak bertzela egoiten ohi zaizkikeo. Lafonek' orduan *begiztatzaileak* izeneztatzen zituen linguistikalarien lehen typokoek' huntaz soilik geratzen ba dira' kalte handia egin liezakeote hizkuntza bati, batez ere euskara orduan, eta orain bezalako egokeran dagoen hizkuntza bati, zeren eta orduan bizi-zômoa adasketan barraiatzen bait da, eta desvirtuatzen. Zuhaitzak eta hizkuntzek inausi behar dira, heien fruktuak liren on. Dudarik gabe inaustea' egin dezaketen personak hizkuntzen kasuan' irazle onak dira, hortara ere zuhaitz baten fruktuak' gozo ta biziaz bethe dira. Bainan zentzu batetan Lafon jaunak' aspaldidanik On Julio Murde Urkijok bere R.I.E.V. delako aldizkarian egiten ari zena ere, egiten zuen, zeren Lafon iaunaren lanen bidez euskarak ere behar zen kultur prestije handia beretzakotzen ari bait zen, ikhertzapenetan izanagatik.

Thêmatikê huntaz batera, eta haren jarraipena bai lizen, GERNIKA aldizkarian publikatu nuen artikulu bat lothuta dago: *Euskara' Euskalherriaren kultur bide ledin izan.* Artikulu hunek' Nikolas Ormaetxearen aburuz euskal literaturan tendentzia berri bat finka zezaken, Ormaetxea' neuk artikulu huntan erabilten nuen formaren kontra zegoen, zeren eta Ormaetxea jauna zentzu askotan *herrizale* populista bait zen. Ez populistak, zeinek batez ere txusmazaleak izanki' heien euskara ere nolabait hizkuntza txabakano bat bait da, baizik eta orduan pentsatzen zen eratara: hau da herri ta herrixketan erabilten ziren forma popularien eta jathorrismoen ugaritasunaz bethetzen zen hizkuntza erabilteaz. Dudarik gabe Orixeren euskara bere *Weltanschauung* hura zen bezalakoa ethorten zethorkun. Orixe' persona bezala ez zen aberzalea, baizik eta: integrista (hau da Karlisten frakzione radikaleraren jarraituna), eta huntara ere Orixerentzat euskara lehen postuan «zerura» joaiteko zurubi bat zen... eta zurubi hunen mailakiak, bere aburuz kulturaren bidez sitsak jaten zituen. Beraz Orixerentzat nire artikulo hori' blasphêmia bat zen, eta *kultur* delako hitza irakurteaz bere korromioa phizten zitzaion. Orduan euskal aber-

zale orixetarrek' kultura hitzaren orde «gogo-lantzea» erraiten zuten. Halarik ere Orixek artikulu batetan erraiten zuenez' nire lantto hori euskal literaturan mila-harri bat izan zitekeela pentsatzen zuen, nahiz eta bere aburua jakin arazten zuen, ezen hunela gertha ez ledila Euskalherriari opha zeraukola. Historiak niri zuzen nengoela erran deraut, eta Orixe orduan okher. Gaur egunean irazle guztiek, bai eta aranistek ere, neuk orduan proposatzen nuen arauera irazten dute, nahiz eta laburdara klsassikoaren orde, orain *batuistek* pseudo-laburdara batua, gizpuzkaraz nahasia emplega dezaten.

Laurgarren zathia bilduma huntan' neuk Azkue jaunaren *in memoriam Bilboko Atheneu Berrian* ahoskatu nuen hitzaldi bat zen. Azkue jaunaren heriotzeaz, edo ta behar bada, neuk Azkueren eta Euskalzaindiaren aginduz egin nuen Statutuen aldakuntzaz, zeinen arauera ordan dano hamabi izan ginen arithmotik hamazortzi izaitera goititu bait nuen Euskalzainen totalitatea. Euskalzaindi-Berria hasten da. Berhain orain gauzak orduan nola zegozen, eta personak nortzu ziren konsideratzen ba ditut ez dut uste kopuru hauien gehitzeaz Euskalzaindiaren prestutasuna hobetu denik. Eta huntan gertha lekidikegu oraiko bertze gauzetan bezala, non eta Euskalherrian *tituludunik* asko, eta behar bada gehiegi, dugun, bainan tituluek ezein ere valore representatzen ez duten, ezen orain 50 urthe duela titulu baten emaitekotz askozaz gehiago eskatzen zen. Adibidez orduan seminariotarat joaiten ziren euskaldunik askok' behintzat latinez mintzatzen ongi ikasten zuten, eta huntaz ez bakharrik kultur-biblikoa, baizik eta latinez iratzitako kultura osoa ere. Hunelako aphezek on ongi latinez mintzatzeraino heldu ziren, eta askotan urtherik askotan ere graikaraz ikasten zuten. Gaur aitzitik lizenziatur-tituluak emaiten zaizte lehenagoko urtheetan batxillerak baino gutiago ikasi dutenei. Hunela persona kulturdunen ordez' tituludun analphabêtoak ditugu.

Orduan behar bada Euskal Akadêmian' aphezik asko, edo ta gehiegi zegoen, bainan aphez haukiek, eta halaber frakadun guztiek kultura klassikoaren jaubeak ziren; aitzitik gure egunean, kultura klassiko orokorraren murriztea hoinber-

tze aurreratu da, non gaur egunean «Eusko Univertsitate»tik iltkhitzen diren philologi-lizenziatuek ere latinaren tutik ere ez dakiten, eta hau baino gehiago, berrikiago horko Fakulatate humanistan' latinaz ere ez dakiten professoreak bait dagotza. Beraz ez da bakharrik «Univertsitate» izena egiazko buffoneria bat, baizik eta buffonezko titulo haren atzean estaltzen den buffoneriazko irakaspena ere bai. Universitate batetan dudarik gabe jakintzan universalak diren gizonek sartu behar zuketen hor egiazko bir-sortzea edukitzekotz, eta huntara herri guztiek behar duten *elitea* kreatzekotz, zeren bizia berez strukturatze-prozessu baten fruktua den, zeinen bidez berez kosmoan agintzen duen entropiaren legearen kontra ekhintzen bait da, eta hola ere nola strukturatze guztietan bethi goian dagoen burua bait dago, eta beheiti oinak, halatan ere gizartearen gorphutzean ere buru batek behar du egon, bainan gaur egunean gizartearen krisialdian, strukturak desagiten dira, eta anarkhismoa sortharazten. Hunelako egokera anarkhiko baten fruktua, gaur eguneko *batuara* izeneko pseudo-laburdara ere ba da, orobat gizartearen strukturatzean txabakaneria sartu den. Herri bat strukturatu den zera da, bainan strukturatu gabeko massa' ez da txusma bat baizik.

II

Seminario iaunari Euskalzaindian sartu zen egunean Bizkaiko Diputazionean emandako erantzuna.

Iauna:

Ongi ethorri izan zakizkigu gure lankhide berria zaren hori! Zure hautatzea, Euskalzaindian sar zaitezentzat, Euskaldun guztiek dematzuten saria da, iragan urthe hauietan iakintzaren zuzia goratu bait duzu euskareren ontzia, zegoen ekhaitzetan honda ze ledin. Iakintzaren harrizko kaiaren kontra hautsi ziren gure symbolaren etsaien uhinak. Zuk ere, gure kaietan sua irazeki ba duzu: orain kai hunen dorrera sartzen zara ta dorrezainekin, lehen baino gorago egiaren zuzia goraturen duzula ba dakigu. Bai, euskalzaina zara, iaun hori! hau da: ekhaitzetan dabilen ontziak behatzen deraukon argiaren dorreko sua irazeki ta zaintzeko lana, zure eskuetan gure herriak ezarri du. Lan gaitza, bai-eta Urziak emandako missionea ere, ekhintza hau ba da. Halakotz, Euskalzaindiak dematzun saria, Akadêmia baten saria da, bai-eta herri guztiarena ere. Hasi zaren lanari ekhin iezozu! Euskalzaindian gagozenok, gure etxean dadukagun ezagugarria, geronen beharra ta symboloari garraiztelarik, onesten dugu-ta.

Orain dadukazun philologiarentzako maithasuna zure bihotzean phiztu zenetik, herri hunen hizkuntza aztertu ta gure hitzen etymologiak bilhatu dituzu. Iakintzaren sail hunek

behar zuen argia zuk eman zeneraukon; egiazko iakintzaren bidean gainti ibili behar duen ikhertzea iaio ledin.

Euskalherrian, antxina danik zegoen iakintza aizuna ta iakitaterik gabeko zalekeria, zuk egin duzun lanez urhentu behar zukeela erran genezake; bainan gure baithan orain ere, hitz-sorkuntzalerik asko eduki dadukagu, Astarloa ta Larramenditarren leinua orain dano hil ez dela ikhus dezaguntzat. Ekhin eta ekhin, iaun horrek! ikhus dirokegun iakituria aizuna hamai ledin.

Philologian, hitzen etymologiak, ez ditezke izan, ezagutzen ditugun biraldakuntzen azalpena baizen, eta haur baino gehiago izan dadin nahi dutenak, iakintzaren etsaiak dira. Euskalherrian dadukagun hitz-sorkuntzaleen loratzea, egiazko iakintzaren arerioak dira. Hitz sorkuntzea, hemengo «hizkeralaririk» askok maithaten duen araura, erhoen ametsa da; iakintzarik ez da, igarkuntzea baizik; Philologiak ez bait daduka zer-ikhusirik, ez hurbiletik, ez hurrunetik amets hauiekin. Philologiak ez bait du ezagutzen parabisuko hizkuntzarik, ez Babeleko dorrerik. Erleginoaren parabolak, erleginoan gera bitez. Problêmatak nahas ez bitez, othoi!

Glôttologia deritzaion iakintzaren problêmatetan ari izaitekotz, lehenik edonungo gizon batek, philologo behar du izan; geroz, euskalzalea, nahiz tungus-zalea, semitistika, nahiz xumer-zalea izan diteke; bainan Philologia zer den iakiteke, nehor ez liteke hizkaralari izan. Hau askok ahantzi zuen gure herrian bainan, bihotzean zedukaten maithasuna naikhoa zela uste ukhana zuten. Maithasuna' euskara zahar hunen lanetan ari izaitekotz behar-beharrekoa da; maithasuna' hala-bainan, ez da buruaren indarrak phizten dituen txinparta baizik, hunen gabe iakintzen ezer ere ez dezakegu egin, bainan maithasunak' bakharrik ezer ere ez dezake egin; iakintza, ekhintza, studium et scientia, ezagupenak behar bait dira Euskararen problêmatak studiatzeko, euskararen ezagumena baino gehiago eduki behar ez dela dioitenek, euskaraz baizik ez dakitela erakhusten dute. Iakintzaren problêmatetan edozein ezagupenek laguntzen du; zerttobai argiro ikhusi nahi baldin ba dugu, ezagupenik asko bilhatu ta aztertu

behar dugu, hunela egin ez ba geneza, bilhatu edo-ta aurkhitu genituzkeen legeak gezurrezkoak lirateke.

Gure hizkuntzaren problêmatez ederki ta argiro mintzatu zara, berhunen problêmatetarik handiena, haren biziarena bait da. Geure euskara hilten dela, anhitzetan entzuten dugu, zergatik eta nola hilten denz ez dakigu. Behar bada Aubrey F. C. Bellek erraiten duenez, euskaldunok bezala, euskara ere, heriotzean bizi izaiten dateke. «This race, which is so instinct with life and energy, and with a rare power of resistance, has lived longer than any other European people, is seen in its inscriptions, on the houses and churches, to be contanly dwelling on death and the frail brevity of life and the fleeting nature of human aspirations». Zèr den bizia, zer den heriotza nork daki? Bizi izaiten den izaikari bat hilten da, ta gure hizkuntza hilarren, edonor, edonoiz, edozela iazar lekidikeonarren, bethi bizi izanen da; ta heien elheak, eta gure eresia, arrabotsa baizik ez da. Halabainan guk geure beharra bethe behar dugu; behar haur' euskararen phizte ta zaintzea da; ta haur egin nahi dugunean behaztoporik asko aurkhitzen dugu.

Gure hizkara guztiontzat bata ez da; hizkalki ta hizkalkittoetan zathituta da. Hunen karia bi gauza da. Lehena: Literatur hizkuntza ez dugu. Bigarren: euskaldun guztiontzako literatur hizkuntza haur irakatsi behar zuten eskolak, euskararentzat hersirik dagoz. Hala ere, literatur era behar-beharrekoa da, Ch. Ballyk dioen bezala: «La langue littéraire a surtout une valeur sociale, c'est un symbole de distinction, de bonne tenue intellectuelle, d'éducation supérieure». Literatur hizkuntzak, guztiez gainean balio soziala bait daduka, distinkzionearen eta iakintzaren, era onen eta eskolatu haziereraren symbola bait daduka, baina, Literatur hizkuntzaren-eza geure errua da, lehen gure idazlerik hospetsuenek zerabilten hizkuntza erabilten ez bait dugu. Holako hizkuntza eduki nahi baldin ba dugu, heien euskaraz iratzi, heien bidean gainti ioan behar dugu, heien —geure buruzagien— euskara hobetzen eta landatzen, bainan ez bakhoitzak bere bide berria egiten.

Geuk ere, bertze edonungo hizkalzainek eta literatuek be-

zala egin ba geneza, gure hizkuntza laister bata, guztiontzat berdina izanen lizateke Zergatik gure hizkuntzaren zathiak zathitzenago eta zathittotzen? Zergatik bakhoitzak bere herriaren euskara onena delako ustez gure hizkuntza puskatzen? Orain nehoiz baino gehiago batasuna behar dugu.

Gure literaturik hospatsuenek zerabilten euskara, bertze hizkalkien aberastasunez aphainduta, gure herrriaren kultur eta literatur bidea izanen dateke. Orain euskaran dagoen kritêrionaren ezak bukatu behar du. Ba dirudi gure baithan kabylen gogoa dadukagula. Ez dut erranen Sarako, nahiz Lapurdiko euskara bertze hizkaldiak baino ederrago denik; ez hori ez, bainan guztiontzat biderik egokiena datekeala erraiten ahal dugu. Hizkara hunen egar-zolaz egin genezake gure orabatasuna. Sarako euskara ait ledi izan gure symboloaren zintharria! Hizkuntza haur guhoroen eskoletan irakatsi behar dugu; bertzenaz, batasuna baldin ezetarako ez ba litz ere, gauza ttipitarako bait lizateke, eskolaren maixu batasunaren zaindaria bait da, bai erdaraz bai eta euskaraz ere. Hunexegatik latinari buruz Dauzat Albertek dio: «Supprimez par hypothèse l'unité régulatrice de l'école, et au bout d'un siècle ou deux les dialectes se seront formés en français; on aura peine à se comprendre d'une province à l'autre. Dès que le maître d'école eut disparu dans la Gaule romaine avec les invasions des Barbares, le latin livré à lui même, provigna à l'infini et donna naissance à la multiplicité des patois actuels».

Haur Galian iragan zedin eta bethi ere edonun iragaiten da, hortakotz ez dago euskararen pusketan egoitearen harritzeko kariarik. Baldin latinak, batasuna ukhaiteko, eskolaren laguntza behar ba zuen, eta eskolaren zaintza galdu zenean, batasuna ere galdu ba zen, nola euskarak, bethi eskolaren laguntzaren gabe, behar zuen, bainen ez zedukan batasuna eduk liroke?

Euskarak ere, bertze edozein hizkuntzak daduzkan eskubideak ba daduzka; ez bait da bertze anhitz baino txiroago edo itsusiago, aitzitik, bertze anhitz baino sakonago, Aiphatu dugun anglotar hizkaralariak gure hizkuntzari buruz dio:

«it's a question of emphasis or even of the gravity of the Basque language». Euskararen eskubideak hilen ez dira guk eman behar deraukoguna emaiten diogularik, gure hizkuntza zaint eta erabil dezaguno. Aiphatu dituzun Atsularren hitzak, egia zaharra dira. Onsa erran duzunez gure hizkuntza atzeratu edo txirotu ez da, gure kulturbidea hersi zaiku baizik, gure herriaren problêma zehar haur, behar zuen iakiduriaz erabaki ez bait zen, gure herriaren kultura guganaino heldu behar zuen bidean gainti ethorri ez bait zethorkun Kultur bidearen izaitekotz, gure hizkuntzak, baldintza guztiak bethetzen ditu, hizkara txit egokia da-ta. Hala halarik, gure hizkarak, kultur elherik ez dadukala askok derra; bainan Renaissance-zaro baino lehen Eurôpê guztiko herrien mintzoetarik, zein hizkuntza bizik zeduzkan? Eta geroagoz hartutako hitzak, ez-othe-dira hizkuntza guztientzakoak, eta ez batenak ez bertze hizkuntza baten bererizkoak? - Zer egin zuten hizkuntzek orduan? Arbasoen kultur iaraunsia beretzakotu zuten eta latinetiko ta garaikeratiko kultur elheak erabili zituzten, Erromako ta Garaikherriko kultur-seme bidezkoak ziren-eta. Gu ere Okzidenteko Kulturaren semeak ba gara, geuk ere Klassikoen kultura ondoren dezakegu, Eurôpê bizi bait gara, ez bait gara Aequator-Afriketan bizi izaiten. Gure euskara edozein gauzatarako izan dadintzat, geuk ere hartuko ditugu latin eta garaikaratiko, edozein hizkarak beure kultur-terminak hartzen ohi dituen bezala, hizkuntza zahar hauk Okzidenteko, Arrats-herriko kultur hiztegien hartegiak direlakotz, eskubide haur geuri ere haizu ta zilhegi zaikulakotz. Bethi danik ere edonungo hizkarak bere kultur terminak heien kultur-harrobitik hartzen ditu. Iapondarrek eta anamitek, sinarazko kultur hitzak darabiltzate, Sinaren kultur-sphairan bait dagoz; persitarrek araberazko kultur-hitzak hartzen dituzte mohammedarrak bait dira, karia hunengatik Europako herri guztiek garaikara ta latinetiko kultur-hitzak daduzkate; hunela maddarek, indo-europarren enborreko hizkuntza eduki-ezarren, kultur hitz klassikoak darabiltzate, Maddarezkoak bait dira: *fantázia, fariseuz, fanatikusi, filiszter, gázis, filológus, flegma, fonográf* eta abar. Alemanek ere garaikara ta latinetiko hitzik asko dadukate eta nehoiz ez dira izan gu bezainbertzeko garbiza-

leak. Askok heien hizkuntzaren garbizalekeriari buruz erraiten ohi duena, gezurra ez denetan, erdi-gezurra da. Euskarak ere, alemanarak bezala latinberri herrien hizkuntzetarik hitzik asko daduka, eta haur laidorik ez da, bizi den izaitea, kanpotiko elikaturaz bizi izaiten bait da. Richterek alemanen mintzoari buruz, hizkuntza hunen edozein zathitan (etxegintzan, lilien izenetan, erlegioan, jakintzetan eta tekhnikêan) kanpotiko elheak aurkhitzen direla diosku. Latin garaikaratikoak alemanaraz dira: *Mauer, Fenster, Pforte, Wein, Pfletter, Kirche, Priester, Mönch* etc. Bai eta euskaraz ere erdaratikoak dira: *besta, meza, lege, aingeru, saindu, arrosa, lili, landare, geriza, gurutze, abade, apheza, aphezpiku;* bainan orain hitz hauk guztiz euskarazkoak dira; ta *txadon, iaupari* ta hunelako elheak amets faunak dira. Orain baino lehen euskarak ere bertze hizkarak bezala, latin eta garaikaratiko hitzik asko hartzen ohi zuen, eta baldin orain euskara, kanpotiko elikaturaz elikatzen ez ba litz auhengarria lizateke, elikaturaren ez-assimilatzea, agôniaren ezagupidea bait da.

Bainan, zein da, euskara kanpotiko hitzez mordoilo bat dela uste dutenen ithurburua? Erantzuera erraza da: ez-iakintza. Ez-iakintza haur gure garbi-garbizaleak eta euskararen etsaiek zedukaten. Gure hizkuntzaren etsai batek, Unamunotarrak hunela zioen: «El catalán ha podido y puede recibir voces, castellanas o francesas, castellanizándolas porque es una lengua latina; pero el vascuence si las recibe degenera en jerga». Aburu haur' aizuna ta gezurrezkoa da. Gathalanarak eta latin berriek ez dituzte latin zahar eta garaikaratik hitzak hartzen hoien semeak direlakotz, ez, Okzidenteko kultur-sphairan bizi direlakotz baizik. Motivu berdinaren gatik, tudeskoek eta maddarek, slavoek eta finoek hizkara klassikoetatiko hitzak daduzkate. Halakotz, euskaraz ere latin eta grekaratiko elheak erabil ditzakegu.

Hizkara klassikoetatiko elheak nahiago ukhaitekotz, bertze motivu handi bat ere ba dugu. Herrien kultur bideak hizkuntzak dira, iakintsunek herriari demaioten kultura alde askotatik hartzen dute; hizkararik askoz dathortz eta itzultzekotz, kultur terminek zigurrak izan behar dute, Hizkuntzaren garbitasuna ez ziae ezin balio sendagileri, legegineri,

iakintsuni; hekiek zigurtasuna dute nahi, argitasuna ere, garbizalekeria heurentzat muthilen jokuak eta baliogabeko zentzungabekeriak dirade. Sendagileek irakurten dituten liburuak alemanaraz, angloaraz, latinez iratzita daude eta hizkuntza hauietan kultur-terminak garaikara ta latinetik dathortza. Kultur elheen zentzuak tinketz, sendoa behar du izan, oroentzat bat eta berdina, edonungo iakintsunek erraz huler ditzan. Euskaldunek, baldin bere hizkuntza kultur bidea izan dadin nahi ba dezate, euskarak ere kultur elhe bidezkoak hartuko dituke, bertzenaz eginen genuken lana alpherra lizateke. Hunela bizi izanen da gure hizkuntza, euskaldunentzako kultur-bidea, Zer iragan lekikee euskaldunei kultur termin guztiak, euskarazko erroetatiko hitzak baizik izanen ez ba lira? Nola legoke Universitateetan iakintza, philosophiaren ikaspenak: iakin nahi lituken euskalduna, ber hunek: eskolan zegoelarik ikasi zituen elheak, hitzak eta terminak euskarazkoak baitzen ez ba lira? Orduan euskara behaztopabide handia lizateke. Kultur hitzak ez dira ez baten, ez bertze hizkuntzaren berarizkoak, Okzidenteko herri guztien altxorra direla bururat dezagun. Horrexegatik Schopenhauerek, tudesko philosophu handi ta hospatsuak bere lan nabusian hunela dio: «Hierbei nun wird es ihm eine grosse Erleichterung seyn, dass die termini technici aller Wissenschaften (mit Ausnahme der Mineralogie) als ein Erbtheyl von unseren Vorgängern, Lateinisch oder Griechisch sind, Daher auch alle Nationen diese weislich beibehalten, nur die Deutschen sind auf den unglüchlichen Einfall gerathen, die termini technici aller Wissenschaften verdeutschen zu wollen», Egiatan ba zioen Schopenhauerek termin tekhnikoen nazionalizatzea, erhorkeria zela, eta orduan alemano batzuek egin nahi ukhan zutena, orain euskalzaleek egin nahi dute. Eta ba zerran geroago: «Dies hat zwey grosse Nachteile. Erstliche wird der fremde und auch der deutsche Gelehrte genöthigt, alle Kunstausdrücke seyner Wissenschaft zwey mal zu erlernen, welches, wo deren viele sind, z.B. in der Anatomie, unglaublich mühsam und weitläufig ist. Wären die anderen Nationen nicht, in diesem Stücke, klüger als die Deutschen; sie hätten wir die Mühe, jeden terminus technicus fünf Mal zu erlernen». Hau da euskaraz: «Hemen, mineralogiaz bertze

iakintza guztien termin tekhnikoen garaikarazko edo latinezko izaitea —gure arbasoen ondorena direnez— erraztasuna da. Halakotz herri guztiek zaintzen ditute, tudeskoek baizik nehork ez du iakintza guztien termin tekhnikoen nazionalizatzeko zorigaiztoko usterik ukhan, Hunek behaztopabide bi daduka: lehenbizikoa: iakintsun arrotz eta tudeskaldun guztiek hok bietan ikasi behar dituzkete, eta hauk Anatomian bezala anhitz direnean, lan nekhetsu ta luzakoia da. Baldin parthe huntan bertze herriak, alemanoak baino iakintsunagoak izan ez ba lira, termin tekhniko bedera bortz bider ikasi behar genduke, Termin tekhnikoak ez dira ddostagailuak, iakintzaren beharrespena baizik. Euskarak behar dituen termin tekhnikoak, guk ere bertze hizkuntzêa bezala, latin eta garaikaratik har ditzakegu, eta euskararen phônetikêari dagozkion legeen biraldakuntza ttipi-ttipi batzuez, eta batzuetan euskarazko gibeltzez termin tekhnikoen lexikona eduk genezake, Hola egin baldin ez ba geneza, euskara gure ikastunentzat eta eskolatuentzat behaztopo handia izanen lizateke. Nehork bere hizkuntzaz izkiriatu liburuak baizik huler ez ba litza edozein euskaldunek bertze erdaldun batek baino gutiago ikas lezake, euskara, gaztelara, frankoara ta bertze hizkuntzak baino ttipiagoa bait da; hunetzaz gainera, erdara orok berdindu ditu bere kultur lexikonak, hok diren ikasteko ta aditzeko bidea, hobea lizen; kultur hitzak, poeten hornidurarik ez bait dira, gizonen beharra baizik, gizonek elkharri huler liezoten, ideiak eta pentsamenduak elkhargana litezin. Hizkuntza, gizonek darabilten erremintta praktikoena da; erremintta haur bitxiren-bitxiz ezertarako ez ba litzaio, edornork utziren luke. Hemengo gizonek ere atzeherriko kultur bideak erabili behar dituztela, gomutaratu behar dugu. Kultur bide hauien laguna, gure hizkuntza lizentzat bere termin tekhnikoen hiztegia berdindu behar du, bertzenaz laguna izan-beharrean, etsaia izanen dateke.

Seminariotar jaun horrekin! euskara salbatzeko behar genuen lankide bat dathorku. Ekhin, iaun hori, ekhin eta iarraik! Gure hizkuntza hemengo seme guztien hizkara den arteino, gure hizkuntza kultur bide egoki-egokia lizentzat.

III

Lafon iaunari ongi-ethorria Euskalzaindian.

Guduek eta gerlek, berez politiko ez diren korporazioneei, beren itzal beltza iaurtikitzen ohi derauete. Hunela, bada, Euskalzaindiak ere, euskararen zaintzeaz landa bertze politikarik eduki-ezarren, gizonen ezin-hulertzeak hedatzen dituen ezpaiak ezagutu ukhan ditu, bai eta orain ere ezagutzen ditu.

Ezpaien urtheak iraganaz geroz, Euskalzaindiak, bere buruaren iabearen izaitea erabaki du. Haur ezina zeno, lotan zegoen Akadêmia, Munduko baldintzak, gizonaren duintasuna zaintzen duten Herri ta Ahalmenen garhaitzeaz aldatu zirenetik gure Akadêmiaren berphizteko orduak io zuen, Ordu huntan, Akadêmiak, bere burua spiritu berriaz sorthu behar zela erabaki du.

Orain Baionan, Euskalzain berri horri ongi ethorriaren emaiteko bildu gara. Aquitanian iaio zara, iaun hori! halakotz euskalduna ta aquitarra den hiri huntarat ethorri gara.

Lurralde bi hoik bethi danik baturik egon dira. Orain bi mila urthe, Aquitaniako hizkuntza Naffarroako hizkuntzaren askazia zen, aquitarrak eta euskaldunak herri bat baizik ez bait ziren. Geroz era Karol-Handiaren aldian, Aquitania ta Vasconia bildu ziren, erromatarren Aquitaniak lehen Vasco-

nia izan Nafarroa, marka zelarik, *Vasconia* izena zedukan, Nafarroa, euskal erresumarik handiena, Aquitanian jaio zen eta bere eskualde ta zathi handienak Aquitanian zegozen. Aragoa ta Gaztelako errege Ellandek, gezurraz, maltzurkeriaz eta zimarkhunez Nafarroa menpetu zuenean, euskal erresuma hunen zathiak Nafarroa Garaia, Nafarroa Beherea, Biarnoa, Bigorri, Marzan-Gabardane, Armañaga, Fox, Nebuzane, Domezaine ta Albareta ziren. Haur da Aquitania ta Vasconia batera. Eta geroz Nafarroako erregeen eskubideak zaindu ta aldeztu zitutenak, aquitarrak ere ba ziren.

Aquitania ta Euskalherria, anaieak dira, etxe batetan bizi diren anaieak bezala, erresuma batetan, Nafarroa erresuman bizi izan dira, Erromatarren menpetzeaz, aquitarrek laister ahantzi zuten beren hizkuntza ta latina onhar zazaten; hala ahalarik Aquitaniko hizkuntzan euskararen oinharrastua ikhus dirogu, bai eta euskarak ere aquitaratik hartu maileguak daduzka. Aquitania ta Euskalherria herri bat bi hizkuntzaz da. Orain ere Aquitaniak' «Vasconia» izena darama, bere oraiko izena *Gascogne* da-ta. Hizkuntza, nazionalitate baten ezagupide nabusiena izanagatik, edozein nazionalitatek bertze kharaktêristikê batzu ere ba daduzka (arrazen distribuzionea, historia, bizitzaren baldintzak, spirituzko interesak eta bertze batzu) eta kharaktêristiê hauk Aquitaniak eta Euskalherriak batera daduzkate. Ba dagoz Euskalherrian euskara galdu duten eskualdeak eta berhain Euskalherriarenak diran; hortakotz' neure aburuz behintzat, aquitarrak euskal-latindunak direla erran dezakegu. Aquitania Nabetako, zelhaietako Euskalherria, Euskadia euskaraz izenezta genezake ta Vasconia Mendietako Euskalherria lizateke.

Baldin elkhartasun hoik naikhoa ez ba litez euskararen literaturaren sehaska Burdigalan eduki ukhan dugu; hor gure lehen obrak argitara ethorri bait zethorzkigun. Zu ere, batasun hunen erakhustekotz zathortza, anaieak diren lurralde hoien symboloa bait zinen. Halakotz bizkiak diren lurralde hoien muga-hirian gagotza. Beraz zein hiri Baiona baino hobeki, batera aquitarra ta euskalduna den hiri hunen *Euskal Museua* baino hobea, zein lekhu?

Euskararen iathorriaz ta prestiddeaz mintzatu zara, gure

hizkuntzaren iathorria bilhatu ta aztertu, eta nondik dathorren erakhutsi duzun hori! Zure ikhertzeez, euskara Kaukaseko hizkuntzez ahaiko handia dadukala erakhutsi derauku-zu. Gure hizkuntzaren problêmatei ekhin zatzaizte ta gure hizkararen norberatasuna hunela hobeki ikhusi ta erakhutsi ukhan dituzu.

Euskararen ixtudiak zuk eta zure bidean gainti dabiltzen lanez, iakintsunen munduan sartu dira. Hunela bada, euskararen etsaiek gure hizkuntzari iazarriarren, euskaldun ephelek euskara utziarren, zuk eta zure lankhideek egin duzuen lanez, gure hizkuntza basherritarren eta arrantzaleen hizkuntza baizik ez dela uste zutenei, gure euskara Universitateetan ikasteko dignea dela Philologiarentzako zintharri bat dela erakhutsi derauztezue. Zuik hasi zaraten bideak, agian, Historiaren, Ethnologiaren eta bertze iakintza batzuen problêmatak argituko bide ditu. Iaphetiten eskolak, Kaukazeko hizkuntzak eta euskara nola askaziak diren erakhutsi derauku; zuk, euskarak karthwel eta txerkez hizkuntzez dadukan ahaikoa erakhutsi duzu. Urthe askotan, gure hizkuntzak iakintsunetan eta iakintzarentzat eduki behar zuen prestiddea goratu ta handitu duzu. Zuk eginikako lana garransi handikoa da, euskaldunik askok, euskara hizkuntza aphala ta interessegabe dela uste zuelakotz, beren nazional-hizkuntza erabilten ez bait du. Irakur bezate nolakoa den, eta zein handi den gure hizkarak dadukan garransia, iakin bezate guk darabilgun hizkuntza, Goiko Iaunek mundu huntan iakintzaren problêmatetarik asko argi ledintzat utzi duten altxorra dela. Euskararen mintzatzea edozein gobernuk zaindu ta aldeztu behar zukeen, antiqueko harri gomutagarrienak eta monumentu ederrenak zaintzen diren baino gehiago, euskara, menderik-mende, bizirik guganaino ethorri den argibide ta zinezpide bat bait da.

Onsa erran duzun bezala, Akadêmia batek bere buruagana bi montatako iakintasunak deithu behar ditu; zuk, Lafitte aphezarekin «begistatzaileak» izeneztatu dituzunak eta zuzentzaileak izenezta genitzazkeienak. Lehenek, erran duzunez, nola mintzatzen den bilhatzen dute; bigarrenek' mintzoararen egitamuak zuzendu, artheztu ta normatu nahi dituzkete. Ez

doa lehenen lana bertzeen kontra. Aitzitik, bi lan hauk batera doaz, normatzaileek ezer ere egin ez dezakete, baldin begiztatzaileek, hitzak hizkuntza biziaren hartegian bilha ez ba litzate, bainan hauien ekhintza alpherreko izanen lizateke, baldin zuzentzaileek, herriari iakinduriaz hautatu dirateken erak eman ez ba lietzote; edozein gizonen aburuz, literatur eta kultur hizkuntzak, iente kaskarrenak baizik ez diren dialektoak baino prestiddez handiagoa bait daduka. Hunen egiteko, iakintzak, kulturak eta literaturak hizkuntzaren ithurburu bizietan edireiten diren formetatik egokienak beretzakotzen ditu, Bi motakako linguista hauien ekhintzak ez dira zeiharrak. Begiztatzaileen lana, iakintza hutsaren lana dateke; bainan hizkuntza baten bizitzan bertze faktoreek ekhintzen dute, hizkara bizi batetan gizarteko problematek dihardute, hizkuntzaren egokera sozialak batez ere: «Nai degu euskerak ez dezan bizi txar eta beartasuna eraman, bainan bizi luze ta ospetsua» erran duzu. Haur da euskalzain guztien lehia, Euskalzaindia, euskarak bizi luze ta hospetsu bat eduk dezan iaio bait zen. Hunen egiteko, euskara, *patois* bat ezdela erakhutsi eta nehoiz ere *patois* bat bilhaka ez ledin egin behar dugu. Haurgatik, Euskalzaindiak, euskararen egokera soziala goititu nahi du, Dauzat Albertek «La Vie du Langage» izeneko liburuan bait dioen bezala: «Depuis le septième siècle —époque ou l'équilibre ethnique s'établit dans ces régions— le basque et les différents groupes celtiques ont perdu constamment du terrain, Le premier a reculé lentement, tant devant le béarnais que devant les parlers romans d'Espagne». Atzera ioite haur Nafarroa Garaian batez ere, nabari zaiku; orain ehun urthe, Iruñearen inguruetan herriak, bai Ipharralderantz bai eta Hegoirantz, ere, euskaldunak ziren; Gares, Iltzarbe, Agoitz, Erronkari, Goñi ta bertze asko euskaldunak ziren eta orain Auritzen ere euskaraz ez da mintzatzen. Keltoen hinzkuntzen egokera aiphatuaz geroz, iarraikitzen da: «Ici, l'élément démographique n'est pas en jeu, car les races celtiques el basque sont tout aussi prolifiques que leur voisines; mais les deux autres facteurs se sont coalisés, l'inferiorité sociale du basque, breton, gaélique, etc. étant indiscutable par rapport aux langues romanes et à l'anglais qui

avaient en outre chacune le prestige politique à leur service». Hizkuntzaren egokera soziala gora dadin, grammatikalari zuzentzaileak dathortz, dialektoek demazkiguten formetan, literatur hizkuntzan erabil ditzazkegunak derakhuskigutelarik. Egitamu haukiek literatur hizkuntza dagite; bait da, edozein literatur edo iratzi hizkuntza edonun eta edonoiz bethi konventzionala izanik, berhuntan zuzentzeko ta normatzeko iskia egon bait dago. Dauzatek ere' bait zioen bezala: «Mais ce qui sépare plus nettement encore une langue littéraire d'un patois, c'est que l'un est totalment spontané et inconscient. tandis que l'autre subit sur quelques points l'effet d'actions volontaires et réfléchies. Ici entrent en scène la correction, l'amélioration du langage. Au regard de l'homme de science, il n'y a pas de locutions vicieuses: toute forme, tout son a sa raison d'être, dont il s'efforce d'analyser les causes: c'est son rôle. Mais on comprend que dans la vie sociale les individus tiennent un autre raisonnement, On conçoit fort bien que le provincial venu dans la capitale cherche à perdre ses locutions de terroir, et modèle son «accent» sur celui de Paris, pour éviter de se singulariser, sinon d'être tourné en ridicule. L'homme du peuple qui s'élève dans la hierarchie sociale s'efforcera de perdre la prononciation et les expressions qui dénotent une condition inférieure». Haur da euskararen zorigaitza. Euskaldunik askoren spirituan, euskara hizkuntza aphala dela dago. Aurrephai aizun hunen khentzekotz, Euskalzaindiak bere eginhal guztiak egin behar ditu. Hunen egiteko, zuzentzaile, literaturtzaile ta elhederzaleek ethorri behar dute eta gure hizkuntza zuzendu ta egokitu. Begiztatzailek' herriaren ithurburu bizietan ediren dituzketen ur sendagarriak bertzeek destilatzen eta trabailatzen dituzte, ur hori erabil ahal dadin dagite. Ait litez beren lanak bethi batera ioan. Hunela euskal seme guztiek euskara maithatuko dute-ta.

Euskaldun batek bere arbasoen hizkuntza ikasi ta irakatsi behar du, bere nazional hizkuntza delakotz. Euskalherria maithe izaitea ta euskara ez-erabiltea ez doaz elkharrekin; euskaraz mintzatzeke ez dago euskalzaletasunik. Euskalherria maithe duenak, egin behar dituen gauzetarik lehena, euskaraz mintzo izaitea da. Zergatik, zer-dela-ta, zerarren hu-

meei euskaraz irakatsi? Kausa bat gatik, arbasoen hizkuntza delakotz. Hola holarik da dagoz bertze motivu handi batzu ere. Euskara mintzo zen lekhuetan, euskara itzalzen denetan, hor lurralde hoin semeakan spiritua itzaltzen da. Ba dirudi euskararen gabe, «euskoek» beren pentsamenduen emaiteko bidea galtzen dutena. Euskalherriaren seme hospetsu oro euskaldun zen. Ion doni Xaberri, Loiolatar Eneko, Elkano, Unamuno, Garaziko Uhartetar Ioannes, Oihenarte, Zumarragar Aphezpiku, Zumalakarregi, Legazpi, Erzilla ta bertze asko euskaldunak ziren. Euskara uzten den lekhuetan, lurra malkhortzen bai lizatekeien bezala, lehen seme hospetsuak zemazkigun lurraldeak frukturik ez dema! Ba dakit aiphatu ditudan euskaldunetan, batzu irazleak izanagatik, erdaraz izkiriatu zutena; bainan burura dezagun, bai eta hunen egiteko ere, euskal lurralde hoiek, euskaldun zireno, mundu guztian ezaguturik diren euskal seme hospetsuak eman dituztela, eta orain zein malkhor, zein herbal, zein fruturik gabe lurralde hok dagozen. Euskaldunik askok, euskara behartsua dela dio; berhain ez dute gure literaturaren obrarik irakurten. Egiatan gure Literatura, frantsesa baino ttipiagoa da, bainan dadukagun literatura irakur eta argitarat ez ba dezagu, tipiagotzen dugu.

Gure literaturaren obrak argitarazi behar ditugu. Hunen egiteko motivurik asko eduki daduzkagu. Egun askotan, euskaldunek elkharri ezin huler liezakeotela entzuten dugu. Gure obra ederrenen irakurtzearen bidez behaztopo haur laister khen genezake, elkharri hulertzeko hizkuntzak literaturaz sortzen bait dira. Orduan, egungo egunotan askok dadukan euskararen erabilteko ta ikasteko lazturak berez ihes eginen luke, ta euskara gure herriaren egiazko hizkuntza izanen lizateke. Gure literatur zaharraren liburu haukiek erraztasun hori dadukate, Euskalherri guztietan edozein euskaldunek erraz huler litzakela, Mende hunen irazleek beren liburuetan beuren herrietan, basetxeetan erabilten diren berezdurak eta dialektismoak darabiltzatelarik, antxinako irazlek, euskaldun guztiontzako liburuak izkiriatu nahi bait zituzten. Halakotz, hekiek digute gure nazionalitatearen atxikidura. Gure literaturaren irakurteaz ikhusiren dugu zein gai den euskara, zein zalhoin, zein eder!

Broussain zenak, Akadêmia iaio zedin, lehen urrhatsak egiten zirelarik Azkue iaunari guthun bat izkiriatu zeraukon, eta huntan, Akadêmiak Euskalherriaren burgesia ta aristokratia Euskalherriaren intellektual eta iakintsunak irabazi behar zituela ziotsan, haukiek euskaraz ikas eta erabil lezaten eta beren humeei irakats. Hizkuntza bat bere mugetan atzeratu den arren, populuak erdararen bat ikasi ta erabiliarren, baldin herri baten gizarteko mota kulturdunek' beren nazional-hizkuntza onhar eta gora ba dezate, lehen, behar bada, iente arruntena baizik ez zen mintzoara, nazionalitatearen symbolotzat herri guztiaren bihotzetan altxa ba dadi, hizkuntza haur salbaturik egonen da, hizkuntzen bizitzetan, gizartea zuzentzen duten obuek ethorkizuna determinatzen dute-ta. Euskaldun guztiek, kulturdunek batez ere, elkharri bethi euskaraz mintzatu behar deraukote; bertzenaz euskara, *patois* bat bilhakaturen zaiku. Dauzatek huni buruz diosku: «Fait très caractéristique le dialecte tombe au rang de patois. Ces deux mots sont synonymes pour le linguiste. Mais au point de vue social, ils expriment une différence considérable Le patois est un dialecte déchu: il a perdu totut prestige. De plus en plus, le parler populaire est méprisé par le paysan, qui le considère comme un signe d'infériorité, de bassesse». Zorionez orain dano ere Euskalherria maithe duten eta euskara darabilten burgesak eta intellektualak anhitz dira, bainan ez dugu euskara maithatzen behar den bezala. Euskalherrian burgesik askok erdara behar den baino gehiago bait darabil. Ba zaiku nabari gure hizkuntzaren arbuiatzaileen lana! — «Bien rares sont les régions où le patois est regardé comme un emblème de la petite patrie; encore ce sentiment n'est-il guère que l'apanage des lettrés et des érudites locaux. Ceux-ci, amoureux du passé, essayent de sauvegarder la langue qui leur est chère, en insérent des pièces, des articles en idiome du cru dans les journaux locaux; vains efforts! Le paysan a le plus grand mal à reconnaître sa langue orale... «Ez da naikhoa almanakhen argitaratzea! Ez da naikhoa behin edo bertzetan euskaraz berrien izkiriatzea! Ez da naikhoa populuko euskaraz mintzatzea! Hunela edozein *patois*tan egin ahal genezake! Euskararen prestiddea handitu behar da, euskaraz guztiok mintzo izan behar

dugu, Kulturdunek eta intellektualek batez ere! Bertzenaz euskararen arbuiatzaileek gure kontra buruzagituko dute. Bainan, baldin gure herriko mota urenak euskaldun bilhaka ba ditzagu, gure herriaren buruaren klassietarik, Euskalherriko lekhu ta zokho guztietaraino uholde euskalzalea iatsiko da; gure hizkuntza lotan dagoen lekhuetan atzarriko da, utzi zituen lekhuetarat itzuliko da, galdu zuena, irabaziko. Bertze tokietan bezala, Euskalherrian ere gerthatuko da. Hunela bada, Euskalherriaren intellektual, iakintsun edo burges bat euskaraganatzen dugunetan, euskararen bizia luzeagotzen dugu ta bere prestiddea handiagotzen.

Arlo huntan, iaun horrek! lan handia egin duzu. Zurekin euskara Universitateetan sartu da. Zure ekhintzak, euskarak zedukan eta orain ere iente kaskarretan batzuetan dadukan vulgaritatearen stigmaren khentzeko asko egin du. Stigma haur albait lehenen khendu behar da; hunelako nathu bat, hizkuntza bizi batentzat, Brasileko oihanetan bizi diren salbaiek derabilten kurara bezalakoa bait da, baldin eta gorphutz bizi batetan sartzen ba da bere eginkuntza, zeluletan ari da ta arhin-arhin bere ondorenak sentitzen dira, eden eraile hau hartu duen gorphutza asphysiatzen bait da.

Euskarak aspaldi danik dadukan eritasun handiaren khentzeko ekhin duzulako, euskarak behar zuen prestiddea eduk dezan ekhin duzulako, Euskalzaindian sartzen zara.

Izan zakizkigu beraz, on-ongi ethorria!

(Baionako Euskal Museuan, 1950/o Uztailaren 15/an).

IV

Euskara, Euskalherriaren Kultur-Bidea ledin izan.

Eusko-Ikaskuntza izeneko Erkhidegoak beure lehen bilkura Oinatin eduki zuenean, Elizaldetar Koldobikak «Metodología para la Restauración del Euskera» thêmari buruz hitz egin zuen, Orduan Elizaldetar iaunak erran zuenari —egia handia izanarren— ez dakidan zergatik euskarazale gehienek ez-entzun egin zeraukoten.

Gure herriaren kultura zuzentzen duten klassiak, euskaldun bilhakatu-beharrean, erdaldundu ziren. Burutik zethorren iarraibide tzarrak, populuaren arimari nora-ioaitea ta nori behatzea khendu zerauzkion. Euskalherriaren klassi influentzadunek, iarraibide ona eman beharrean, eta bethi edozein thêmaz euskaraz mintzatu behar zuten, bainan huntaz kontra, erdaraz baizik hitz egiten ez zuten. Euskarak eduki behar zukeen egokera garaia ez zedukan. Buruak bere hizkuntza vernakulara gutietsi zuen, herriak iarraibideari begiratu zeraukon eta berdina egin zezan.

Hemen xehakatu nahi gendukeen zailtasuna handi da. Gure herriaren mota urenak, anhitzek dioite, edozein thêmari buruz euskaraz hitz egin behar, bainan nola? Haur izanik zen

galde nabusia. Halabainan galde hunen egitea, ez-iakintza da. Nola? Edozein herrik bezala. Euskarak, kultur-obiekturik askoentzat iathorrizko hitzak ez bait zeduzkan, gure herria gan garbizalekeria izeneztatu behar dugun okherdura nahatsaleak, gure kultura aintzinatu behar zutenen spirituan, ez-iakintza erein zuen. Eta zorigaiztoko ereintza guztietan bezala, ereintza hunen fruktuak laister zorhitu ziren, orain ikhus ahal dezakegun gure hiri nabusien erdalduntzea haren uzta baizik ez delakotz.

Zer den kultura, iakintzarik ez duenari huler-araztea ez da gauza errazik, koloreak itsu bati adiaraztea bezalakoa da--ta. Konzeptu hunen erran-nahia «Kultur-subiektivua» izeneztatzen dena duenak, on-ongi daki zer den, bainan elhe haur kulturbakoarentzat margoak itsu batentzat bezala dira.

Egiaz, Physikêaren thipiltze bat onhar dezakegu, eta uhin--theôrian, koloreak uhin-luzerak direla erran genezake, halarik ere, koloreen iakintzazko azaltze hunek, Physikalariarentzat azaltze soila izanarren, subiektuaren ezagutzari, edonork eduk ahal duken intuizione batek emaiten ohi derauzkigun argitasuna ta zigurtasuna ezin eman dietzakeo.

Kultura, Mythoan, Philosophian, Iakintzan, Erleginoan, Poêsian, Musikan, Arkhitekturan eta a. agiri den gizonaren *milieu*ko egokera dela erran ba dezagu, gizonaren bizia, Anatomiaren liburu batetan zer den bilhatzen duenaren araura egiten dugu. Kultura bere bizian ikhertu behar dugu. Autopsietan gorphuak ikhus ditzakegu, bizia bere bilhakatzean ixtudiatu behar da. Mythoa, Philosophia, Iakintza, Erleginoa, Poêsia, Musikêa, Arkhitektura ta a. Kulturaren zathiak dira, bainan xehakatze hauietan, Kultura zer den ezin ediren dezakegu, hauk balio handiko laguntza izanagatik. Kultura, bizi izaiten diren izaikari guztiak bezala, egiten eta desegiten da, irazaiten eta ezerezten du, nehoiz ere berdina gauza berezia da. Dudarik gabe, izen batetaz izenezta ahal dezakegu gure aitzinean, iaiotzatik heriotza dano bizi izaiten delarik persontasuna bait daduka.

Herri bakhoitzak ez daduka kultur berezia. Herriak, kultur-obuetan bizi izaiten dira. Herrien kultura, orobatasunak

dira, erreken urak bezala biltzen dira, hibai handiagoak dagitzate, eta batera elkharrekin oganik aurreratzen dirateke.

Eurôpên, hunelako orobatasun bat *Itzalgiko kultura* (edo Arrats-herriko Kultura) da. Ber huntan agian, erroak Oriente Hurbilean, Babylônen eta Aigyptoan dagoz, agian Asia-Ttipian bainan kultur hunen enborra Garaikherriko Iakintza, Philosophia ta Ertia dira, eta haukiek bere norberatasuna emaiten deraukote, Bere adar hospetsuenak Athênetan dira. Zuhaitz hunek adarrik asko daduka. Hauietan, Eurôpêko herri guztien insegu oro dago.

Orain beha diezogun Euskalherriari. Ez ahal da Euskalherriak Arrats-herriko Kulturaren adarra, ttipia ala handia, bainan bere inseguez lagun izan zaion eta izaiten den herri bat, behar bada, zaharrena ta hospetsuena ere? Ez-othe-dira euskaldunok Europako, kulturaren obuan bethi danik bizi izan den herri bat? Ala aitzitik, Euskalherriak kultur berezirik dadukea? Erantzuna erraza da, Euskalherria bethi danik Itzalgiko edozein herri bezala, Eurôpêko kulturan bizi ta hazi da; halakotz Eurôpêko Kultur obuko herrientzat erudutu ditugun baldintzak bai ba dagozkio, Behin eta bethiko erran dezagun Euskalherria, herri berezia izanarren, bere Historiaren oiaitean nehoiz ere bakharturik egonik ez dela, aitzitik orain dakigun bezala, guttienez euskaran % 50 hitz latinetik dathortz, ta keltarazko ta germanarazko hitzik asko ere ba daduka. Euskararen elhe basikoek, Kaukazeko hizkuntzetan ahaideak ditutela ikhus dirogu, agian, Mediterran Itsasoko herrietako erro bederatik dathorkeo. Orduan, orain danik gehiago ez gaitezen mintza, Euskararen «ugartetasunari» buruz, ugartetasun hura, mytho bat baizik ez bait da. Eta hunela denaz geroz, pozik egon gaitezen egokera huntan gure mintzoararen salbamendua bai dago, Egun Aequator-Afriketan bizi diren, herri primitivuek egiazko kultur ugartezkoa dute, bainan heuren hizkuntzak motivu hunegatik bizi modernoarentzat egokiak ez dira, menderik-mende egin behar zen haztea egin ez dutelakotz. Euskarak, euskaldun zaharrek, egiazko philologoek eta linguistek bezala, kultur terminak iakintzaren araura beretzakotu zituzten. Gure arbasoek, men-

pe ezin dezakegun etsai baten kontra burrukatu behar ez dugula bait zekiten, menia eskatu zeraukoten eta bakhetan bizi izaitekotz, baldintzak erudutu eta eratu zituten. Hunelako etsai borthiz bat, kultura bait da, aurkha egin behar ez deraukeogu bakhearen egiune bat eskaini behar diogu, ta orduan etsai ethorri zitzaikuna, oganik laguna bilhakaturen zaiku.

Hunela bada, garaikaratik hitzen hartzea, euskarari gaizki ez dagoko, onurakhorra baizik, edozein herriri bezala. Egia haur, laister ezagutu zuten Eurôpêko herriek eta Renaissance zaroan, hizkuntza klassikoetatik esku zabalik behar zituzten terminak beretzakotu ziren. Bainan edonoiz edozein ekhinaldik bertze ekhinaldi bat bere aurkha arazten bait du hunla ere, negurrigabe Universalismoaren kontra Nazionalismoa ethorri zen. Uholde bederak bere arrisku berezinak daduzka, Lehen tendentziaren arriskuetan, nazioneak beren norberatasuna galtzear egon ziren; berhain anaietasuna ta maithetasuna gizonetan ninikatu ziren. Bainan nazinokeriaren arriskuak handiagoak dira, nazinokeriaren ondoan statukeria iaio zelakotz. Gizonak anaiek direla ahantz zedin eta trabailuaren xehatzapen bat baizik ez zena iainkotu zeraukuten. Statua, europatarrei eidol bat bilhakatu zitzaien. Nazione-Statuen eidololatriak, Eurôpêko kulturaren batasuna hamiltzaren bururaino ekharri zuen. Nazioneek, nazione guztiek, beren burua bizi izan dadintzat, legezko kondizioneen eskatzeko eskubidea, lehen eduki zuten eta orain ere ba dadukate. Berhain gehiegikeria ethor zedin eta bidea baizik ez zena itutzat har zedin. Negurria gaineztu zen, garaz harantz ioan nahi zuena, Zoriak bi guduen heiagoraz lurreratu du, Zeusek Atreu Olymputik Tartaroseratu zuenez.

Nazinokeriaren larregikuntzetan, garbizalekeria egonik da. Bertzeen maileguen hartzea, ohorebakotasun izan bai lizateken, bertze herrien kontribuzioneak ere ukhatu behar ziren, edozein arotan herrien arteko elkhar-hulertzea ta elkhar-maithatzea handiagorik ez bait liren. Eta geroz behar bada, gaitzena karramarroen spirituaz, xauvinistek kaskilaz landan mundurik ez dadukate.

Itzul gaitezen thêmarat. Garbizaleek iasan-arazi zerauko-

ten euskarari. Konzeptu berrientzat hartu behar ziren elheak, ezin har; hala-bainan, gizonek beren ideien lekoratzeko beharrizana dadukate; haur euskara garbiz ezina da, halakotz euskaraz mintzo ez ziren. Hunela gure herriaren alde egin behar zen ekhintza, erdaraz zethorkon, Euskalherriaren gogoaren bidea lekortartu zen. Euskaraz egin behar zen kultura, euskaldunek erdaraz izkiriatu zuten eta herriko hizkuntza hamiltegirat eraman. Erdara sartu zen hirietan, kulturdunen obuetan. Eskolaren hizkuntza erdara zen. Ba dakit batzuek, gure etsaiek eskoletan erdara sar-arazi dutela dioitena; bainan haur ere guztiz egiazkoa ez da. Egun ere Gathalunian, privat eskoletan eta erlegino-eskoletan gathalanaraz irakasten bait da gathalanarak behar duen prestiddea dadukalakotz, gathalanek beren hizkuntza maithe ta zaintzen dutelakotz, eta huntaz kontra ez dago ezein Staturen bothererik. Baldin Euskalherrian berdina ez ba da, euskaldunek dute falta ta ez kanpotarrek, Euskoek heuren nazione-hizkuntzat goititzen ez ba dute, ez dezagun uste kanpotarrek goitituren deraukutenik.

Hunla gure hizkuntza kultur-bide bat bilhakatu ez dela ikus dirogu, Euskarak literatur tradizionerik ez dadukalarik, gure irazleek iarraibide ta ongi izkiriatzeko kanôn bat eduki ukhan ez zuten, Batzuek, Sarako Etxeberritar Ioannes miriku doktorak batez ere, gure hizkuntzaren zorigaiztoko egokera hunen hobetzekotz «Euskararen Hatsapenak» izeneko liburuan Buruzagi bat hautatu behar zela erraiten zuen —bertze herriek oro egin zutenez— eta kritêrion horren izaitekotz Atsular handia arthamendatzen zuten. Bainan Euskalherrian, Eurôpêko nazionalismuaren atzartzeaz, kabylkeria iaio bide zen, eta XIX mendean, ordudano batasuna eduki ukhan zuen euskarak bere uniformitatea galdu zuen, eta edonork bere buruarentzat literatur hizkalki bat eratu behar zuela zirudien, Hunla batzuek, edozein hizkalkiz ta hizkalkittoz izkiriatu behar zela uste zuten. Hunlako ez-iakintzaz euskara aphala ahuldu zuten eta ahultzen dute eta ahultzenago. Guztiok ba dakigu linguistikarentzat hizkaldietan bizirik dago-zen ttipikuntzek interesse handia dadukatela. Bainan hizkuntzek gizartean eduki behar duen prestiddea, kulturdu-

nek erabilten duten hizkuntzaren bidez egiten dela Philologiak derraku; hartakotz, kulturdunentzako hizkuntza egin ez ba dezagu ezin dezakegu gure hizkuntzaren prestiddea handiago. Orobatu hizkuntza eduki behar dugu. Elizaldetar Koldobikak ba zioen bezala: «En las lenguas cultivadas literariamente, las palabras escritas tienden cada vez más a ser signos ideológicos y a apartarse de su primitivo carácter de meras transcripciones fonéticas. Para la vista del lector ejercitado, la transcripción gráfica de cada palabra tiene su relieve especial, su perfil, diríamos su «fisonomía» que se percibe de un simple golpe de vista, que evoca al instante la idea correspondiente, según la sencilla experiencia que cada uno puede hacer en sí mismo. La verdadera facilidad de la lectura está ahí y esta facilidad no puede existir en la lectura euzkérica mientras subsista la fantástica variabilidad de transcripción de las voces vascas». Halakotz euskararen batasuna eratzekotz gehien izkiriatzen den hizkalkia onhartu behar dugu, ez gehien mintzatzen datekena, literatur hizkuntza batuak, lehenez irakurtzekotz bait dira. Motivu hunengatik gure literaturaren tradizione hizkuntza hartu behar dugu, eta haur, Leizarraga ganik, Atsular ganik, Gazteluzar ganik, Etxeberri ganik, Haraneder ganik gu ganaino ethorri den literatur laburdara da.

Toki huntan ere ba legoke, kultur terminei buruzko orthographiaren galdea. Batzuek kultur-terminen orthographia euskeraldu (heuren aburuz errazako bait da) behar dela dioite, euskararen phônetikêari dagozkion legeak ezarten derauztegularik. Sinheste haur gezurkeria da; Kultur hitzek edozein hizkuntzatan eta kulturdun guztientzat heuren physiognomi berezina dadukate, ta guk euskaraz, kanpoko aspektu hori zaindu behar dugu, liren erdaraz ikasten ditugun hitzak bezalakoak. Kultura ez da iente arruntena, bermailak kulturaren arazoetan ez du ekhintzen, halakotz kultur terminen lexikonak eduki behar duen gauzatarik lehena bertze hizkuntzen hitzen eitea da.

Ez dakigun zergatik, hitz zuhurrak entzuten ez dira, entzunda ahazten dira, bainan zentzugabekeriek bethi oiharzuna

dadukate. Elizalderen elhe zuhurrek orduan behar zuten oiharzuna eduki ez zuten.

Izan ez gaitezen extremistak eta iakintzak erakhusten deraukun bidean gainti ioan gaitezen! Geuk ere, sentzu-onaren bidean barna ioan behar dugu-ta, Ongi da kanpotiko hitzak geure atzizkiez karantzatzea, bainan ez dezagun ahantz, karantzatze haur kanpotiko hitzetan egin behar denik. Utz dezagun garbizalekeria, iakintzaren problêmatetan fanatismurik ez bego, edozein fanatismu itsu baita.

(«Gernika» errevistan argitaraldu. Doniban-Lohitzunen, 1951/ko Urtharil-Ephail. n. 14).

V

Azkue iaunari «in memoriam» Bilboko «Atheneu Berrian» emanikako hitzaldia.

Iaun eta andreak:

Azkue iaunaren in memoriam erraiten nauginean, duda handi bat niri buruan dathort, eta haur da, hemen konferentzia batzuetan Euskalherriko seme handi hunen orhoitmena egin dezakegunz, lekeitiar euskalariak bere bizi luzean gure herriari buruzko ixtudietan zein ere arlotan lan egin bait zuen, eta orotan ere, langilea bait zen fruituak utzi dituelakotz. Hunelako gizonaren elhesariaren egitea, gauza gaitza bethi da, eta soilik haren orhoitzapenak laguntzen gaituke. Azkue iauna, gorphutzez hil zaiku, bainan Azkue iaunak bezainbertzeko obra handia uzten duten gizonak hilten ez dira, bizirik beren ondorengoetan iarraikitzen dira, Azkue iauna, beraz, hil-arren, gure baithan bethi egonen dela erran dezakegu. Ez dut beraz damuturik eta phenaz Leikeitioko seme hunen *in memoriam* deitzea eginen, haur zuzen ez bait legoke!

Zertara erramen bide derautazue orduan konferentzia hauk Azkue zenaren omenez egiten dituzue? Ber hau nik ere, neure buruari erran neraukon eta ihardespena erraza dela erran diezaketzuet. Euskalzale handi hunekin lan egin dugunoi haren aiphatzea indarra ta kemena izan dakiguntzat; bai

eta nire hitzaldi huntaz, zuei Azkue iaunaren orhoitzapena deitzen ari natzaitzuelarik, agian, zuetan euskalzale datekena, gurekin aintzina ethor dadintzat, orain behar bada nehoiz baino, gure herriko historian, galtzear dagoena salba dezaguntzat, aintzinat dezaguntzat eta guztiok batera Euskalherriko symbolo bizia. Beraz, Azkue iaunaren orhoitzapena dakhartzuedalarik gure bitartean bizirik dagoen thêsaur ezin bertzea eskainten derautzuet iraun araz dezazuen.

Paradoxikoa izanagatik, euskalzain gazteena naizen hunek, euskalzain zaharren zenaren elhesaria eginen derautzuet. Azkue iauna, berhogei ta hamazazpi urthe ni baino zaharragoa zen, hortarakotzat nire aitona izan zateken. Agian adinaren differentzia haur zio zela' bertzela behar bada ezina zitekeien adiskidetasuna ukhan dugu.

Lehen aldiz Azkue iauna ezagutu ukhan nuenean, bere hirur hogei ta hamar urtheen muga iragan ba zuen, bere biziaren garaiean zegoen beraz. Ba zituen bere lan ezagutuenak eta aiphatuenak argitarazi. Geroago soilik bere «Euskalherriaren Iakintza» bukatu ta bere «Erkhatu Ixtudia» argitarat eman zituen. Nik neuk ere Azkue iauna Herribera karrikako etxe zaharrean ezagutu nuen. Hara sartu nintzen lehen aldian itzautzi ohitu ez bezalakoa, bihotz ikara bakhan bat sumatu nuen. Iragen mendeetarat, tupustez itzuli bai nintzen bezala izan zitzaitan. Iragan mendeetarat itzultzen nintzela zirudien, Nire orhoitzapenerat Napoleon aroko filmetan ikhusi nituen aurkhezpenak eta skênêak ethorri izan zitzaizkitan. Batez ere, kompositore erromantiko bati buruzko film batetan ikhusi nuenaren orhoitzapena zethortan, Han, hamabi kadirez inguratu mahain baten gainean iguzkiaren izpiak erorten ziren, bertze salon batetan Azkue iauna, lan egiten ikhusi nuen. Geroago hamaika bider lekhu huntarat itzuli nintzen, bainan lehen visita huntan hartu nuen zirrara bethi gomutaratzen dut. Oleaga iaunarekin Azkueri nenthorkon, zertifikat baten bilha nindoan. Hunela euskalzale handi huni lehen aldiz mintza nenkidikeon.

Nolakoa zen soinez Azkue iauna orduan? Agurea ba zen, bainan gizon zerdena ere, osasuntsu ta begi zolhiez. Orduan

danik haren ganat anhitzetan ioan nintzen, gehiago ta adiskideago bilhakatu nintzen eta azkenengo urthe hauietan bere lagun hurbiletan egonik naiz. Solhas anhitzetan gerthatu gauzak kontatu ta iaulki zerauzkitan eta orain neuk zuei, orduan neuk ikasi nuena, erran nahi nerauketzue, guztiok batera, hildakoaren orhoitzapenaz indar gaitezentzat.

Beraz nik Azkue iauna gaz egin dudan spirituzko portretak zenbait unitate daduka, Azkueri gerthatu zitzaizkion gauzak nik aktorea ganik ezagutzen bait ditut.

Halakotz, portret haur nire spirituan veneziarren araura pintaturik dago, Taula huntan figurek beren hondoaz batasuna dagite. Mugak lanhoturik dagoz eta koloreen differentzia, karantzaturik aldatzen da. Karantzatze hau, urtheez handiagotu zait eta neure taula huntan antxina daniko tauletan bezala, berniza oritu bait zait urtheek eman patinak, nobletasunaz orhoitzapena estaltzen du.

Portret hunekin Azkuener panêgyrikoa eginen dut. Bainan bere omena jin dakiguntzat, bere evokazionea euskaraz egin behar dela uste dut. Bai entzule euskaldunok, nola egin ahal genezake Azkueren panêgyrikoa euskaraz baino hobeki? Ez ahal zen gure Azkuetarren lehia euskararen bizia iraun--araztea? Gure ekhintza ere hunelakoa izan ledin, Azkue zenaren lana gu gana dei egin dezagun, bainan dei huntaz batera Azkuetarrak arthamendatu zeraukuna egin dezagun, mintza gaitezen euskaraz, erabil dezagun euskara kultur arazoetan, gure eguneroko mintzoan, irakats diezegun gure seme--alhabei. Azkue iaunaren ekhintzaren fazeta guztiak irudi batetan biltzen dira eta haur zen Euskalherriaren maithasuna euskararen maithasuna.

Gure elhesari huntan Euskal Akadêmiaren Buruzagi izan zenaren orhoitzapena fazeta differentetan evokatu-arren, trabailu-xehatzapen hau, Azkue iauna gan ez zegoela iakin dezagun, Azkue iaunaren ekhintza oro, aiphatu argi hortaz iguz-

kitan bezala bait zegoen. Gure euskaralogo handia, linguista, philologo, musikari, ethnographo, bildari ta theôrigilea batera izanik zen.

Guztiok edo gehienek, lekeitiar euskalzale ezagutu ukhan bait duzue, deitze hau zurekin egin nahi nukeien elhezta dela erran dirot.

Azkuetar Resurrekzione Maria 1864/garren urtheko Uztailaren 5/garrenean Lekeition iaio zen, bere aita, Azkuetar Eusebio ta bere ama, Aberasturitar Maria Karmel ziren; haur, agian, gure akadêmikoaren laguntzailerik handiena, On Resurrekzionen aita' euskal koblakari lekeitiarra izana zen. Ama mundakarra zuen eta hunen ezpainetarrik gure ethonographoak Euskalherriko ohituren orhoitzapena ta gure herriko superstizioneak ikasiak zituen.

Azkuetar Resurrektionek Lekeition Nautikêa ixtudiatu ukhan zuen eta Bilbon bakkalaureata, Dirudienez, nauta bezala bidadde ttipi bat ere egin ba zuen, Portugaleko itxasbazterretaraino. Bainan laister karriera ekklêsiastikoak, ethorkizunean, akadêmikoa izanen zena deithu zuen. Hunela bada, 1881 danik 1885 Gastehizen Theologia ixtudiatu zuen. Bere ixtudien hobetzekotz Salamankara ioan zen eta hemen Skriptura Sagaratua ta Iura Kanônikoa ikasi zituen, eta asignatura lehenean, 1892/garrenean bere doktorata egin zuen.

Azkuetar gazteak argitaratu zuen euskarazko lehen lana, bere «Euskal Izkindea» izan zen. Grammatikê phantastiko phantastiko huntan Azkue iaunak bere gaztetasunaren sukharraz ezin onhar zitezkeien berrhaturak arthamendatzen zituen. Huni buruz anglotar philologo batek, Dogsonek, hor irakasten zen hizkuntza, *vascuence* ez zela, *askuence* baizik erran zuen. Geroagoz, grammatikê phantastiko hunen egileak urtheen iariatzeaz Linguistika ikasi zuenean, aiphatu liburuan arthamendatzen zituen absurduak ikhusi zituenean' bere grammatikê hau, bere gaztaroko bekhatua zela erraiten ohi zuen, Euskararen Linguistikan ari izaitekotz, lehen Linguistika zer den iakin behar zela ikasi zuen eta hizkuntzan lanetan ari izaitekotz soilik maithasuna aski ez dela hulertu zuen.

Beraz Azkuek geroagoz iakintza baten abezedea iakiteke aintzina ioan ez gaitezkela ikhusi zuenean zenbait ahalkez bere gaztaroko bekhatu huni behatzen zeraukon. Behin batean, niri bezuza bezala eman zerauzkitan lanetan euskal grammatikê haur ere egonik zen, bainan emaitza hau, arthamendatze spezialaz egin zerautan: huná hemen orduan erran zerautana: «Har zazu nire liburu hau, Huntan ederra soilik bere azala da, Bainan orain «praktikokiro erabil dezakezu. Makhinaz zerbait izkiriatu behar dezazunean, zure alkhia aphalegia baldin izan ba ledi, ezar itzazu zenbait «euskal-izkinde» eta hunela goitiago egonen zara, Azkue iaunak bere gaztaroko bekhatuari buruz uste zuena haur zen.

Azkueren aldatze haur, on-ongi mintzatzen da grammatikê horren egileaz. Hemen ongi legoke gure euskaralari batzuei buruz «out-spring» tipiaren egitea, Egun ere Euskalherrian, euskarari buruz absurdu handienak argitaratzen direla ikhus dezakegu eta hunelako irazkien kausa, hemen behar den baino gehiagotan dugun ez-iakintza da. Ez dago Azkue iauna hunelako burugabeko theôrien egileen lerroetan; batez ere Bizkaian, euskalzaleen buruetan iakintza gabeko ereintza ondikozkoa ikhus dirogu. Euskaldunek phantasi handia dutela erakhutsi nahi ukhaiten deraukute, eta phantasi hunen bidez gero euskaralogia, maithazaleak bezala aztertzen ari izanen direnen buruetan gezurra ta errorea sartzen dira. Dirudienez, erroreak eta gezurrak gizonak liluratu egiten bait dakitzate soi-disant euskalzale batzuek geroz absurdukeria handienak aldezten dituzte.

1888/garren urthean Bilbaoko Institutuan fundatu izan zen kathedrarako professorea izentatu zen. Kathedra hunen iarestekotz, lantto ttipi bat egin zuen. Lantto haur, orain, Pariseko Bibliothêkê Nazionalean dago, eta hemen Azkuek urtherik asko iraganaz geroz Frantzerriko hiribururat ioan zen batetan ikhusi zuen. Orhoit dezagun, kathedra huntarako Azkueren antagonistak Arana-Goiritar Sabin, Unamunotar Mikeles, Itzar Luiz eta Madinatar Eustakhio zirela. Agian orduan dano euskalzale handi-handia izan zen Unamunok bere zaletasuna, Azkueren garhaipena karia zela, galdu egin zuen

eta geroagoz zenbaitetan euskarari buruz gaizki mintzatu zen.

Azkue, iurnalista ere izan ba zen. «Euskalzale» izeneko errevistaren editorea ta idazkaria izanik, euskararen ixtudietarat itzuli zen eta dudarik gabe gure euskalzalearen fruktu handienak Linguistikako alhorrean zorhitu ziren. 1896/garrenean «Methodo Praktiko» bat argitaratu zuen eta hunen «Thematen Giltza» ere bai, Bainan Azkueren lan handiena 1905 danik 1906 dano argitarat ethor zedin. Lan aiphagarri, omengarri eta euskararen ikaspenen zintharri haur, guztiok ba dazaguzue, beure izena «*Diccionario vasco-francés-español*» da. Dudarik gabe, lan haur Euskaralogiaren lan gorena dela erran diteke. Huntan egileak euskara populariaren ogasuna digu. Giganteen egintza hunen bururatzekotz, Azkue iauna eskualde batetik bertze aldera, ahal zitekeienez ioan zen, hunat jin, harat ioan, lapitz bat eskuan zedukalarik hemen, hor eta han galde egin zuen, gazteei, zaharrei, agureei, eta atsoer galde egin zerauen, erantzunak izkiriatuta izarigabeko lan haur hunela urhentu zuen, Azkueren hiztegian hitzak zehazki nongoak diren eta zein diffuzionez, erraiten da. Azkueren hiztegia kolossu bat da.

1918/garrenean bere «Prontuario de la Lengua Vasca» argitaratu zuen eta 1919/an bere «Diccionario español-vasco» delakoa. 1923/garren urthean bertze obra bat lehen ordinekoa ere argitarat eman zuen, bere «Euskal Morphologia» erran nahi dut. Hunetan bere egileak, euskararen grammatikêko aberastasuna biltzen du, geroz lan hunen bigarren zathian euskararen kathêgori grammatikalak dematza. Lan huntan ere, Azkuek bildu dituen materialak eta gaiak valore handikoak dira. Agian bere theôriak batzueetan okher dagoz, iakintzaren mugetan ez dagotza; bainan hemen edozein euskaralogok garaua ta lastoa baratzen erraz da daki.

Azkuek euskararen Linguistikan argitaratu zituen obrak ezin aipha ditzazkegu guztiak. 1927/garrenean «Aezkera» izeneko lan bat publikatu zuen. Hemen Petiriberroko inguruetako mintzaira aztertzen du eta Nafarroa Behereko dialektoa erabilten duen eskualde hunen hizkuntza irakasten. 1928/n Mendibururen lanetan ari izan zen eta ondorioa bezala «Men-

dibururen Adizkiak eta Idaztankera» izeneko opuskulua argitarat eman zuen; 1930/an «La Conjugación del Verbo Guipuzcoano» eta «Del Acento Tónico vasco en algunos de sus dialectos». 1931/garren urthean «Particularidades del Dialecto Roncalés» eta 1934/an «Guipuzkera Osotua» izeneko lanak argitaratu zituen.

Azkue iauna Musikêa ere ari izan zen. Bilboko ta Bruzeleko konservatorietan musikê ixtudiatu ukhan zuen, Bere ikaspenen hobetzekotz Rhineko Koloniarat ioan zen. 1898/garren urthean «Vizcaytik Bizkaira» izeneko zarzuela adelatu zuen. Bertze bi zarzuela «Eguzkia nora» eta «Pasa de Chimbos» 1899/garrenean adelatu zituen. 1901/garren urthean Euskalherriko Musikê populariari buruz zenbait konferentzia eman eta obra hauk komposatu zituen: *Kattalintxo, Ahuzki, Sehaska Hutsa, Nostalgia, Errosarioa* ta *Letaniak.* Azkueren «*Ortz-Zuri*» izeneko opera 1910/garren urthean lehenik adelatu zen. Eta Azkuek Alemanian ikasi zituen theôrien fruktua, 1912/garren urthean adelatu zuen «Urlo» izeneko opera zen. Bainan dudarik gabe, Musikêa ere, Azkueren lana bere egilea bilharia denetan nabarmentzen da: halakotz Azkueren musikazko lanetan, haren «Concionero Popular Vasco» izenekoa gorena dela erran dezakegu. Obra hunen 12 tomoetan Euskalherriko kantu populariak bildu derauzkigu eta 1001 baino gehiago argitarat eman zituen.

Euskal idazlea bezala, Azkuetarren novela, roman eta iphuin batzu egin zituen, haukietan «Iesusen Bihotzaren Hila», «Ardi Galdua», «Lamiak Euskalherrian» aiphaturen ditugu. Azkueren lan handiaren kolophôna, bere lan ethonographikoaren laur tomoetan argitarat eman «Euskalherriaren Iakintza» izeneko Euskalherriko *corpus ethnographicum* da. Biltze huntan autoreak gure baserriko superstizioneak, gure herriaren atsothitzak eta Euskalherriko folklorerako hamaiko ekhai dakhartza, Bethi danik Azkue iaunak ixtudi ethnographikoen maithale izanik zen, *Eusko-Ikaskuntzak* Bergaran egin zuen Bortzgarren Kongressuan, Euskalherriko sinhiskeriei buruz hitz egin zuen. Azkueren azken lana bere «Ixtudi Erkhatua» da.

Beraz lan hoin handia egin zuena, 33 urthetan Euskal Akadêmiaren burua izan zen, bai eta Madrileko Real Akadêmiaren khide titularea ere. Atzeherriko Instituten eta Elkhargoen khidea ere izan da, hauietan aiphatzeko lizateke Don Petersburgeko Iakintzen Akadêmia.

1951/garreneko Hazilaren 9/garrenean hil den euskalzaleak bere obra uzten derauku geuk iarraibidetzat har dezagun eta berdina egiten saia dezaguntzat. Bere bizi luzea, Euskalherriko Kulturarem alde tarterik gabeko ekhintza izan da.

Azkueren biographi tipi haur eginaz geroz, Euskalzainburu zenaren personari buruz berbait erranen dugu. Azkue gizon indartsua izan zedin. Nehoiz ere eri izan ez zela erraiten zuen, behar bada bere erigo guztiak behin edo bertzetan ukhan zituen marhantaxkoak ziren, Bere bizitzaren azken urtheetan ere haritz bat bezain zerden zegoen. Halakotz, antzez erraiten zuenez, *gizon* zaharra ez zen *muthil urthetsua* baizen. Askotan, bere laur hogei urtheez eta geroz promenadettoaren egitekotz Artzandara igaiten zen; lehen, haur baino gehiago kartetan iokatzekotz behin baino gehiagotan Sondikaraino ietsi ohi zen eta lakhetgu huntan egoitekotz euritan ere ibilten ohi zen Udaretan, Lekeition sazoina pasatzen zuelarik populuak *kalvarijo* izenaz ezagutzen duen mendirat askotan ioaiten zen.

Bainan azkenengo urtheotan Azkueren indar physiko haur zerbaixka ahuldu zen eta lehen haritz bezain zutik zegoena, makhurtu egin zen. Hunetara, gure agure ederresgarria Herribera Karrikako bulegotik Kampo Volantinerat askotan bidean ikhusi dugu, Urthe hoietan bere orhoitmena ere ahuldu zitzaion eta behin erranikako gauzak ahanzten zituen. Halakotz, okhasino batetan bere orhoitmenaren berrhatzekotz zenbait medikamendu hartu zuen, bainan ez asko, dirudienez pozoindurik hil nahi ez zuen.

Azkue iaunak bere bizitzaren azken urtheetan egun oro, zekyry berdina egiten ohi zuen. Egunoro etxetik elizara (Ion Doni Mikolas Elizarat), Elizatik Herriberako bulegorat eta

arratsaldean berdina. Halarik urthe batzù duela, behin batean Herribera karrikako bulegora bere egunoroko zekyriaren egitera ion zenean, eskillaratik erori zen eta bi sahets aphurtu. Berhala deithu ninduten, bere etxerat heldu nintzenean ohean zegoen. Mirikuak mendatu zuen eta beldur zen zaurigatik hilen zenz. Saihets baten haustea, haren adineko gizon zahar batentzat gaitza bethi ohi da, bainan On-Resurrezionek Mirikuntza musikatu nahi zuela bide zirudien eta egun batzuen buruan bere ekhintza normalera itzuli zen. Ez dakit erorte haur baino lehen zenz, bainan bere eskubiturra aro huntan ere hautsi zen, nehork ere ez zekien zeintzu bidez ta ukhenduz bere hauste haur sendatu zuen. Neure aburuz Azkue iaunak, herriko iakintza hoin iakintsuna bait zen bere eskubiturrari, gure herriko zenbait eskualdetan ikasi ahal zukeien praktikêren bat edo-ta Euskalherriko baserritarren batek irakatsi zeraukon medikamenduren bat eman zeraukon, eta hunela On Resurrekzioneren lokatu eskubiturra bere lekhurat berriro itzuli zen. Senda zedin ez zuen atxeter beharrik.

Askotan neure buruari galde egin deraukot ea mirikuek arthamendatzen derauzkiguten sendakairik asko, superstizionearen bidea baizik ez direnz, eta helburuaren ardiestekotz pilula baten irestea nahiz txiklearen karrauskatzea berdinak direnz. Miriku handiak ere ioandako mendeetan egonik dira, eta egun, orduan erabilten ziren sendakaiak eta sendabideak ikhertzen ditugunean, XVI/garren mendean atxeter baten apothêkêa, mirikuntza modernuaren iakintzaz aztertzen dugunean, orduan arkhiater batek zeraman guztia, valoregabekoa zela, egikhorra ez zela baitets dezakegu; pentsamendu haukietan bururat ba ditzagu duda handi bat dathort, agian gure mende huntan ere, guk geure gizon modernuen hanpuruskeriaz darabilgun apothêkê osoa ere, superstizionearen bide bat baizik ez den. Eta ethorkizuneko mendeetan ere gure mirikuen sendakai guztiak mamu gezurrezko, khyso bat baizik ez zela erranen bide dute. Halakotz, neure ephaia, thêma huntan zalantzaz betherik dago; agian, sendakaiek, gizarteak eta Humanitateak hauietan sinhisten duelarik, ekhintzen dute; eta mirikuntza populariaren praktikê hek guztiak valoretsuak dira, heietan sinhisten duenarentzat,

eta behar bada, bedaratzietan bedaratzi harri zubi batetik uretarat egozten ditugunean, sukharra khentzen dugu, eta agin-minaren khentzekotz berakatz bat hegapearen azpian edukitea egikhorra da. Bertzela, ezin ditekenz iakitekotz phoroga egin behar genduke.

Dena dela, On Resurrezionek nehoiz ere ez zituen Apothêkêen apaladietan hoin politki empaketaturik ikhusten ditugun pilulak behar, nehoiz ez zuen bertzeek kephalalgia izeneztatzen duten burumina ukhan; hura beharrik ez zuen, burua ba zedukala erakhustekotz bertze bideak bai zituen. Buruaren kaskilaren barrenean ekhai enkephalikoa zedukala erakhustekotz bere lana zuen, minik dei egin behar ez zuen.

Azkue iauna bere liburuetan mirikuntza populariko irakaspen luzea izkiriatu du. Mila ta mila garaikarazko izen ikasi baino lehen neuk atxeter guztiei herriko iakintza huntan dagozen egien ikastea arthamendatuko neraukeie; geroz herriko hizkuntzaz eriak erran derauzkigun minak, garaikarazko izanez itzul ez diezakutentzat. Mirikuntza populariak sendatzen baldin ez ba du, gaitzik egiten ez du behintzat. Zertara diotsate burumina duenari kephalalgia duenik? Ez othe da mirikuntza herriko hizkuntzaz erraiten diren hitzen garaikeratzea baizik?... Bainan gizonak hitzen fetitxistak dira, eta baldin gauzaren bat emphasiaz garaiko termin batetaz erran ba diezegu gure iakintza sakona admiraturen dute, hala baina, gu soilik turddimanak izan gara.

Haur da herriaren iakintzaren sakona! Armiarma batek egin deraukun ixumarrak demazkigun minen khentzekotz soilik mandolinaz zenbait konpas io behar ditugu. Allogikoa, bainan zertara sirup bat eman generaukeo, geroz ansia handia ez ba dugu infekta dakiontzat? Norbaitek erran ahal diezaket, mandolinaren soinuak, nahiz-eta tarantelaren konpasez ere minen khentzekotz aski ez direla. Nik ez dakit. Ioandako mendeetako miriku zentzundunek hunela mentasunaz erraiten zuten. Eta zergatik ur destilatutako injekzione bat eri bati emaiten deraukogunean, baldin morphina dela erran ba diezogu, minak khentzen derautza?

Hunelakoa zen Azkue soinez. Spirituz eta bere gehidez gizon maithagarria eta ederresgarria zen. Nehor ere ez zen bere etsaia, behintzat Azkuetarrak nehor ere bere etsaitzat ez zedukan. Bere adiskideak gizarteko edozein mailatan zegozen. Eskekoak eta txiroak ezagutu ukhan zituen; batez ere Baztango Asyletxe batetan ezagutu ukhan zuen atso egotheaz, gogakariz gomutaratzen zuen. Atso hunek, gure herriko ethnographoak izkiria lezan dantza bat kantatu eta dantzatu zeraukon.

Bertze buruan, Lekeition egon k.u.k. sendiaren adiskidea izanik zen. Austriako «kaiserliche und königliche» familiaren konfessore izan zen eta ameslari ta pretendente hauien minak gozatu ta tipitu zituen bere kontseiluez. Hunela bere experientziak, bere atynak gisa askotan bildu zituzkeen eta gizon human bat bilhakatu zen. Guztientzat, aburu guztietarako tolerantzia erakhusten zuen eta gizonak kanpoko aspektua baino gehiago direla bai ba zekien.

Azkueren lagun minetan Bizkaiko industriko ta nabigazioneko kapitain ezagutuena zegoen, bizkaitar figura aiphagarri haur, guztiok ba dakizue nor zen: Sir Sotako Erraimun. Azkue haren kapelana izan zen, eta armatore huni bere cancioneroa dedikatu zeraukon. Iaun hunen nahiaren araura, Algortako hauzo batetan iraiki zuen txaleten egoitza «Neguri» izenaz baptizatu zuen. Beraz, haur dakigunok Plentzirako burdinbidean izen hau daraman gelthokian geldi gaitezenean, gogora dezagun izen huntaz Azkue iaunaren orhoitzapena elkharturik dagoela. Dirudinez Azkuek eman zituen izenak paradoxaren eskumendean erori dira. *Neguri* izenak dioskunez, koloni hau, neguan Bizkaiko sendi batzuek hor beren egoitzak eduk ditzaten eginik zen, bainan *Negu-uri* izan beharrean, *uda-uri* bilhakatu da. Haur iakin ba leza, Azkuetarrak dudarik gabe *Udauri* izenezta zezaken. Bertze izen askozaz pradoxikoagoa ere *Iolaseta* izena da. Azkuek ere hunela izeneztatu zuen. Gure aphezaren nahia, thoki huntan gazteak iolas ditezen izan zela dirudi, bainan psykhologo tzarra zen, kanpoko iolasketaz beren buru iolastu behar dutenek, ezein iolasketa hartzen ez dutela ez bait zekien, ez othe legoke

ongi hunelako lekhuaren bat *Asperreta* izenaz deitzea edo-ta *Gorhaineta* ere bai?

Azkue iauna orain hibaieko erorte bat de la ta hil zaiku, bere haurzaroan bertze dzangadaren bidez ere hiltzer egonik zen. Bere herriko lagunak baino gutiago ez izaitearren uretara iautzi zen, bainan arraintzaleen semeak bezain ongi igeritan ez bait zekien busti ta ikaratu athera zuten eta etxerat eraman. Etxeratuaz geroz bethi orhoitzen zen orduan hartu astinaldiaz.

Jaun eta andreok, orain neure evokazionearen burura heldu naiz, Azkue iauna saindu bat bezala hil zen. 9/garren hartan hil zenean nenkhusalarik, bizitza huntan gure egin-beharra bethe dugunean, zein errezki hil gaitezkela pentsatu nuen. Neure evokazione haur entzun duzuen euskaldun maitheok onhar dezagun guztiok Azkuek bere bizitzaren goiburutzat onhartu zituen elheak: «ekhin eta iarraik», gure egin-beharra bethe dezagun.

IKUSPEGIAK

(I)

Francisko Aranzabal Lamarain

ongi hunelako lekhuaren bat *Asperreta* izenaz deitzea edo-ta *Gorhaineta* ere bai?

Azkue iauna orain hibaieko erorte bat de la ta hil zaiku, bere haurzaroan bertze dzangadaren bidez ere hiltzer egonik zen. Bere herriko lagunak baino gutiago ez izaitearren uretara iautzi zen, bainan arraintzaleen seineak bezain ongi igeritan ez bait zekien busti ta ikaratu athera zuten eta etxerat eraman. Etxeratuaz geroz bethi orhoitzen zen orduan hartu astinaldiaz.

Jaun eta andreok, orain neure evokazionearen burura heldu naiz, Azkue iauna saindu bat bezala hil zen. 9/garren hartan hil zenean [illegible] kuntan gure egin-beharra bethe dugunaz, [illegible] gaitezkela pentsatu nuen. Neure evokazione haur entzun duzuen euskaldun maitheok onhar dezagun guztiok Azkuek bere bizitzaren goiburutzat onhartu zituen elheak: «ekhin eta iarraik», gure egin-beharra bethe dezagun.

HITZ AURREA

Irakurle adiskideok: *Hona hemen geure oparitxo hau. Pentsatzen dugu azpimarratu behar dirala Kultur alde batzuk eragintza berezia ohituretan dutelako. Idei ta irudiak dira ohituretan aldatzen diran haziak; zelako haziak halako fruituak.*

Horretxegaitik behar dugu lehenbait lehen idei nagusiekin ehundutako azpi-egitura egokia. Idei eta irudiak heuren modura moldatzen gaituztelarik.

Idei nagusi hoien eredutzat jarri daitezke:

a) Izadia bere legekin. Izadiko liburua, aurkitze ta asmaketen giltza. Izadi hau hobeagotzea, ez kentzea eta alderatzea begien aurretik.

b) Norbere erabakia *(autodeterminazioa) beren ertz eta mugekin, gizakia ez ezik baita gizartea ere salba eta iraun daitezen.*

c) Hirugarrenez jarri dezakegu ohituretarako Adleren ikuspegi *hau: gizakia beren lanetan teknikakin;* gizartea *bere alkartasunarekin; ta* gizadia *bere irauteakin bizitz ta umehen bidez.*

d) Ondoren ipini dezakegu edertasuna: *dagoela dagoenian, datorrela datorrenetik, dijoala dijoanera.*

e) Ahastu gabe emakumearen irudia, *gogoratu gaitezen erdizko makalak gerala andra-gizonok eta gizadiaren zerbitzuan gaudela.*

EGILEAK

Irakurle adiskidеok: Hona hemen geure oparritxo hau. Pentsatzen dugu azpimarratu behar dirala Kultur alde batzuk erginka bereziа ohituretan dutelako. Ideі ta irudiak dira ohituretan oinarrizkoen dirau hauek: zeinko hauek hauek fruitzuak.

Horretxegatik behar dugu jakinbidez jakin ideі nagusiekin ebaluatuko azpi-egitura egokia. Ideі eta irudiak hauen modura moldatzen gaituztelarik.

Ideі nagusi hoien ereduzkoak jarri ditzegu:

a) Izadia bere legeekin. Izadiko liburua, aurkitze ta ezagutzen gaitza. Izadi hau hobetzeko, ez kentzea eta aldarazteo beharrean gaitza.

b) Norbere erabakia (autodeterminazioa) beren erri eta munduekin, gizadia ez osik baita gizartea ere asiko eta irauno dutezen.

c) Hizkuntzarenez jarri dezakegu ohiturarako Adiskidetasuna hoi hau: gizadia beren inguruan tabuakin; gizartea bere alkartzeunarekin; ta gizadia bere irudiekin bizitz ta umoreen bidez.

d) Ondoren tipiki dezakegu edertasuna: dagoela dagoenean, datorrela datorrenetik, dijoala dijoanera.

e) Ahazta gabe emakumearen irudia, gogoratu gaitzean erdizko mailakoa gerala andre-gizonok eta gizadiaren zerbitzuan gureala.

1 IKUSPEGIA. IZADIA

AURKÍBIDEA

IZADIA

1 a) Gure etxea eta norabidea.
1,2 b) Legeak.
2 c) Aurkikuntzat eta asmakuntzak.
3 d) Aurkikuntzak eta asmakuntzak.
4 e) Izadiko liburua.

ZENTZUGARRIAK

5 Azalpenak. Zentzumenak. Sentzazioen sorkera eta objetibitatea.

KONKRETUAK EDO SARETUAK

6 Definizioak- Bilbea eta gaia, eta hauek konkretuari ekartzen dizkioten berezitasunak.

7 Bilbeak eta gaiak konkretuari ekartzen dizkioten berezitasunen azalpenak.

ABSTRAKTOAK

8 a) Azalpenak. Abstraktoen mundua. Bere garrantzia.
8' b) Abstrakto eta izen arruntei buruzko taulak.
9 c) Abstraktoen garrantzi eta zertarakoak.

ARRAZOIZKO EPAIKETAK

10 a) Azalpenak. Motak.
11 b) Arrazoizko epaiketei buruzko taulak.

IZADIA

Izadia gorputzen munduari deitzen diogu, gizadiari asmoen mundua deitzen diogun bezala.

Egunero sumatzen ditugun *zentzugarriek* (konkretu edo, saretuak deitutakoek) osatzen dute izadia.

«Bere barnean ematen diren prozesuak, guztiz eta ezin hobeki erlazionaturik daude».

Izadia, gure etxea. Izadian jaio gara, izadian bizi eta bertan geratuko gara. Izadikoak gara eta urduri egongo da gure bihotza berarekin bat egin arte.

Izadia, norabidea. Izaditik irtetzea, izan liteke, segun nola hartu eta nola egiten den, edo salbamena, bide zuzenez eta jakinaren gainean eginez gero, edo beldurgarrizko noraezean jaustea, honela egiten ez bada. Noraezean eroriz gero, neurastenia, sikastenia eta arimari dagozkion bestelako gaisotasunak ere agertzen dira.

Izadiaz berjabetzean, ordea, sustraitik kentzen dira, arimaren ahultasun eta gaisotasun horiek. Izadia begien aurretik kentzea, noraezeko egoeran eta psike-ahultasunetan erortzea bada, izadia berreskuratzean, aldiz, egoera hori gainditu eta psike-gaisotasunak sendatu egingo dira.

Izadiaren lege eta arauak.

Miragarriak dira izadiko legeak, fenomeno guztiak neurtu eta argitara ateratzen dituztenak.

A) *Natur legea.*

Izadi osoa arautu, gure jokabidearen oinariak jarri eta gure pausoak gidatzen dituena.

B) *Grabitate-indarreko legea.*

Gorputzen erorketak neurtu eta gorputz horiek lurrari erantsirik egotera behartzen dituena.

C) *Grabitazio unibertsaleko legea.*

Izar batzuk besteen inguruan darabiltzana. Eguzki eta ilargiak gure lurrarekin eta itsasoko gora-beherekin duten zer ikusia ondo ezaguterazten diguna.

D) *Gorputzen harrotasun legea.*

Hain beharrekoa dena lurgintzan, egurgintzan, burdingintzan eta itsasontzigintzan.

AURKIKUNTZA ETA ASMAKUNTZAK

Lege eta arauen ondoren datoz aurkikuntza eta asmakuntzak. Asmakuntza garaiaren hasieran egindako bospasei aurkikuntzek mesede gehiago egin diote gizadiaren ongizateari, orain arte izandako guda eta imperio guztiek baino.

Ikertzaile eta asmatzaileei zor zaien begirunezko lekua.

Ikerketa eta asmaketa lanean aspaldiko garaietatik ahalegindu direnek ohorezko eta begirunezko lekua lortu dute gure artean. Baita gizartearen eskerrona ere, berari eskuratu dioten ongizate eta aurrerapenagatik.

Era berean, eredu eta ispilutzat hartu dituzte, haien aztarnei jarraituz, beren herria atzeturik eta zorretan gera ez dadin ahalegintzen diren guztiek.

Gizadiak barkatu egingo dio «Berek asma dezatela» esan zuenari. Gu, behintzat, saiatuko gara ikertzaileari berari aurrea hartzen, ezer asmatzeko gai izango ez bagara ere, agian.

AURKIKUNTZA ETA ASMAKUNTZAK

A) *Gurpila,* gorputz astunen garraioa arindu eta errezten duena.

B) *Sua,* bizitzaren inguruetatik hotza aldentzen duena

C) *Papera eta imprenta,* liburuak merketu eta kultura aberastu eta zabaldu egiten dutenak.

D) *Su-hautsa,* berari esker, gudak, artifiziozko suak, harrobiak eta metalgintza burutzen ahal direlarik.

E) *Iparorratza,* Begi mekanikoa. Lurreko alde ezezagunak eta norabidea aisa aurkitzeko tresnarik egokiena.

F) *Pasteur-en txertoa,* hainbeste eta hainbeste gaisotasunei aurre ahartzen diena.

G) *Penizilina,* gaisotasunak sendatu eta berauen sortzaileak diren mikro-organismoak hiltzen dituena.

eta abar.

IZADIKO LIBURUA

Orain dela larehun urte gutxi gorabehera Francisco Bacon ingelesak liburu deitu zion izadiari: izadiko liburua.

Gizonek idatzitako libururik gehienak besteen liburuetatik ateratakoak dira. Gainera hutsez josita koak izaten dira, edo astunegiak, edo arinegiak edo subjetibismoz beteak, edo ulergaitzak atzerriko hizkuntz batean idatzita badaude.

Izadiko liburua, aldiz, denen hizkuntzan idatzirik dago. Ez da subjetiboa, norberaren ikuspuntukoa, objetibitate berbera baizik. Ez du akatsik ezta hutsunerik ere. Agortu ezina da.

Izadiko altxorra.

Izadiko liburua itsuen aurrean jarritako altxor agortu ezina da, aurkikuntzaz eta asmakuntzaz beterik dagoena.

Izadiko liburuaren edukina.

Liburu hau ondo irakurtzen eta ulertzen ikasi dutenentzat, bere orrietatik bakoitza asmakuntza bat da; kapitulu bakoitza izadiko lege bat, eta atal bakoitza ogibide baterako araudia.

Beraz, *Francisco Bacon*-ek lekurik garaiena lortu du jakintzaren historian. Bere helburu bakarra, natura errotik ezagutu eta gizartearen serbitzutan jartzea izan zen, horrela haren nekeak arindu eta bizitza-baldintzak hobeagotzeko.

ZENTZUNGARRIAK

Zentzugarriak dira, zentzumenen bidez antzeman daitezkeen izadiko zenbait osagai: paisajea, margoa, hotsa, gorputza, hotza, lorea,...

Zentzumenak. Zentzumenak, denok dakigunez, hauetxek dira: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena eta ukimena.

Zentzumenen ariketa edo egintzari sentzazio edo zentziñarkuna deitzen zaio. Sentzazioan ez da izadia aldatuta geratzen dena, geure zentzuak baizik.

Zentz-iñarkunaren objetibitatea

Badago zerbait izadian kolorea sortarazten duena. Bainakolorea, guk ikusten dugun bezela, bederen, ez dago gizadian, gure begietan baizik.

Nola egiten da zentzumenen bidezko ezagupena.

Zentzumenek badituzte izadian lankide edo bitarteko batzuk. Lankide horiei eragileak deitzen zaie eta honako hauetxek dituzu: argia ikusmenean; haize-boladatxoak entzumenean; presioa ukimenean; hauts antzeko zatitxo usaidunak usaimenean; dasta-partikulak dastamenean.

Eragile hauek zentzuetara heltzen direnean, zentzua jo eta aldatuta geratzen da. Ukitze edo aldatze horretan datza zentzuen egintza, baina izadia ukitzeke, aldatzeke geratzen da.

KONKRETUAK, SARETUAK

Konkretu edo saretuak deitzen zaie egunero topatzen ditugun izaki zentzugarri bakarrei: ogia, mendia, aizkora.

Esan genezake konkretuak saretuak direla; saretu hauek bi osagai dituzte:

1 sare edo bilbea

2 gaia

1. *Bilbeak,* sareak, armazoiak, burdinsareak gaia batu, lotu, estekatu, bilbatu behar dute. Bilbe edo armazoia esennahiaren atal berezien sarea da. «Gizon» adibidean arrazoiak eta bizitzak osatzen dute sarea, horrela gizona arrazoidun biziduna dela esan ahal delarik.

Esannahiaren sare edo bilbeak ematen dio konkretuari bere ulergarritasuna,

bere izengarritasuna,
bere orokortasuna,
eta bere behartasuna.

2. *Gaia,* bere aldetik, konkretuaren atal ez espezifikoen nahasketa da. Kant-en hitzetan, «sentzazioen nahasketa». «Gizon» adibidean, Carlos, gazte, lodi, afrikarra izango da. Zertzelada horiek dira sareaz eta esannahiaz batu, lotu eta bilbatu behar direnak.

Gaiak ematen dio konkretuari *berritasuna, ezagupen berri bat izatea.*

ESANNAHIAREN ETA BILBEAREN BEREZITASUNAK

Esannahiaren sareak konkretuari ematen dizkion berezitasunak.

a) *Ulergarritasuna,* esan nahi baita konkretu hau (gizakia) bere esannahiaren atal bereziei esker *(arrazoia, bizitza)* ezagutu daitekeela.

b) *Izengarritasuna,* esan nahi baita konkretu honek baduela gaitasuna bere kideko guztientzat baliagarri den izen arrunta hartzeko. Adibidez, *gizona,* gizakia.

c) *Orokortasuna,* esan nahi baita gizakia beti, noiznahi eta nonnahi arrazoizko biziduna izango dela.

d) *Behartasuna,* hau da: gizakia halabeharrez da arrazoizko bizidun eta ez dauka bestelakorik izaterik.

Konkretuen izaera eta egoera.

Abereak konkretuei lotuta daude. Bakarreko zentzugarriak ezagutzen dituzte soilik. Ez dute beste mundurik. Ez dute ezagutzen orokorra, unibertsala. Ezin dira igo hizkuntza eta kultur-munduraino.

Ez dute hizkuntzarik ezta elkar-hizketarik ere. Hizkuntza gabeko mutuak dira. Zorioneko mutuak, hizkuntza gaiztoa, gorrotozkoa, gezurti eta zanpatzailea denean. Zoritxarreko mutuak, hizkuntza ona, egiazkoa eta maitasunaren eragile eta sustatzailea denean.

ABSTRAKTOAK

Abstraktoak, bere esannahiez, ateratakoa esan nahi du. Baina, zeinek, zer, nondik, nola eta zertarako dira ateratakoak?

Zeinek? Zein da abstraktoak ateratzen duena? Arrazoia da abstraktoak ateratzen dituena.

Zer? Eta zer da arrazoiak ateratzen duena? Esannahiaren atal berezien sarea edo bilbea ateratzen du. «Gizon» adibidean, bizitza eta arrazoia. Arrazoizko biziduna.

Nondik? Arrazoiak nondik ateratzen ditu abstraktoak? Konkretuetatik ateratzen ditu, abstrakto horiek izanik, hain zuzen, konkretuaren atal berezien bilbe edo sarea.

Nola? Arrazoiak nola ateratzen ditu abstraktoak? Arrazoiak azpimarratu egiten ditu (irudiz, noski) konkretu baten esannahiaren atalik berezienak. Ondoren azpimarratutakoak bakarrik hartzen ditu kontutan; honela, esan liteke azpimarratu horiek konkretuetatik ateratako abstraktoak direla.

Abstraktoen mundua. Abstraktoak arrazoiaren asmakizunak direlarik, garbi dago beren bizilekua ez dela izadia, geure gogoa baizik. Inork ez du ikusi abstraktorik izadian. Izadian beren bizilekua dutenak konkretu bakarrezkoak dira bakarrik.

Abstraktoen garrantzia.

Gizakiek bakarrik dutena azpimarratu behar du arrazoiak: arrazoia eta bizitza.

HIZKUNTZAREN ERAKETA

IDEIA ABSTRAKTO ETA IZEN ARRUNTEN ERAKETA

MIKEL	MIKEL	MIKEL	MIKEL	MIKEL
ZENTZUGARRIA	*SENTZAZIOEN NAHASKETA*	*AZPIMARRATUA*	*ABSTRAKTOA*	*IZEN ARRUNTA*
KONKRETUA SARETUA BILBATUA ZENTUGARRIA	IZAKI ZURI, LODI, ARRAZOI, ARIN, GAZTE, BIZI, OÑATIAR, MOTZ	IZAKI ZURI, LODI, *ARRAZOI*, ARIN, GAZTE, *BIZI*, OÑATIAR, MOTZ	ARRAZOIZKO BIZIDUNA	GIZAKIA
ZENTZUGARRIA IKUSTEN UKITZEN ENTZUTEN DENA *ULERTU EZINA* *BADAKIGU BADELA, BAINA EZ ZER DEN.*	*GAIA* LOTU ETA SARETU BEHAR DENA: NAHASKETA *«SENTZAZIOEN NAHASKETA»* IZEN BEREZIA *ULERGAIZTASUNA BADAKIGU BADELA, BAINA EZ ZER DEN.*	*AZPIMARRAK* *BILBE, TRAMA,* SARE, ARMAZOI, BURDINSARE, *GAIA LOTZEN ETA BILTZEN DUENA.* GIZAKI GUZTIEK, GIZAKI BAKARRIK DUTENA. BILDE EDO SARETIK DATORREN *ULERGARRITASUNA* BADAKIGU BADELA, BAITA ZER DEN ERE.	*MIKEL EGITE ABSTRAKTOA; ATERATAKOA.* BILBE EDO SARETIK DATORREN ULERGARRITASUNA-AZPIMARRATUZ ETA ALDE BATERA UTZIZ. BESTEAK ORAIN BADAKIGU ZER DEN ETA BERATAZ HITZEGIN DEZAKEGU.	*IZEN ARRUNTA* KLASE EDO MOTA BATEKO IZAKI GUZTIEI EMAN DAKIEKENA *MIKEL GIZON EGINA* *IZENGARRITASUNA* IZAKI BATEN GAITASUNA, IZEN ARRUNTA HARTZEKO. ORAIN HITZEGIN DEZAKEGU MIKELI BURUZ.

Adibide honen arabera beste guztiak: mendia, hegaztia, itsaso...

ABSTRAKTOEN GARRANTZIA

Abereak konkretu singularrei lotuta daude. Ez dute gaitasunik abstraktoetara igotzeko. Ez dute unibertsala ezagutzen. Ez dute hizkuntzarik, abstraktorik gabe ez bait dago hizkuntzarik. Arrazoidunen artean ere gizaki gehiegi dira konkretuetatik irtetzen ez dakitenak, erreztasunik, lasaitasunik ez dutenak abstraktoen artean errez, lasai, familiarki ibiltzeko, ura sarearen begietatik zehar dabilen moduan.

Abstraktorik gabe, ez genuke hizkuntzarik ezta hizketarik ere izango, eta abereen eran, hizkuntza gabeko mutuak izango ginateke. Zorioneko mutuak, hizkuntza gezurti eta ondatzailea izanez gero, eta zoritxarrekoak, hizkuntza egiati, adiskidetzaile eta maitasunezkoa izatekotan.

ZERTARAKO DIREN ABSTRAKTOAK

Hizkuntzak, arrazoi-apaiketen sareaz osatzen direnez gero, eta arrazoi-epaiketak, abstraktoen eta berauei dagozkien izenen arteko lokarriak direlarik, argi eta garbi dago abstrakko horiek (sujetoa eta sujetoaz esaten dena) hizkuntzaren parte direla.

ARRAZOI-EPAIKETAK

Esan liteke arrazoi-epaiketek hizkuntzaren sarea osatzen dutela.

Arrazoi-epaiketan hartzen dute parte:

a) *Sujetoa,* pertsona edo gauza zeinari buruz zerbait esaten bait da. Esanen euslea.

b) *Predikadoa,* sujetoari buruz esaten dena. Esanen euslegain esana.

ARRAZOI-EPAIKETEN AZALPENA

1. *Baiezko arrazoi-epaiketak:* esan nahi dute sujetoa esaten denaren partaidea dela. Adibidez: gizakia biziduna da, bizidunen partea.

2. *Ezezko arrazoi-epaiketak:* esan nahi dute sujetoa ez dela esaten denaren partaidea. Adibidez: gezurtiak ez dira gizartekoiak.

3. *Arrazoi-epaiketa erdikoak:* batera baiezko eta ezezkoak direnak, esan nahi dute sujetoaren zati bat esaten denaren partaidea dela eta bestea ez. Adibidez: gizaki batzuk zuriak dira eta beste batzuk, ez.

ARRAZOI-EPIKETAK

ARRAZOI-EPAIKETA: sujetoari buruz zerbait baieztu edo ezezten duen gogoegintza.

SUJETOA: gauza edo pertsona, zeinari buruz zerbait baieztu edo ezezten baita.

PREDIKADOA: sujetoari buruz baieztu edo ezezten dena.

BAIEZKO EPAIKETAK

Gizakiak bizidunak dira.

Sujetoa esaten denaren partaidea da.

EZEZKO EPAIKETAK



Gezurtiak ez dira gizartekoiak.

Sujetoa ez da esaten denaren partaidea.

ERDIKO EPAIKETAK



Gizon batzuk zuriak dira, baina beste batzuk ez.

Sujetoaren zati bat esaten denaren partaidea da, bestea ez.

AURKIBÍDEA

PSIKASTENIA

1 a) Adierak ta azalpenak.

2 b) Igarotzen dan aukeria.
Sikasteniaren sustrai ta ondamena.

3 c) Ezaugarriak.
4 Ezaugarriak.

5,6 d) Asierak — itxura ta izatea.

6 e) Sendagintza.

7 f) Sentipen ta minkunkeria.
Norberaren sort-erastia.
Kiriotsuak.

8,9 *Malko beroak.*

10,11 *Eldutasuna.*

OLERKIAK

12 «Maite dezagun, behintzat» (Amado Nervo)
«Lertu adi» (Amado Nervo)

13 «Neure igarotako osotik» (Amado Nervo)

Izenak berak adieratzen duenez, psikasteniak esan nahi du *arimaren ahultasuna,* moteltasuna, zorroztasunik eza.

Baina sarritan, arima hitzez, ulermenaren indarra ulertzen dugu. A d b: sumaezinen ulerkuntza, zentzugarrizkoen mendetik itetzea, konkretuetatik abstraktoetara igotzea. Hitz batez, arima hitzez gizonaren ulermen edo adimen berezia ulertzen dugu.

Hori horrela izanik, *psikastenia adimenaren zorroztasunik eza izango da.* Adimenak ezin ditu ikusi, ulertu sumaezinak, egintza baten egokitasuna, erantzun baten abagunea.

Baina hobeto esateko, psikastenia ez da, zehatzak izan nahiz gero, adimenaren ahultasuna, nortasun osoaren moteltasuna baizik. Intuizioak sumatu egiten du egin behar litzatekeena, baina susmaketa hori izar loka baten antzekoa da; agertu eta izkutatu egiten da inolako onurarik ekarri gabe.

Adimenak aukera ikusten du, baina ikusi ez balu bezala da. Ulermenak ez du aukera harrapatzen; dena gelditzen da alferrezko ezerezean. Aukera hutsean geratzen da.

Izar loka eta dardarti hori, izar tinko eta argitsu bihurtu behar da.

Aukera harrapatzea.

«Pentsatzen den baino sarriagotan etortzen dira aukerak, baina irudimena, lozorroan dagoela, ez du ezer ikusten. Egon bedi zuen irudimena erne eta adi eta horrela ipiniko dituzue oinak patuaren gurpilaren lekurik gorenean».

Non dago, bada, gure arazoaren sustrai eta muina?

Psikasteniaren sustraiak.

Psikastenia, arima-ahultasuna, ez da bakarrik ulermenaren ahultasuna, baizik eta izate osoaren, nortasun osoaren gaisotasuna.

Ez dugu federik geure buruarengan. Ohituta gaude besteei obeditzen, ez geure ikuspuntua zaintzen. Gaisotasun hau daukatenek ez dute ikasi, ez diete irakatsi norberabakia jaiotza dela, eta iniziatiba galtzea, aldiz, heriotza. Ez dute fede izpirik ere beren buruarengan. Eta holaxe, ikusten dituzte ate guziak itxita, galtzen dute bizigura eta errotzen dira etsipenean.

HONDAMENA

Edozeinen esana, nolakoa edo halakoa, hobea da beren ikuspuntua baino. Noraezean galduta dabilanaren antzera, edozein hots, zarata edo mugimenduri jarraitzen diote.

Ez dute nortasunik, ez dute ikasi beren buruz erabakitzen, inguruan daukatena beren ikuspuntupean jartzen.

Erabilerrezak dira, besteren eskuek darabiltzata harat-honat, makila edo gorpu baten gisan.

Besteei jarraitzeko joera dutelarik, ez dira haiek gidatzeko gai. Besteak gidatzeko gaitasunik ez eta gidatuak izateko beharra dute. Umetxo baten moduan, ezin dute aurrera pauso bat ere egin. Bizigura etsipenean galduta, ate guztiak itxita dakuzte.

PSIKASTENIAREN AZTARNAK EDO SEINALEAK

1. *Herabetasuna.* Atzeraka doan gizon eskas beldurtiaren antz-itxura ematen dute, nahiz eta, egiaz eta izatez horrelakoak ez izan, oso bestelakoak baizik.

Gizaki hauek gizon peto-petoak izaten dira sarri askotan, baina noraezean galduta daudelarik ez dira emakumetara hurbildu ahal izateko behar den gaitasunaren jabe.

2. Ez dakite erantzunak garaiz eta modu egoki batez ematen.

3. Ekintza psikikoa aurreratu ahal izateko ahultasun eta gutxiagotasuna sentitzen dute.

4. Moral-betetasunik eza.

5. Errealitateko munduarekin harremanak galdu dituzte.

6. Besteei jarraitzeko joera eta besteak gidatzeko gaitasunik eza.

7. Ez dute emakumeekin harremanetan sartzeko behar den gutxieneko samurasun eta eztitasuna, zeinak bide ematen bait du haiengana hurbiltzeko gorputzez ezezik arimaz ere.

8. Beren buruarekiko federik eta segurtasunik eza. Beren ikuspuntuari eutsi ezina.

9. Iritzi etsikorra dute beren buruaz, ezertarako gaitasuniz ez dutela pentsatuaz.

10. Ekintzarako beldurra.

11. Egindakoari buruzko hasetasunik eza eta nahigabea, egindako hori ezin hobea bada ere.

12. Gutxiagotasunaren kontzientzia edo barne-ezaguera, zirrara batetik eta denen aurrean barregarri geratzen delako ustetik datorrena.

13. Beren adimenaren gutxiespen edo estimazio eskasa, bikain bikaina izan arren adimen hori.

14. Errealitateaz ohartzeko gaitasunik eza.

GAISOTASUNAREN HASIERA ETA SUSTRAIAK ITXURA ETA IZATEA

Badira gizon batzuk, itxuraz zeharo normalak izan arren, izatez noraezeko kolokan eta zalantzan bizi direnak. Agirian, behintzat, ez dute inolako gaisotasunik, eta bizimodu inbidigarria egiten dute. Osasunez eta diruz inor baino hobeto dabiltzala ematen du. Hitz batean, badirudi gizartean egoera eroso eta gutxik bezalako bizimodua dutela. (Jagot).

BEGIRA BAINA...

Aurren eroraldia, eta gero tristura eta goibeltasuna agertzen dira gizaki hauen baitan beren bizitza patxaroso hori dela bide, hain zuzen.

«Haruntz-honuntz bizi izan dira norabide zehatzik gabe, helburu jakinik gabe, ezertan ere arreta berezirik jartzeke».

Beren buruz jokatu beharrean, kontra egiteari ekin diote. Geldi egonean ahuleriak jota, utzi egin diete inguruko huskeriei eta beste gizonek egindako zirikaldiei, beren egintza eta ideiak gidatzen eta erabakitzen. Kulunka ibili dira lema tinkorik gabe eta horretxek azaltzen eta argitzen du den-dena. (P. Jagot).

Zeren, funtsezko eta nahitanahiezko baldintza bait da psikiko-lanerako, bizitzan ondo jarritako helburu edo xede batzuk izatea, hauek burmuinaren lana eta hunkipenak finkatu, tinkotu eta batera ditzaten, eta ulermen eta sentipenen iharduera biziagotu dezaten.

Horiek faltaz gero nortasuna ahuldu, urtu eta desegiten da. Helburu horiek behar beharrezkoak dira *borroka-ahal* guztiak, borroka-indar guztiak biziagotu eta aurrera aterako badira.

Bizitza borroka da edo ez da bizitza.

Borroka ekintza da edo ez da borroka egokia.

Borroka zer edo zer lortzeko ahalegina da, geldotasunean eta pasibitatean eror ez gaitezen.

PSIKASTENIAREN SENDABIDEA

Izaditik ateratzea, izan liteke, segun nola hartu eta nola egiten den, edo salbamena, bide zuzenetik eta jakinaren gainean eginez gero, edo beldurgarrizko noraezean erortzea, horrela egiten ez ba da.

Izaditik irtetzea noraezean erortzea baldin bada, izadira berriz itzultzean norabidea aurkitzeko lehen pausoa emango dugo. Noraezetik baldin badator norberarengan fedea galtzea, fede hau berreskuratzea izango da gure salbamena. Ezerezak, geldi egoteak, pasabitate eta ezertarako ardura ezak erortzera eta etsipenera bultzatu bagaituzte, ekintzaren bidez lortuko ditugu galdutako fede eta bakea.

Arazo honetan kontutan hartzekoak. Sentipena eta minberekeria.

Sentipena edo bihotz mina da benetako sentipena, funtsezkoa, giza-izaerari dagokiona, eraginkorra.

Minberakeria, aldiz, funtsik gabekoa da, umeen nahikeriak bezain iragankorra, ezerezean urtu eta desegiten dena. Sentipena bertutea da, eta menberakeria akatsa.

Nork bere buruaren sortzaile eta sendagile.

Norbera da norberaren egile, norberaren sendagilerik onena, etsaiak hobekien ezagutu eta zapal ditzakeena. Nork bere buruaren arduradun eta erantzule bakarra da. Bakoitza da bere gurdiaren zaintzaile. Bakoitzak behar ditu bere borroka-ahalak eta borroka-indarrak neurtu eta sustatu.

Psikastenian kontutan hartzekoak.

Nerbioso denarentzat jarrera erreflexiboa askoz hobea dirudi, berezko jarrera baino.

Nerbiosoa, kitzikaduratik eroraldira eta eroralditik kitzikadurara ibiltzen da.

Nerbiosoak bere burua zaindu behar du, ihes egin behar die urduritasun eta kitzikadura egoerei.

MALKO BEROAK

Atsegin zaigu malkoen garratzak sortarazten digun sentipena.

«Jangoikoak nahi badu ni urrun jotea, ama, zertarako da negar egitea?».

«Zergatik negar egin? Izarra zeruan dago itsaso aldetik».

Ez dut gizakiari dagokion deusik pentsatzen nirekin zer ikusirik ez duenik. (Séneca).

Kaixo bat izan zen infernua eta agur bat zerua.

Bizitza baliotsu bati begirunerik izan nahi ez diotenei, bizitza, barka iezaiezu.

Gorroto hutsez zikintzen dutenei, bizitza, barka egiezu.

Morala ezik dena galdu dela ikasi dudalako, eskerrak zuri, bizitza.

Beren nortasuna bakarrik eta itsuan bilatu nahi izan dutenei, bizitza, barka egiezu.

Zure bila nenbilela, arriskuetan eta galtzorian erori naizelako, bizitza, barka egidazu.

Nire ongileei eskerrak behar den moduan eman ez dizkiedalako, bizitza, barkatu.

Linzunkerien bila abiatu direnei, bizitza, barka egiezu.

Beldurrari neure buruaz jabetzen utzi diodalako, bizitza, barka egidazu.

Norberabakia gidaritzat hartu ez dutenei, bizitza, barkatu.

Zuk eskeinitako eskua behar bezala eskertu ez dudalako, bizitza, barka iezadazu.

Zugandik, ero baten antzera aldendu direnei, bizitza, barkatu.

Neure burua inoren eskuetan utzi dudalako, bizitza, barka egidazu.

Edertasunetik eta bizitza-maila on batetik aldendurik bizi naizelako, bizitza, barkatu.

Arrazoirik gabe gorrotatzen dutenei, bizitza, barka egiezu.

Bizitza-zuhaitzaren bila hil zorian jarri direnei, bizitza, barkatu.

Lotsa eta beldurtasunean erori diren gizonei, bizitza, barkatu.

Emakumearen ardura gabe ibili direnei, bizitza, barkatu.

Tristura eta etsipenean erortzeko, zoritxar edo ezbeharren bat nahikoa zela pentsatu dudalako, bizitza, barka iezadazu.

Jendeak zer esango ibili naizelako, bizitza barka iezadazu.

HELDUTASUNA-BETETASUNA

1. Udaberria etorri da, inork jakin ez arren nola.

2. Heldutasuna ere iritsi da eta oraingoan ere inork ez daki nola.

3. Etorri da, bada, heldutasuna, bere garaian etorri ere, nahiz eta batzuentzat beranduegi etorria izan.

4. Heldutasuna iritsi da eta hutsueneak bete dira.

5. Lehenagoko noraeza helburu bihurtu da orain.

6. Iluna argitu egin da eta noraeza bideratu.

7. Estutasunek leku utzi diote lasaitasunari.

8. Sortu da ekintzarako gose eta egarria.

9. Edertasun-egarria daukagu. Edertasuna, dagoen lekuan dagoela, datorren lekutik datorrela, doan lekura doalarik ere.

10. Sortu da, ezer egin gabe egonean eta pasibitatean egoteko ezina.

11. Eboluzioak zor zitzaiona jaso du.

12. Norberabakia eta norberaren iniziatiba agintzen hasi dira.

13. Borroka-ahalek aurkitu dute beren bidea, beren jomuga.

14. Agertu da beldurretik aske dagoen betetasun-egoera baketsua.

15. Umekeriek gizontasunari leku egin diote.

16. Borrokarako indarrak sortu eta bateratu egin dira.

17. Osin hondogabeetatik gora irtenda, borroka-ahalek bere zeregina petopeto bete egin dute.

18. Ikusi dugu, ikasi dugu.

19. Izadiarekin elkartu, bateratu gara.

20. Zentzugarrizkoen, konkretu saretuen eta abstraktoen artean aisa eta erraz ibiltzen gara.

21. Norberabakia, norberaren legea ezarri da.

22. Norberabakiaren mugak eta arriskuak gogoan erabili ditugu.

23. Norberabaki hutsa, kontrol eta legerik gabekoa, arriskuz josia dago.

24. Jendearen esamesak eta irribarreak ez dira haintzat hartzekoak ere.

BIZITZA ETA MAITASUNAREN BEHARRA

MAITE DEZAGUN BEHINTZAT

Inork ez badaki
zergatik barre egiten dugun,
eta zergatik negar;
inork ez badaki
zergatik etorri ginen
eta zergatik joaten garen;
mugitzen bagara
ilunezko itsasoan;
dena bada inguruan
gaua eta izkutua,
maite dezagun beintzat,
alferrik ez da izango agian.

Amadeo Nervo

LEHER HADI

Lehertzen dira lore eta kabia
nire ortuko adarretan;
maitea! ez nengoen hila,
lotan bakarrikan.

Zu zara azken gabeko zora-
[mena!
bizitz eta borroka-dehadarra,
kimuari esaten diozuna:
leher hadi!
eta bihotzari, berbiztu!

Amadeo Nervo

Bizitza: sortu den izakiaren baitan bertan geratutako txingar edo dirdira.

Bi izaki mota: besteek mugitzen dituztenak eta beren buruz mugitzen direnak.

NEURE IRAGANALDI OSOTIK

Neure iraganaldi osotik;
neure ilunaldi ugarietatik,
neure poztasun guztietatik,
galdu dudan hainbestetik,
irabazi dudan gutxitik;
egindako barretik
eta ixuritako negarretik,
zer geratu zait?
kezka eta nahigabea,
hori bakarrik.

Zergatik hobea ez nintzen izan
maite nindutenekin?
Zergatik ez nien hainbat maitasun hainbat bero eman
nola berek eman zidaten neri?
Zergatik besteek ni gaizki hartzean
haserretu eta samindu nintzen?
Zergatik bidegabekeriaren aurrean
ez nintzen izan sandalo zuahitzaren antzeko,
zauritu duen aizkorari berari
usain gozoz ordaitzen diona?

Ene Jauna, ezin berriro bizi
nire ontzi hutsak betetzeko
jaiotzean ematen diguzun
ardo beroarekin!
Onetsi behintzat nire azken egunak,
eta nire hutsaldiak
gehiegizkoak izan badira
barkatuko al dizkidazu,
nere poztasunak hain gutxi izan direla
kontutan izanik.

Amadeo Nervo

BIZITZA ETA MAITASUNAREN GEHIARRA

MAITE DEZAGUN BEHINTZAT

Inork ez badaki
zergatik barre egiten dugun,
eta zergatik negar;
inork ez badaki
zergatik etorri ginen
eta zergatik joaten garen;
mugitzen bagara
ilunezko itsasoan;
gaua eta izkutua,
maite dezagun behintzat,
alferrik ez da izango aginn.

Amadeo Nervo

Bizitza: sortu den izakiaren bal
gar edo dirdira.

Bi izaki mota: besteek mugitzen d
ruz mugitzen direnak.

3. IKUSPEGIA. SUMAEZINAK

KULTURA ETA EKINTZA

AURKIBIDEA

SUMAEZINAK EDO PISAEZINAK

1 a) Definizioak, argibideak.
b) Irudibidea.
c) Sumaezin garantzitsuak.
2 d) Beste sumaezin batzuk eta berauek
3 ezagutzeko modua.

KULTURA

4 a) Azalpenak.
b) Balioak, beren mailak.
5,6 d) Balioez jabatzea.
6,7 e) Nolatan geureganatzen ditugu
7 balioak?
8 f) Balioztapenak.
9 *Zibilizazioa.*

EKINTZA

10 a) Garrantzia eta norabidea.
11 b) Erreztasun eta zailtasunak.
11 c) Ekintzaren arerioa: zalantza.
12 d) Moral-arazoa, gizarte-ikuspegia: Gizakia, gizartea, gizadia eta beronen arazoak.
13 e) Oituretarako ikuspidea.

SUMAEZINAK (PISAEZINAK)

Sumaezinak dira, zentzuetatik kanpo daudenak, zentzuen bidez ezagutu ezin direnak. Adibidez: egintza edo erantzun baten egokitasuna; ezkutuko asmoen agerpenak.

Irudibidea: «ba omen dira hankarik gabeko hegaztiak; beti bizi ohi dira lurretik gora. Hain goain dabiltzanez, beheko arranoak ezin ditu harrapatu, ezta ikusi ere egin. Beren hegal luze, mehe zeharargitso eta gardenetatik zehar lurra ikusten dute« Behin bakarrik lurreratzen dira: hiltzen direnean».

Eta zein dira sumaezinezko errealitate horiek?

1. Lehenengo, izadiaren lege eta arauak.

a) *Natur legea,* izadiko oinarriak jartzen dituena.

b) *Gorputzen zabalkuntzako legea,* hain beharrekoa dena lurgintzan, egurgintzan, burdingintzan... eta abar.

c) *Grabitate-indarreko legea,* gorputzak lurrari erantsirik egotera behartzen dituena.

d) *Grabitazio unibertsaleko legea,* izar batzuk besteen inguruan darabiltzana eta itsasoaren gora-beharak neurtzen dituena.

e) *Gizarteko lege particular bat.* «Gutxi hoiek; Gizarteko arazoetan zerbait ikusi, ikasi eta jakin duten gutxi hoiek. Hain burugabeko eroak izan diren gutxi hoiek, beren azterketa eta jakintzak ez ezkutatzeraino, herri kaskar baten aurretik, historian zehar beti izan dira gurutzera eramanak eta garretara bidaliak».

2. *Bigarren, izakien arteko zer ikusi edo harremanak.*

Lainotxo baten agerpena mendi gainean eta eguraldiaren aldaketa.

Osasun eta kolorearen arteko zer ikusia.

Egintza eta erantzunen egokitasuna.

Konkretuetatik abiatuta abstraktoetara igotzea.

Esanen eta izanen arteko kontrastea.

Datorren arriskua ikustea.

Kulturarako gorabide luze eta neketsua.

Ezkutuko asmoen ezagupena.

Adibidez, esaera honen asmoa: «Ohi ez bezelako festeak egiten dizkizunak edo txurikatu nahi zaitu edo behar zaitu».

Etortzen den aukera harrapatzea.

«Pentsatzen den baino sarriagotan etortzen dira aukerak. Baina irudimena, lozorroan dagoela, ez du ezer ikusten; egon bedi zuen irudimena erne eta adi eta horrela ipiniko dituzue oinak patu-gurpilaren lekurik gorenean». (P. Yagot).

Nola ezagutu sumaezinak.

Bergson-ek dioenez, abereek senaz ezagutzen dute; gizaki arrunt kalekoak, berriz, arrazoiaz, Baina gizaki bereziak, sena eta arrazoiaren nahasketa den intuizioz ezagutzen du. Intuizioa ez da justu-justu arrazoia, ez da adarrez adar, arrazoiz arrazoi, zeharkako bide luzeegi batez ondorioak atengabe atereaz doan arrazoi hori.

Ez, intuizioa edo intuiziozko ezagupena ez da arrazoia. Intuizioa ulermen berezi bat da, adimenezko begiekin ikusiaz ulertzea. Ikuspenez ezagutzea. Ezagupen zuzen eta bapatekoa da, argitasun aldi batetik datorrena bezalakoa.

Nola ezagutu sumaezinak?

Zentzuekin ez noski. Inork ez du ikusi, ezta entzun edo ukitu ere, erantzun baten egokitasuna.

Arrazoiarekin ere ez, ezagupide nekoso, geldo eta zeharkakoa baita. Sumaezinak ezagutu ahal izateko, intuiziozko adinera jo behar dugu, hori bait da, izan ere, zuzen zuzenean eta berehalaxe ezagutzeko ahalmena.

Zer da kultura? Esan liteke kultura balioez jabetzea dela. Hemen bi hitzon esannahia argitu behar dut. A) Balioak. B) Jabetzea.

A) *Balioak.* Balioak, izakiei on izaera ematen dieten berezitasunak dira. Kontrabalioak, aldiz, izakiei gaitz izaera ematen dieten berezitasunak dituzu. Adb: osasuna balio bat da, eta gaisotasuna, kontrabalioa.

Balioen mailak. Balioak mailakatuak daude, ez dira berdinak, ezberdinak baizik. Elkarrekiko menpekotasunean daude. Batzuk besteak baino baliotsuagoak dira. Bizitza-balioak baliotsuagoak dira apaingarrizkoak baino.

Bizitza-balioak honelaxe azpijarri daitezke: osasuna, ulertze-argitasuna, kemena, jakinduria, segurtasuna, edertasuna.

Zein berezitasun motari dagokio Balio deitutakoa?

Balioak izakien berezitasun objetibo eta irrealak dira, badaude baina ez dira. Izadian daude, beraz objetiboak dira, denenak dira eta aldi berean ez dira izaki berriak, ez dira norberaren ikuspuntuari dagozkionak, zerbaitetarako balio duten objetuak berak baizik.

Gugandik kanpo bizi dira, bere bizitza propioa dutela. Bizitza hori, bere baitan hartzen dituen objetuarena da, hain zuzen. Adb: dirua, gauzak eta serbitzuak erosteko balio duen zerbait da. Diruaren balio hori objetiboa da, berdina denentzat, baina aldi berean irreala da, ez dio ezer berririk eransten diruari, dirua bera da erosteko balio duena.

Balioa, diruaren berezitasun bat da, baina berezitasunak ez dira gauzak. Merkaturik ez balego, dirua urre edo zilar edo papera besterik ez litzateke izango eta ez luke ezer erosteko balioko. Baina merkatua dagoenez gero, dirua urre, zilar eta papera izateaz gainera, gauzak erosteko balio du.

B) *Balioez jabetzea.*

Balioez jabetzea hau, balioen eskuratze eta ezagupenari dagokio batez ere.

Balioak ez dira zentzuen bidez ezagutzen. Zentzuek sentimenezko kualitateak ezagutzen dituzte bakarrik. Baina sentimenezko kualitate horiek ez dira, nolagait esateko, entitate nagusiaiki, bigarren mailako izakiak baizik, izaki txikiak.

Hitz gutxitan esateko: kualitate horiek izakiak dira, izaki txikiak izanarren, baina balioak ez dira izakiak, izakien berezitasunak baizik.

Ez dira, ez da, adimenakin ulertzea, adimenak bakarrik ulertzen dituelako izakien esentziak edo izatiak, baina balioak ez dira irakiak.

Adibidez: ikuspena sortarazten duen argia edo entzutea posible egiten duten aire-uhinak. Kualitate hauek bigarren mailako entitateak izan arren, entitateak dira ta zentzuan bider ezagutzen dira. Baina balioak, gauzak ez diralarik ez dira ezagutzen zentzuen bider. Inork ez du ikusi ezta ukitu edo entzun ere inoiz balio bat. Ez dira, ezta, ere, adimenez ulertzen. Adimenak gauzen esentziak ezagutzen ditu, baina balioak, gauza ez delarik, ez du berez esentziarik.

Nola geureganatu eta ezagutzen ditugu, bada, balioak?

Balioak eta balio-judizioak, eman, jarri, estimatu egiten dira, berauen bidez geure ikuspuntuari eusten diogu.

Honek esan nahi du, balioez jabetzeak zerbait subjetibo edo bakoitzaren ikuspuntukoa duela; ikuspuntu subjetibo honetatik zerbait zintzilik dagoela ematen du. Ez du ulertze hutsaren objetibitatea.

Adb: balio-judizio hauetan: «*Hobe da bat izatea bi itxarotea baino*».

«*Hobe da Sacrates kontentagaitz bat, hase batetako txerri bat baino*»; «*Hobe da norberabakian huts egiteko arriskuan jartzea, eguneroko aspergarritasunean usteltzea baino*»; «*Hobe da egi garratz baina eraginkorra, koipekeri nazkagarria baino*».

Judizio hauetan arazoa zera da: ea zein ahalmenarekin geureganatzen, ezagutzen dugun «Hobe da» hori. Ez zentzuekin, ezta ulermenarekin ere; baloratzeko ahalmenarekin geureganatzen ditugu, sena eta arrazoiaren nahastea den ahalmenarekin.

Ezagupenak eta sentzazioak hotzak dira, objetiboak, impertsonalak, eta gu ezagupen-objetutik kanpo geratzen gara. «Hiru eta bost zortzi dira» edo «Zerua urdina da» esateko, ez dugu zertan beroturik. Baina ez da hori balio-judiziotan gertatzen dena. Judizio hauen barrean sartu eta parte hartzen dugu eta berotu egiten gara geure burua arriskutan ikusiko bagenu bezela. Adbidez: aipatutako balio-judizioetan esaten dugu, agiri-agirian ez baina «hobe da» honen bidez, geu ere Socrates antzera kontentagaitzak garela, edo norberabakiaren aldekoak edo zintzoak edo prestuak garela.

ZIBILIZAZIOA-AURRERAPENA

Zibilizazioak eta aurrerapenak betidanik izan dute, egintza eta ezagupenetan oinarriturik, asmakuntza berriak egiteko joera.

Zibilizazioa progresoa da, aurrerapena, hau da, ezagupen eta egintzak beti aurrera eramatea, hobeagotzea.

Gizadiak zibilizazioa sortzen du aurrera joan ahala; gizadia, zibilizazioaren sostengu eta euskarria da.

Kultura, aldiz, balioak norberaganatzean datzalarik, gizabanakoari hobeto dagokion egitekoa da. Hala ere, kulturak ohitura bihurturik geratzen direnez gero, esan beharra dago, herriak ere kultur-eusleak izan daitezkeela, kultur eramaileak, kultura ezberdineko herriak beraz.

Gizakia zibilizazio baten barruan bizi da. Gerta liteke, gizaki bat, zibilizazio handi baten barruan bizi izanik ere, kultura gutxi edo batere ez duena izatea, eta alderantziz, zibilizaziotik hurrun bizi den beste bat kultur oso baten jabe izatea.

EKINTZA. BERONEN GARRANTZIA

Ekintza da bizidunen ezaugarria, ezer ez egitea hildakoena den bezelaxe; arnasa bera bezain beharrezkoa da ekintza bizi ahal izateko.

Bizidunak ekintzaren bidez ulertzen dute bizi direla.

Bizidunek garaipena lortu beharra daukate beren birtualitate ahalak mamituz eta beteaz.

Garaitu behar horren ezaugarriak dira: borroka-indarrak, borroka-birtualitateak.

Bizitza borroka da edo ez da bizitza.

Borroka ekintza da edo ez da borroka egokia.

Borroka zer edo zer lortzeko ahalegina da.

EKINTZAREN NORABIDEA

Ibiltzeko begiak behar dira eta ekintzarako norabidea. Noraezetik ez bait dator ezer onik.

Irudi eta ideiek beren antz eta irudira moldatzen gaituzte. Geu gara geure irudi eta ideien egiturak.

Garrantzi handikoa da norbera irudi egokiz inguratzea, irudiak eraginkorrak direlako.

EKINTZARAKO ERREZTASUN ETA ZAILTASUNAK

Ekinzalea, egunero ekinean dihardunak, erretasun handia lortzen du ekintzarako.

Beste aldetik, ezer egin gabe, egonean eta pasibitatean geldi dagoenak, gainditu ezinezko zailtasuna du ekintzarako.

Arazo honi buruzko esanak.

Egunero hamaika lan eta zeregin izanik ere, oraindik lagunari mesede bat egiteko beta zuenaren esana,...

eta, eguna ezer egin gabe eta egonean pasa ondoren, lagunari esku bat luzatzeko betarik ez zuenaren esana.

Ekintza baliotsua.

Ekintza baliotsuenetakoak dira, arriskuaz beteta egon arren, norberabakia eta beti berriaren bila doan iniziatiba.

Zalantza, ekintzaren arerioa.

Ekintzaren kontrakoa da zalantza. Bestalde, zalantzaren sorbururik larriena morali buruzko iritzi estuegitik dator; ohitura edo moralaren on-gaitzei buruzko aburu estuegitik; ekintzaren aurreko larritasunetik; morali buhuzko iritzi horri garrantzi gehiegi ematetik.

Hori guzti hori, jakina, moral-kontzientziarik badagoela onartzekotan.

Egilearen arazo eta gorapiloak.

Bide moral zuzenari, moralaren on-gaitzei buruzko iritzi estuenari jarraitzen dionaren ikuspuntua honako hau da: oso ondo ez bada, ez egitea.

Baina ikuspuntu medikuari begiratzen dionaren aholkua hauxe izango da: oso ondo ez bada ere, egitea.

Ekintzaren norabidea.

Ekintzarako ikuspegia

GIZAKIA, GIZARTEA, GIZADIA

1. Gizabanakoaren salbamena lan eta ogibidearen bitartez.
2. Gizartearen salbamena elkartasunaren bidez.
3. Gizadiaren salbamena maitasun eta umeen bidez.

Arazoak

1. Gizabanakoarena: ogibidea.
2. Gizartearena : elkartasuna.
3. Gizadiarena : umeen bidezko irautea. Seksu arazoa.

"ELIZA" LIBURUAREN AURKEZPENEAN

(Donostia, 1984, Azaroak 26)

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak: Gau on digula Jainkoak!

Hogei eta hamarren bat urte, edo hor nunbait, igaro ditut Arantzazun Teologia Fundamentala eta Teologiaren sarrerako edo ataurreko gauzak irakasten. Eta ikusirik, alde batetik, gaiok kristau fedeaz duten lokarria eta kristau fedea dela gizonaren dohainik preziatuena; eta, bestetik, euskal kultura sortu nahi baldin bada, kultur gaiok azaltzeko euskara mintzabide hartzea bezalakorik ez dagoela, ikaskizun horietaz obra bat euskaraz prestatzeko asmoa hartu nuen. Noiz izan zen asmo hartze hori? Ez dakit zuzen. Duela makina bat urte. Gaztetan, noski. Badakizute gaztea sobera ausarta edo ameslari handia izan ohi dela, eta ni ere hala izan, nunbait. Barka.

Hartu nuen, bada, obra hirukoitz bat egiteko asmoa, hots, hiru liburu. Lehenbizikoa izango zen Jainkoari buruz, edo, zehazkiago esanik: Jainkoaren existentziari buruz. Bigarrena Jesukristori buruz (Teologia Fundamentalaren ikuspuntutik, jakina). Hirugarrena Elizaz. Hiruek bazeramaten titulu orokor bat berbera: «Kristau Fedearen Sustraiak». Eta hala atera izan dira bana-banaka hiru liburuok. Jainkoarena 1962. urtean, Jakin-taldeak argitaratua. Jesukristorena 1968an, Do-

nostiako Aurrezki Kutxak aterea. Eta orain 1984ean agertzen da hirugarrena, Eliza, Aurrezki Kutxa Munizipalari eskerrak berau ere.

Aitortu behar dut hiru gai horietarik lehenbizikoa, Filosofian azaltzen zelako, ez zela Teologia Fundamentalean irakasten; baina oinarri-oinarrizkoa izanik, baztertu ezina iruditu zitzaidan.

Berriro esango dut: Ondo ohartzen naiz sobera ausarta izan nintzela.

Beste aitortza hau ere egin behar dut: Zeregin honi lotu nintzenean, ez nuen asko uste lan hau bukatu orduko gauzak gure artean hainbesteraino aldatuko zirenik. Gaur fedearen ondarea ez dugu behiala bezala bake gozoan gordetzen. Gauza hauen premia, horrek, premiazkoago bihurtu besterik ez du egin, ordea.

Auziari euskararen ikuspuntutik so eginik, guztiok dakigu gaur ahaleginak egiten direla hizkuntza bera arautu eta normalizapen bidean jartzeko, euskal kultura sortzeko, etab. Saio hauek ere arrangura horren fruitu eta ondorio direla ez dut ukatuko.

Guztiok dakigu, baita ere, hain mintzatzaile eta irakurle gutitako hizkuntzatan langileak urririk lan egin beste biderik ez duela, eta lana argitaratu nahi badu, noraezekoa duela ate-joka ibiltzea eta laguntza eskatzea. Arestian esan dut hiru liburuok nola atera diren. Azkenengo honengatik ere Aurrezki Kutxa Munizipalari eskerrak eman beharrean naiz.

Eta honako hau ere zergatik ez esan? Elizan Kontzilio ondoan lehertu diren liskarrak ikustean, Axularrek dioen bezala (Ax 6), barrenean gelditu eta estaltzea gogoak ematen zidan. Baina barrenean gelditzeko tentazioari amore eman behar ote nion? Ezetz iruditu zitzaidan. Aitzitik, oztopoak gainditzen laguntzeko, nork bere aletxoa garraiatu behar duela uste dut.

Gaiok, bestalde, beren osotasunean inguratzen zail bihurtu dira, gero eta bibliografia ugariago delako, alde batetik,

eta ikusalde berriak ia egunoro agertzen direlako, bestetik. Dena inguratzea ezinezko bihurtu da, bada.

Eta bada oraindik beste zerbait, gibelatzen ninduena. Gaur berrizale izan behar duzu, nahi-ta-ez. Gaurko irrika edo moda bihurtu da. Idazleari eskatzen zaio, alegia, zerbait berri esatea, gaurkoa izatea, hots, moderno izatea. Baina hontan gogora datorkit Barandiaranek Zubiagari esana eta honek bere azken liburuan jasoa (1): «Elizliburuak "gaurkoak" dira egian sustraituak eta gaurko egoitzari erantzuten diranak badira». Liburu honen mamiari bagagozkio, nik esango nuke bertan azaltzen diren gauzak betikoak direla eta gaur maizegi isilik uzten edo gutiesten direnak, gaindituak baleude bezala, eta hargatik, hain zuzen, arriskutan gerta daitezkeenak, galtzeko arriskutan. Uste dut, beraz, horien premia gogoratzea eta azpimarratzea gaurkotasunari kasu emateko modu bat dela.

★ ★ ★

Gai hauek aztertzen zabiltzalarik, oztopo jakin bat irteten zaizu bidera, hots, misterioa. Eta horren aurrean bi jarrera har daitezke, elkarren aurkakoak eta biak makurrak: 1) batak, giza adimenaren indarra eta gaitasuna sobera etsirik, Jainkoarekiko misterioen zola ere zulatu eta ulertu uste du, inongo eragozpenik ez balitz bezala; 2) besteak, aldiz, gure adimenaren gauza eza aitzakiatzat hartuz, ez du uste auzi horietaz deus jakiteko gai garenik. Beraz, uste honen arabera, ez litzateke posible izango benetako Jakintza bat arazo edo gai horien gainean. Bi jarrerok gertatu izan dira Kulturaren kondairan barna. Gaur bigarrenak du arrakasta gehiago eta arrisku edo tentazio horretan erortzeko zorian gaudela esatea ez da sekreturik salatzea. Joera honen argudioei behar bezala erantzuteko, Filosofiaren eremuan sartu beharko genuke, eta hau ez da hori egiteko ez ordua eta ez lekua (2).

---

1. *Maite-garraren txinpartak;* Donostia, 1983, 9. orrialdean.

2. Ikus ET. GILSON, *La unidad de la experiencia filosófica,* Ed. Rialp, Madrid, 1973.

Vatikanoko Lehen Kontzilioak fede katolikoari buruz eman zuen Konstituzioan, Konstituzio horren 4. kapituluan, erakutsi zuen zein diren giza arrazoiaren ahalak eta mugak puntu honetan. Gutun horretan esaten zaigu fedez edo Agerkundez agertu zaizkigun misterioak gure gainetik daudela, eta, beraz, ezin ulertuzkoak eta zeharo ezin argituzkoak direla; horrek, ordea, ez duela esan nahi giza adimenak, horien gainean ari denean, ezin dezakeela deusik uler; aitzitik, ulerpideren bat, eta guztiz baliotsua, jaso dezake naturalki ezagutzen dituenen analogiatik eta misterioek berek elkarren artean eta gizonaren azken helburuaz duten lokarritik. Hala ere, beti izango da egia giza adimena gauza hauetan ez dela hain trebe berari dagozkionetan den bezala, eta misterio hauek alde orotarik gainditzen gaituztela (D 1795).

Erregela hau izan da eta da teologo katolikoen errepidea, bide zabal-zuzena.

Gaur, aintzin honetan esan dudan bezala, Agnostizismoa eta Fideismoa dira gainean ditugun etsaiak, baina kristau fedeak beti aitortu du giza arrazoiaren gaitasuna muga batzuen barnean. Kapadoziar irakasleek bazuten hitz bat Jainkoa izendatzeko: *Akatalêptos,* hots, eskura ezina. Horrek esan nahi du, noski, Jainkoa eta Haren misterioak guretzat agort ezinak direla, ezin konprenituzkoak. Baina Jainkoa ezin dugula osotoro barnatu esateak, ez du inolaz ere esan nahi —eta desbiderapen hori da gaurko arriskua— ez dugula Hari buruz fitsik konprenitzen edo ulertzen ahal (3).

«Jainkoa *ezin esanezko* dela diogunean —idatzi du De Lubac aitak—, horrekin ez dugu aditzera eman nahi Hari buruz ezin daitekeela egia den gauzarik esan, Hari buruz isiltzea beste zereginik ez dugula, edo-ta nahierara baiezta eta uka daitekeela edozer gauza. Edo balio pratiko eta behinbehinekoa soilki duela Hari buruz esaten den orok. Nik esango nuke ezin esanezkotasun hori hartu behar dela dialektika baten bukaera bezala, eta hortik duela bere esanahi jatorra eta guztiz positiboa... Bere ordu propioari aitzinduko

---

3. H. U. von Balthasar, *La foi du Christ,* Aubier; 72. orrialdean.

litzaiokeen teologia negatiboa baino gauza txarragorik ez legoke» (4).

* * *

Gure egunotan Eliz gertakari haundi bat ikusi dugu, hots, Kontzilioa, Vatikano II.a. Eta Eliza bera, hain zuzen, izan da Kontzilioaren aztergai nagusia.

Elizan bazen argitu beharrekorik eta bai aldatu eta gaurkotu beharrekorik ere, eta hala egin du Kontzilioak. Kontzilio honek berritasunik aski ekarri izan duela Elizara ez da ez dakienik. Eliza Jainkoaren herria dela; Hierarkia, berriz, zerbitzu bat dela. Aita Sainduaren aitzindaritasunaren ondoan, kolejialtasuna irakatsi da. Elizako mienbro guztiek —bakoitzak bere mailan, noski—, parte dute Kristoren hiru ofizio edo zereginetan (apaiz, profeta, errege). Halako berri-aire bat hartu dute Elizako gauzek, leialtasun edo fidelta-sunari saldukeriarik egin gabe.

Tirabirak egon dira eta badira oraindik. Eta —holakoetan maiz gertatzen dena—, Kontzilioak nahi izan ez dituen aldaketak egin nahi dituzte batzuek, eta agindutakoak ere ez beste batzuek. Hitz batean esateko, krisian daude gaur hainbat gauza. Krisiak luzarora, gainditzen baldin badira, mesedetan ur daitezke. Gauza askoren sustraiari kasu ematera behartzen gaituzte; lehen gaingiroki eta axaletik baino bizitzen ez ziren gauza askoren garrantzia hobeki neurtzera eraman gaitzakete. Nik uste dut hori guzi hori egingo dela, baina denbora beharko da. Neurri batean iadanik egiten ari dela ere esango nuke, nahiz eta lehen aipatutako astinduak oraindik bizirik egon.

Kasu bat aipatzeagatik, aipa dezadan Elizako Zuzen edo Deretxo Kanonikoarekin gertatua. Disziplina hau berez Teologiaren adarra zelarik, pixkaka eta ohartzeke, Teologiarekin lokarriak hautsi zituen eta bere bidetik zebilen, baina umezurtz. Eta zer gertatu zitzaion? Oinarri gabe, gutietsia eta ka-

4. HENRI DE LUBAC, *Por los caminos de Dios*, Ed. Carlos Lohlé, Buenos Aires; 101. orrialdean.

sik mexpreziorik handienean eroria gelditu zela. Gaur, zorionean, bere teologi-oinarriak bir-aurkitzen eta bir-eskuratzen ari da. D. Llamazares-en liburua ikusi besterik ez dago (5). Teologiaren adar bat da, nahiz eta metodo berezi baten jabe izan. Eta hau da notatzekoa: berpiztea etorri zaio lehengora, aspaldiko iturrietara bihurtzetik. Eta Kontzilioak berak eman zuen hortarako bidea, zeren, disziplina hau azaltzerakoan, Elizaren misterioa kontutan hartzeko agindu baitzuen (6).

Antzera gertatu zaio, itxuren arabera, Teologia Fundamentalari. Honek ere, metodo berezia duelarik, Teologiaren enborretik askatu eta bere bidetik ibiltzeko tentazioa izan du. Eta ez. Teologiaren batasunean irautetik helduko zaio, ene ustez, birloratzea.

Edozein modutan ere, berrikusketa eta bir-moldaketen garaian gaude. Gauza batetik gorde gaitezen, ordea: edozer txorakeriari Teologia deitzetik. Hori ere, esango nuke, maiz gertatzen dela gaur, eta hortik Teologiari kaltea besterik ez datorkio. Teologiak bere printzipioak ditu, bere metodoak, bere helburua, eta horiei leialki lotzen delarik, eta ez bestela, beharko du egin bere lana. Ez da munduan benetako zientziarik bere baitako legeak errespetatzen ez dituenik, eta ez dago arrazoirik horretan Teologia salbuespen izan dadin.

★ ★ ★

Plazaratzen den liburuak Eliza du aztergai. Gaur borborrean irakiten ari den gaia da berau.

Elizan badira bi alderdi edo saihets elkartu beharrezkoak, eta, Kondaira lekuko, elkartzen zailak gertatu direnak. Orain alderdi biotatik batari eta gero besteari oratu izan zaio, baina nekez hartzen dira biok batera kontutan. Elizak, bada, bi, alderdi ditu: barnekoa eta kanpokoa. Ikus hortaz Kon-

5. *Derecho Canónico Fundamental*, León, 1980.
6. «Optatam totius», 16.

tzilioa (7). Elizaren kanpoko aldea oskola da, azala edo maskorra, nahi baduzu; barneko aldea da Elizak duen muin baliotsuena, baina biak dira beharrezkoak. Barnekoa preziatuena izanik ere, kanpokoa preziatuena den horren zerbitzutan dago, eta hala ezin utzizkoa da. Pio XII.ak bere denboran salatzen zituen auzi honi buruz egiten diren oposaketa faltsoak, Eliza juridikoa eta karitatezko Eliza elkarren aurka jarririk, eta abar (8).

Norbaitek esan du azken Kontzilioak egin duen baieztapenik garrantzitsuena (eta bai zailena ere) honako hau dela, hots: Eliza sakramentu edo sakramentu gisako zerbait dela (9), Jesukristo bera den bezala, bestalde. Sakramentua seinale bat da eta bi osakaiez osatutako izakia: alde bat du barnekoa eta ezin ikusizkoa, eta beste bat kanpokoa eta ikusten dena. Eliza sakramentu itxurazkoa dela esatean, bi alderdion sintesia egin nahi digu Kontzilioak. Elizan bada Hierarkia bat, bada Aita Saindua, Apezpikuak, apaizak, karguak, Apostoluen ondorengoak direnen ardurak, eta abar; guzti hori kanpoaldekoa duzu, baina ezin utzizkoa, halere. Guztion gogoan dago Joan Paulo II.a Nikaraguara joan zeneko gertaera hura. Oihukariek zioten: «Gora herriaren Eliza!». Eta Aita Sainduak erantzun zien: «Ez dago Eliza bat baizik: Kristok Pedro eta Apostoluen eta hauen ondorengoen gain ezarri zuena baizik».

Inoiz entzuten da, bai, Eklesiologia berriak direla gaur. Nik ez dut uste erabat berriak egon daitezkeenik. Eremu honetan puntu asko daude Elizak fedeko egiatzat hartuak dituenak, eta horiek balio trinko eta sendoa gordeko dute beti. Ikusalde berrientzat, orain arte guti kontutan hartu direnentzat, bai, beti egongo da lekua, eta zahar eta berriak ohi ez bezalako arrimu edo oreka batetan disposatzeko aukera ere bai. Kristau fedean bada malgutasun bat etxe-barneari itxura berria emateko, Hans Urs von Balthasar-ek gogoa-

7. «Lumen Gentium», 8.
8. «Mystici Corporis», 63; 1943.
9. «Lumen Gentium», 1.

razten duenez [10], baina beti ere definitua izan dena salborik utzirik.

Azken Kontzilioak, Elizako hazpegiak deskribatzean, garrantzi handia eman dio tradizioan azaltzen den «koinonía» edo «communio» delako horri; baina Kontzilio berak esaten digu, baita ere, Communioa ez dela lainoetan den zerbait, errealitate organikoa dela, alegia, karitateak sor arazia eta forma juridiko baten beharrean dagoena [11].

Eliza fedeko misterioa da, noski. Baditu, alegia, arrazoiaren indar soilaz erdiestezin diren alderdiak. Teologia Fundamentalak erabiltzen duen metodoa gai da Elizaren zenbait alderdi argitzeko, baina Eliza bere osotasunean hartu nahi denean, metodo dogmatikora ere jo beharra dago; horregatik, azterkizun hau nabarra gertatzen da, bi metodoak dabiltzalako lanean, baina ez nahasian. Elizaren kanpoaldeko zatiak Teologia Fundamentalaren metodoaz tratatzen dira; barnekoak, aldiz, Dogmatikarenaz. Gure liburuan ere hala egiten da. Teologia Fundamentalari dagokion metodos ageri da gailen, baina besteak ere sarrera zerbait du, batez ere liburuaren bigarren partean.

Esan behar dut, gainera, liburuaren bigarren parte honetan zati handiak daudela gaurko teologo batzuen lanetatik hartu eta mamiz itzuliak, batez ere Hans Urs Von Balthasar-en *Sponsa Verbi* liburutik eta De Lubac, Congar eta besteetarik aldatuak.

Apaingarriz eta argazkiz ere oso jantzia dator liburua. Eta horretan aparteko ardura hartu duen Juan Antonio Garmendia adiskideari eskerrak eman beharrean naiz, eta gogotik ematen dizkiot. Berak nahi izan du Euskal Herrian fedeak sortarazi dituen lorpen eta agirien nolabaiteko erakustoki izan dadila liburu hau, eta neurri dexente batean lortu duela uste dut. Liburuaren kanpoko azalean, berriz, Aita Xabier Eulatek Arantzazurako egindako berina dator, Charola

10. *La foi du Christ*, 125. orrialdean.
11. L. G. «Nota explicativa praevia», 2.

jaunak argazkiz hartua. Eta nola ez aipa Alkorta jauna eta Gráficas Izarra lantegia, imprimeri lana hain maitekiro burutu dutenak? Eskerrik beroenak denentzat, eta Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalari baitipat, argitaratze kontua bere gain hartu duelako.

★ ★ ★

Eman diezaiogun, laburzki bederen, gainbegiratu bat liburuaren edukinari, beronen kapituluak bana-banaka aipatuz. Liburua XXII kapituluz osatua da. Aurrean badu Aurkibide bat murritza, kapituluen tituluak soil-soilki dakartzana. Baina azkenaldean beste Aurkibide bat du xehetasunez hornituagoa eta hortik laster atera daiteke zein den kapitulu bakoitzaren mamia.

Lehenbiziko kapitulua «Zurrumiloaren erdian», pixka bat gaitik kanpora dago, nahi baduzue, baina Eliz barnean gaur nabari diren zenbait joera, tirabira eta despiten kontu ematen da. Noraezekoa du idazleak bere ingurumaria ezagutzea eta non ari den jakitea, garaiko giro, aje eta tentazioak ezagutzea, eta hortara dihoa kapitulua. Agian bertan eskaintzen den begikolpea ilun eta beltz samarra da. Ez dakit.

Bigarren kapituluaz hasten da propioki gaia. «Jainkoaren erresuma» edo erreinua, du titulua. Gauza jakina da Kristok aipatzen eta Ebanjelioetan hainbeste aldiz ageri den Jainkoaren erreinu hori dela eta, exegeten eta teologo fundamentalisten artean egon direla eritzi desberdinak, baina diferentxiok ñabarduretan dira, hots, hitzaren malgutasuna teologo batzuek gehiegi trinkotu eta gogortu nahi izan dutelako. Nolanahi den, Kristok hotsegiten zuen erreinuak Elizarekin duen zer-ikusia aztertzen da hor.

Hirugarren kapitulua hamabi Apostoluen auziaz mintzo da. Jakina denez, axola handieneko puntua da hau Elizan.

Laugarren kapitulua: Kargudunak Elizan. Hemen ukitzen da Eliz Hierarkiaren auzia.

Boskarren kapitulua: San Pedrori kristau iturrietan aitor-

tzen zaion aitzindaritasunaren arazoa aztertzen da.

Seigarren kapitulua: Elizaren lehen urratsak: Kapitulu honetan azaltzen da nola izan zen kristautasunaren zabalkundea, judu-herritik jentilen artera igarotzea eta abar, nolako antolabideak zituen Eliza jaioberriak, nolako arriskuak gainditu behar izan zituen, ez bakarrik kanpotik, baina baita barnetik ere. Guzti hori Kondairaren argitan, garai hartako lekukotasunak kontutan hartuz.

Zazpigarren kapitulua: Erromako Apezpikua San Pedroren ondorengoa dela Elizaren aitzindari-karguan. Puntu hau ere Eklesiologiaren giltzarri bat dela bistan da. Eliz Kondairaren argitan azaltzen da.

Zortzigarren kapitulua: Aita Sainduaren tokia Elizan, edo Primatuaren luze-laburra. Kapitulu honetan Vaticano Lehenak eman zuen definizioa azaltzen da.

Bederatzigarren kapitulua Elizan Apostoluen suzesioa atxikitzen dutenez ari da, hots, Apezpikuez. Puntu hau ere giltzarri edo buruenetakoa da Eklesiologian. Eliz kondairaren argitan arakatzen da.

Hamargarren kapitulua: Apezpikuen kolejialtasuna. Jakina denez, hau da Vatikano II.ak irakatsi duen puntu nagusienetako bat.

Hamaikagarren kapitulua: Eliza, Kristiandade aroan. Kristiandade izenaren pean adierazi ohi da kristau kondairaren aro bat, zeinetan Eliza eta komunitate politikoa hertsiki elkartuak eta uztartuak egon baitira. Uztarketa honetarik zenbait gertakari eta istilu sortu dira, hala nola Kruzadak, Inkisizioa eta abar. Gertakari horiek nola interpretatu behar diren aztertzen da, bada.

Gero lau kapitulutan —12tik 15era, alegia— Eliz Irakasgoaren auzia aztertzen da. Elizan badela Irakasgo bat Kristok jarria, Elizako fedea zaintzeko, desbiderapenetatik begiratzeko, zenbait kasutan hutsezina dela Irakasgo hori, eta hutsezin mailatako ez denean ere gure baiezkoa —muga batzuen barnean —galdegiten duela, eta zein den Eliz Irakasgo

honen eremua edo zer-nolako gaietara hedatzen den: guzti hori lau kapitulu horietan aztertzen da.

XVI. kapitulua: Elizaren egitekoa, edo Eliza zertarako den. Elizak gizonaren salbazioaz eta saindutasunaz du zer-ikusi, Jainkoaren eta Jainko Agerkundearen testigu ere izan behar du munduan. Esaldi hauek zer duten kolkoan aztertzen da kapitulu honetan.

Honeraino Teologia Fundamentalaren metodo bereziaz baitipat aztertzen dira gaiak, Kondairaren eta kristau iturrien lekukotasunak ikusiz eta horien balio historikoa kontutan hartuz. Egia esan, lehen parte honetarako gidaritzat hartu ditudan autoreak, besteak beste, hauek izan dira: Dieckmann, Salaverri, Batiffol, Congar, Journet etab.

Hamazazpigarren kapitulua: «Zer da Eliza?», fedeko misterio hau —Eliza bera— dogmatikoki eta ahal daitekeen neurrian argitzera zuzendua dago. Azken batean Eliza Kristo bera da, edo Kristoren luzapen bat. Hans Urs Von Balthasar-en *Sponsa Verbi* ikerlana da kapitulu honen iturburua.

Hamazortzigarren kapituluan —«Elizaren ezaugarriak»—, Elizaren lau «tasun» edo nota direlako horiek —Batasuna, Saindutasuna, Katolikotasuna eta Apostolutasuna— azaltzen dira Congar-en oinarrastoei jarraikiz.

Hemeretzigarren kapitulua: «Utz zazu dena eta jarraiki Neri» erlijioso bizitzeak Elizan duen tokiaz mintzo da. Hemen ere H. U. V. Balthasar, Tillard eta beste saio batzuk hartu dira kontutan.

Eta berdin Hogeigarren kapitulan «Apaiza gaurko munduan», H. U. V. Balthasar-en uztatik hartua da.

Hogei eta batgarren kapituluak —«Tentsioak Elizako egiturei buruz»— eta Hogei eta bigarrenak —«Elizaren amatasuna»—, Henri De Lubac-en saio bat dute oinarritzat. Azkenaldian apaizgoari eta Aita Sainduari buruz sortu diren eztabaidetan argia egin nahi dute.

★ ★ ★

«Ba, eta non mintzo da zure liburu hori kristau soilak Elizan duen tokiaz edo Elizan aitortzen zaizkion dohain eta eskubideez?», esango du zenbaitek. Aitortu behar dut kapitulu berezirik ez dela liburuan gai hontaz, beste gauza askori buruz ere ez den bezala, baina hor-hemenka badira, bai, hortaz mintzo diren atalak. Dena berariaz eta kapitulu berezitan tratatzerik ez dago. Hautaketa bat egin behar izan dut, eta anitz gauza jakinaren gainean kanpoan gelditzen dira edo pixka bat laburzki eta zeharka ukitzen ditut.

Liburu honek dituen hutsak eta akatsak aldez aurretik aitortzen ditut.

Eta huts batzuen arrazoia emateko esan behar dut Teologia Fundamentalaren ikuspuntutik baitipat hartzen dela Eliza liburu honetan. Orduan zenbait gauza kanpoan gelditzea ez da miresteko, ezen Teologi adar honi zuzenean dagozkionak ez dira. Baita ere esan behar dut nere kezkarik handiena ez dudala ipini gauza berriak eta ezazagunak esaten, ez eta orijinal izaten ere; gaur maiz isiltzen diren, gutxiesten diren, arriskutan diren eta betikoak direnen oinarri trinko sendoak erakusten baizik.

Guztiok dakigu zer-nolako erro sakonak bota zituen fedeak gure herrian eta herri honek nolako fruitu bikainak eman dizkion Elizari. Fede hori ez dezagula galtzera utzi! Ondo errukarriak ginateke. Egia da, bai, fedea Jainkoaren dohaina dela, baina gure aldetik ere estimazioa, esker ona eta lankidetza nahi eta behar du. Badut asmoa beste liburu bat, artez eta zuzenean, eta euskaraz, noski, fedeari buruz prestatzeko. Asmoa baino gehiago ere bada, dagoeneko. Uste dut hiru liburu hauek bururatzeko ongi etorriko dela beste hori.

Bukatzeko, aipa dezadan liburuari jarri diodan goiburu edo «lema» delakoa. Ama Sorazuren hitz sotil batzuk dira. Euskal Herriko alaba xume hark ez zuen Teologi ikastarorik egin, baina haatik zeinen ederki dakien Elizaren giharra zein den esaten! Elizak —dio berak— Jainko Salbatzailea bilatzen irakasten digu, kristau bizitzea har arazten digu.

Izan ere, Elizak, gurekiko, ez du beste egitekorik. Horretarako dago, eta horregatik da guretzat maitagarri.

BASARRI ETA UZTAPIDE

Juan Mari Lekuona

Uztapide eta Basarri: bat bezain beste aipagarri.

Iaz Gabriel Zelaia erdaraz idazten duen poetari egin zion Gipuzkoako Aldundiak omenaldi. Eta aurten berdin egin nahi die bi bertsolariok osatzen duten bikoteari.

Bistan da aurtengo aukerak kultur ikuspegi jakin bat ematen digula aditzera, eta ahozko literaturaren aipamen berezia dabilela hor tartean. Eta Aldundiak bi gizoni eskaini badio omenaldia, bistan da, baita ere, guk hain garrantzizkoa eta hain gurea dugun herri-literatura ere gogoan dutela antolatzaileek.

Gaurko omenaldian, literatur estiloari gagozkiolarik, ahozko estiloa da hemen goraipatzen dena, ez idatzizkoa. Eta ahozko munduaren barruan bestalde, bertsolaritza azpimarratzen da berezienik, omenduon beste literatur eta kreazio-alderdiak ahaztu gabe. Eta jakina, bertsolaritzaz ari garelarik, plazako eta jendaurreko bertsogintzaz ari garela batez ere esan behar, bi bertsolariok, nahiz eta idazten oso trebeak izan, plazako saioetan dutelako beren garrantzia, bai bikote bezala, bai beren ekarri eta fruitu berezi bezala.

Banaka ere balukete meriturik aski gure artean ohorezko aipamena izan dezaten. Baina gaurko eskaintzan bikotea dugu gogoan: elkarrekin arituz, elkarren osagarri izanez eta ar-

te-erakusketan bi pertsonai desberdinen eginkizun poetikoa betez, utzi ziguten ondarea azpimarratzen da. Eta honenbestez finkaturik dauzkagu omenaldi honen nondik-norakoak eta berdin mintzaldi honen zenbait puntu, nagusienak behintzat.

1. *Ahozko literaturari aitormen*

Ikusirik Estatu mailan eta beronetatik kanpo ezaguna den poeta baten ondoren, bertsolariak direla hurrenez-hurren datozenak, uste dut honek argi eta garbi adierazten duela zein mailatan dauzkagun herri oleskaria eta berau sortu duen kultur mundua, hitz biziaren esparrua.

Azken urteotan, ideia nagusi hauen inguru doa ahozko literaturaz dugun ustea: L. Mitxelenak ziurtatu digu, lehenagoko zenbait aurre-eritzi gaindituz, «euskarazko herri-literatura, funtsean ahozkoa dena, beste edozein herritakoa bezain aberatsa eta ugaria dela»; bestalde, M. Lekuonak ikus-arazi digu, beren exotismo eta nortasunagatik oso estimatuak diren beste kultur lurraldetako agertaldi asko, gure artean ere ematen dela, eta erizpide eta tratamentu berak merezi dituela; eta, azkenik, J. Oteizak dioenak ere eduki du bere eragina, alegia, oraltasunenan datzala gure kultur balio sakonena, eta bertsolaria dela «poetaren euskal estiloa» hain zuzen.

Hiru erizpide hauek hari nagusitzat dauzkagu gure ahozko literaturari zor diogun ikuspegi teoriko-praktikoan. Eta hemendik kanpoko kultur esparru hain urrutikoetan, hala nola, arabiar, japoniar, txinatar, indiar, eta abarretan egin diren ikaskuntzetan, ematen diren esenplu eta oroipenetan «aditzera ematen zaigu, zernolako erakartasun espirituala, eta zernolako inspirazio-indarra duen literaturgintzak, berau lehenik ahoz-aho transmititu denean, eta gero idazkiz, eta iduriz ere bai, bakoitzaren kontzientzian etengabe entzuten denean, eta elkartearen bihotzean errepikatzen denean, betiren-beti bizi den zerbait bait-litzan».

Horregatik, ahozko estiloari egiten diogu gaur aitormen: gure esparru etnikoan hitzaren arabera bizi izan den kulturari eta literatuari, gure barne-muinetako bizikizun kolektiboari, Uztapidek eta Basarrik testigantza bikaina egin dioten hitz biziko adierazpen munduari.

Azkenik ere, ohore egiten zaio herri-literaturari, folklore maila gaindituz, lehen mailako euskal artegileak ematen dituen egiturari, poesi ofizioari.

2. *Bertsolaritzari ospe*

Gaur omentzen ditugunok, euskal poesiaren tradizio jakin bati atxekirik azaltzen zaizkigu: bertsolaritzari, batez ere. Hauek, Basarrik eta Uztapidek, bertsolari ospetsuenen eskutik jaso zuten testigua, zuzi-biztua: Pernando Amezketarra, Izuelako Artzaia, Xenpelar, Bilintx, Iparragirre, P. M. Otaño, Pello Errota, Txirrita, K. Enbeita eta beste asko eta askoren eskutik. Aspalditik datorren testigutza luzea, baino gure gogoanean haruntzago iristen ez den memoria apal honek dakarkigun zerrenda ezaguna, izen-andana zehatza apaturiko hori delarik.

Eta testigutza hori hartu eta aurrera eraman izana da gaurko omenaldian oso kontuan edukitzen dugun alderdia. Izan ere, guk gaur jakin badakigu oso kultura zaharrekin lotzen gaituela bertsolaritzak: islam-aurreko kultur munduarekin, Bibli aurrekoarekin, kolondar-aurreko munduko literatur joerekin. Eta XX. mendean, beste lurraldetan galduriko poemagintza bapatekoak irauten duela hemen. eta gainera, bertan galduriko zenbait generoen gainetik, bera bakarrik daukagula pieza berriak eskaintzen diguna, teatroarekin batera.

Etnia baten psikologia dakusgu hor, tradiziozko klitxeetan mamitua. Eta itzulpen guztiak baino lehenagoko freskotasunean, emanik nabari ohi dugu guere hitz poetikoen erritmoa,

gure jokabide etiko mentala, gure poesigintza bizia, gure teknika berezia.

Eta gauza horiek ere gogoan ditugu egiten ari garen omenaldi honetan : jakinik bertsolaritzaren zuhaitza landare preziatua dela Euskal Herriko lorategian. Izen on bat dakarkigu kantuzko ofizio publikoak: «euskaldunen artean guztiz maitatua» zen beste erakunde haren antzera. Egia da bai, ez dela bakarra herri-poesigintzan. Ez eta ere onena berha bada textugintzaren aldetik begiratutzen badiozu. Baina berau dugu indartsuena, azkarrena, eta bizirik dirautenetan bakarretakoa, herri-antzerkiak ifarraldean bezalatsu.

Herriarentzat eta herriaren mailan gure bizitza osoa kantatu zuten bertsogileak gaur artista garrantzitsutzat dauzkagu gurean; eta gure poesi bizia zerbitzatu dutelako eta goi mailara eraman, Uztapide eta Basarriren lana gogoan eta bi hauei esker, oleskaritzak hartu duen duintasuna da bigarrenik omenaldi honetan goraipatzen ditugunak.

3. *Bapateko bertsogintzari ohore*

Herriz-herri dabilen «artista euskalduna» dugu gogoan: «debalde pesta preparatzen duen hura», «sagardotegitan eskolatutako hura», «andreak zintzotzeko enkargatzen nau» dioen hura, «behin ariko da umore onez, behin amorruzko indarrez/negargileak barrez jarririk, barregileak negarrez» dabilen hura... Lore-jokoek bailarako kantuzko xokotik atera zuten kantaria, festarekin batera herrira zetorkigun artelari umoretsu eta ospakizun-gizona.

Herriak eta artistak batean elkarturik egiten duten bertso-saioa: entzuleen bihotzondoan ilunbatsa argi bihurtuz, denen susmoa hitz argi eta esaldi bizkor bilakatuz, tradizioa gaurko barrunbearen entresilutan ispilatuz, han bertan nork berak daramana elkarri komunikatuz: bertsolariak herriari, herriak bertsolariari.

Eta folklore huts zena, aro modernoko literatur emanaldi gauzatu dute. Eta gaurregungo gizakia bertsozale bihurtu, eta garaiaren garaiko entzulego bat paratu; eta ihardunaldiei antzesleku egokienak bilatu; eta bertso-saio osoari espektakulu-eittea eman; eta bertso-lehiaketek lehendik zeharten suari eutsi; eta gaiak berritu; eta hizkuntza egokitu, eta saioak tajutzeko erak moldatu eta mila berrikuntza arte-legean eta gizalegean.

Horretara bakarrik ez da, ordea, biltzen Basarrik eta Uztapidek ikus-arazi eta egin-arazi digutena. Ez diegu gutxiago eskertzen, textugintza berriago bat plazako bertsogintzarako sortzen eta irazkitzen eginiko lana: estrofen barruko klitxeak aberastuz, almazena hornituz, saio-barruan puntuak errepikatzeari itzuri eginez, esaldiak biribilduz. Eta gaiak gizarteari egokituz, ikusmoldean zulatuz, ironian algara eta irripara loratuz. Eta estrofak proporzio ederrean oratuz; ez eskasik, ez sobrarik, berezkoa behartu gabe, eta moldeen luze-zabala ondo ezagutuz eta markatuz, bortxakeriarik gabe.

Uztapide eta Basarriri bere omenaldia eskaintzean kultur mailako abegi onena onerizten dugu jendaurreko poemagintza bizia eta bapatekoa: entzulea bera bersogile senti-arazten duen hura, zirrara berezia sor-arazten duena, txaloka jartzen gaituena, esku-zartaz sua bizten dugularik, barrutik hartzen gaituena hura, gure «intra-historia» delako hura, Oteizaren hitzetan.

Hori da guk gaur eta hemen ohoratzen dugun euskal erakunde bizia, gero eta argiago ikusten dugularik bapateko bertsogintzak, nahiz eta XX. mendean bizi garen, duen arrakasta eta eragin-indar kulturala.

4. *Bikote ezin-ahaztua*

Orain arte bersolaritzak XX. mendean egin duen ezinbestezko aurrerapidea aipatu dugu, eta aldaketa honetan Basarrik eta Uztapidek eginiko ekarria aipatu, beren inguru bi-

ratzen denez XX. mendeko bertsolaritza berria. Baina lan zabal horretan eredu eta eragile nagusi bezala aurkeztu ondoren, beren ekarria zehatzago aipa dezagun, zertan diren antzeko eta zertan bestelako llaburki markatzen dugularik. Elkarrekin ibili izanak gauza askotan berdintsu azaltzen zaizkigu, baina biek nortasun haundiko artistak zirenez, ezinbestezkoa zen desberdintasunak egotea bien artean.

4.11. *Zertan antzeko*

a) *Zerbitzu leiala eskaini izana:* aldian-aldiko emaitza asperrezinean, dohairik onenak eta bizitzako ordurik gehienak bertsolaritzari eskainiz.

b) *Praktikotasun burutsua erakutsi izana:* teoriak mamituz, bide berriak asmatuz, jokabideak finkatuz, susmoak gauzatu eta gorpuztuz.

c) *Bapateko bertsogintzarako hizkera berriagotuz:* Otañoren haritik, zizurkildarraren bertso-molde idatzia ahozko saioetara aldatuz, euskara garbia bezain herrikoia hautatuz.

d) *Historia berdintsua:* «*Bertsolari Eguna*»-ko ekitalditan plazaratuak, gerrondoko bertsolaritzan puntakoak, herriz-herri elkarrekin ibiliak, eta txapalketan inguru beren langintza eskaini dutenak.

e) *Bertsolaritza berriago baten esperantza* biztu eta sugar bihurtu zutenak.

f) *Plazako bertsogintzan lege berri bat jarri eta bete* zutenak ahotik-ahorako ihardunaldietan.

g) *Bertsolari projektu bat ekarri izana,* lehenik itsumustuan, gero argi eta garbi, beren idatzizko erizpidetan.

h) *Bertsolaritza berriaren izaera markatu:* saioak laburtuz, jendearen gustoa eginez.

i) *Hiztun apartak izanez:* euskara mintzatuak dituen maratila guztiak ezagunak zituztelarik.

j) *Tradizioaren lekuko ezin-hobeak:* iturri garbiko ur

gardenetik edanak, etxetik eta herritik asko zutenak, baina batetik bestera ibili izanak eman zien euskal kultura zaharraren ezagutza aberatsa.

4.2. *Zertan bestelako*

a) *Kultur prestakuntzan:* Basarri ongi jantzia literaturan, musikan, hizlaritzan, herri-ezagutzan... Uztapidek ahozkotik gehiago, noski, idatzizkotik baino, eta herri-ezagutzan testigu aparta genuen, ibilian eta bere kabuz ikasia.

b) *Bertsolari ibilpidea:* Uztapide azpi-azpitik hasi eta txapelketaz gain jaialditan ere lehen mailako langintza eskainia... Basarrik beti goren mailakoa bere bertsogintza, eta jaialditan gutxiago aritua eskuarki.

c) *Teoria:* Basarrik, bizi ezezik, idatziz eman ere bai, liburu bat eskaintzeraino... Uztapidek bete bai, zerbait idatzi ere bai, baina ez horretara jarrita.

d) *Bertso-liburuak:* Basarrik 1949tik argitaratu ditu... Uztapidek «Sasioa joan da gero», eta uste osoan egonik, «plazan dabillenari ez zaiola konbeni bertsoak idaztea».

e) *Bertsogintzan ofizioz:* Uztapide profesionaltasun moduko erantzun betea emanez... Basarrik bertsogintza komunikabidetara sartuz, eta azken aldera jendarurreko langintzatik nahiko askatua biziz.

f) *Bertso-neurkeran:* Oparoago Basarri, batez ere bertsoak jartzerakoan, neurri mota llaburrenak eta luzeenak erabiliz. Uztapidek, beti zortzikoan eta hamarrekoan, miresgarri delarik hau, hain ona izana estrofa-mota berdinak beti erabiliz.

g) *Nortasun poetikoa:* Basarri dramatizazio haundikoa, lirikotasun eztia pertsona maitagarriez ari denean, herri-filosofia ederra tradizioaren araberako mundulerkuntzaz ari zaigunean... Uztapide, adimen zorrotzekoa, ironia gizakoi eta jakinduriazkoa, gauzak esan gabe esaten zekiena, mundulerkuntza serioa.

h) *Lagunarterako kantuak sortu izana:* Basarri, taldeko kantu-tradizioa ugarituz... Uztapidek ez du, noski, apeta horrekin idatzitakorik, guk dakigula.

i) *Kaletartuago bizibidez* eta ogibidez Basarri... Artzai-nekazal giroan errotuago bizitza-mailan Uztapide.

h) *Musikaz* jantzia ezezik sortzailea ere bai Basarri... Uztapidek eskuarki jokatzen digu honetan.

5. *Azkena*

Gaurko omenaldi hau eskaintzerakoan Gipuzkoako Aldundiak aitormen bat egin dio ahozko literaturari, ospea eman bertsolaritzari, ohore egin bapateko bertsogintzari, eta esker ona azaldu gerrondoan hemen sortu zen bikote ahantzezinari, Uztapide eta Basarriri.

Amaierako erizpide bat ematerakoan, Uztapideri buruz, gorputzez aldendu zitzaigunez, bertsolarien aipamenak jasoko ditut: «Maisurik haundina» (Amuriza), «bertsolaririk osona» (Xalbador), «Aren izena, aurrerantz ere, gogoan izango da gure izkuntzak arnasik duen arteraiñokoan» (Basarri).

Eta oraindik gurekin dugun, eta Jainkoak hala nahi dezala luzaro, Basarriri buruz, ez dut bertsolarien eritzirik aipatuko neurea baizik: «bertsolaririk gararntzitsuena, noski, XX. gizaldiko bertsolaritzaren historian».

Zorionak omendueri, zorionak bertsozale guztiei!

DEABRUA EUSKARAZ MINTZO ZITZAIEN IRUNDARREI HONDARRIBIAN

Juan San Martín

Argitara berri den *Piarres Lafitte, bere bizia* deritzan biografi liburuaren 19. orrialdean, egile den Xipri Arbelbidek gogoratzen digu P. Lafitte apaizgai zelarik ez zekiela euskaraz eta ikasteko asmorik ere ez, irakasle zuen Jean Saint-Pierrek bultzarazi ez balu. Gure hizkuntza ikasteko lehen proposamena egin zionean, honela ihardetsi omen zion: «Nola nahi duzu? Diotenaz, deabrua Euskal Herrira etorri zen batez, «bai» eta «ez» baizik ez zuen ikasi eta oraino, Santizpirituko zubiaren beste aldera gabe biak nahasten zituen».

Euskaldunon artean biraorik eta lizunkeriarik ezaren ustea horregatik ote da? Deabrukerian sinestean, dena da posible.

Rodney Gallop eta Philippe Veyrin-ek beren liburuetan diotenez, zazpi urtez aritu zen deabrua euskara ikasi nahirik eta, Piarres Lafittek apaizgai zenean esan bezala, Baionatik aldetzean, Santizpirituko zubia (pont Saint-Esprit) igarotzeaz ahaztu zitzaizkion ikasi zituen bi hitzak: «bai» eta «ez». R. M. Azkuek esaera hori jaso zuen Donibane-Garazin, *Euskalerriaren Yakintza* deritzan obraren lehen liburuan dakarrenez (ikus, 359-360. orrialdean).

Mitoak sortzen direlarik beren eragina izaten dute gizartean; baina deabruaren mito hori arrazoizkoa baldin bada, gaur egun Gipuzkoako hiririk erdaldunena den Irun historiaren garai batean Hondarribia bera baino euskaldunagoa zela jakiteak deusezten du. Agian, eta hau ez da hain guza zaila

ziurtatzea, XVII. mendearen haseran hondarribiarrak gaskoinez gehiago mintzatzen ziren eta irundarrak euskaratik kanpora apenez beste ezer ulertzen zuten. Hara hor hondarribiarrak deabrua bera baino azkarragoak.

Hizkuntzak ikasteko gogoa piztu eta giroan sartzea bezalakorik ez dago. Hara zer egin zuen Aragoiko pareja harek, frantsesa ikastera Uztaritzera joan, ezer gertatuko balitzaie ere mugatik hurbil, eta frantsesa menperatu zutela uste zutenean Bordel aldera abiatu. A! baina hura izan zen ustekabea: inorekin ulertu ezin. Zeren frantsesa ikasten zutelakoan euskara ikasi bai zuten. Hara hor benetako deabrukeria! Irundarrei animoa pizteko zerbituko ote du?

Izan ere, Pierre Lancre-rentzat deabruen hizkuntza ulerkaitza zen euskara. Harentzat, 1609an, gaskoina zen normala. Baina, askok ez baldin badakite ere, aspaditik, agian Erdi Arotik edo, gaskoina zen Gipuzkoako ifar-ekaldearen itsas-hegalean kokaturik dauden hirietako hizkuntzetan nagusiki, Donostiatik Hondarribiraino behinik-pehin. Euskaraz baino aisago mintzatzen ziren gaskoinez, Serapio Mujikak iker-lanez agertu zizkigun ageri zaharren arabera. Karmelo Etxegarairen omenezko liburua ikusi baizik ez dago [1]. Han bertan adibidetzat ematen digu akelarre bateko gertakariaren berri. Sorginkeriari buruzko epaiketaren paper zaharretan aurkitu zuen, 1611. urtean, Isabel Garcia hamairu urteko neskato zen lekuko Jaizkibel mendian egin zen akelarre batena, zeinetan hiru adardun deabrua agertu zitzaien [2]. Neskatoak bere adierazpenetan esan zuenez, deabrua gaskoinez mintzo zitzaien Donostia eta Pasaiakoei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoei.

Geroztik ordea, garai hartan deabrukerian eroriak ziren Donostia, Pasaia eta Hondarribia berreuskalduntzea ez da izan ezinezkoa. Itxaropenez hori opa diegu gaurko irundarrei ere; eta esan beharrik ez dago, bereziki, beren buruak abertzaletzat dituztenei.

---

1. Serapio Múgica, «Los Gascones en Guipúzcoa», *Homenaje a Carmelo de Echegaray*. Donostia, 1928. Hemen jasotzen dugunaren aipamena 11. orrialdean dator.

2. Arestian aipatu dugun Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* (Madrid, 1935) I. liburuaren 359. orrialdean, Jaizkibelen bezala, hiru adardun deabrua agertzen omen zen Arratiako Diman.

OLERKIAK

ziurtatzea, XVII. mendearen haseran hondarribiarrak gaskoinez gehiago mintzatzen ziren eta irundarrak euskaratik kanpora apenez beste ezer ulertzen zuten. Hara hor hondarribiarrak deabrua bera baino azkarragoak.

Hizkuntzak ikasteko gogoa piztu eta giroan sartzea bezalakorik ez dago. Hara zer egin zuen Aragoiko pareja harek, frantsesa ikastera Uztaritzera joan, ezer gertatuko balitzaie ere mugatik hurbil, eta frantsesa menperatu zutela uste zutenean Bordel aldera abiatu. A! baina hura izan zen ustekabea: inorekin ulertu ezin. Zeren frantsesa ikasten zutelakoan euskara ikasi bai zuten. Hara hor benetako deabrukeria! Irundarrei animoa pizteko zerbituko ote du?

Izan ere, Pierre Lancre-rentzat deabruen hizkuntza ulerkaitza zen euskara. Harentzat, 1609an, gaskoina zen normala. Baina, askok ez baldin badakite ere, aspaditik, agian Erdi Arotik edo, gaskoina zen Gipuzkoako ifar-ekaldearen itsas-begalean kokaturik dauden hirietako hizkuntzetan nagusiki. Donostiatik Hondarribiraino behinik-pehin. Euskaraz baino aisago mintzatzen ziren gaskoinez, Serapio Mujikak iker-lanez agertu [illegible] arabera. Karmelo Etxegarairen omenezko liburua ikusi baizik ez dago[1]. Han bertan adibidetzat ematen digu akelarre bateko gertakariaren berri. Sorginkeriari buruzko epaiketaren paper zaharretan aurkitu zuen, 1611. urtean, Isabel Garcia hamairu urteko neskato zen lekuko Jaizkibel mendian egin zen akelarre batena, zeinetan hiru adardun deabrua agertu zitzaien[2]. Neskatoak bere adierazpenetan esan zuenez, deabrua gaskoinez mintzo zitzaien Donostia eta Pasaiakoei, eta euskaraz Irun eta Hendaiakoei.

Geroztik ordea, garai hartan deabrukerian eroriak ziren Donostia, Pasaia eta Hondarribia berreuskalduntzea ez da izan ezinezkoa. Itxaropenez hori opa diegu gaurko irundarrei ere; eta esan beharrik ez dago, bereziki, beren buruak abertzaletzat dituztenei.

---

1. Serapio Múgica, «Los Gascones en Guipúzcoa», *Homenaje a Carmelo de Echegaray*, Donostia, 1928. Hemen jasotzen dugunaren aipamena 11. orrialdean dator.

2. Arestian aipatu dugun Azkueren *Euskalerriaren Yakintza* (Madrid, 1935) I. liburuaren 359. orrialdean. Jaizkibelen bezala, hiru adardun deabrua agertzen omen zen Arratiako Diman.

EGIN EZPAHITU NIRE NAHIA

G. Aresti

Hasnasa hartzen duen guztitik berezten gaituen ezagugarri haundia izanen oteda gure deskontentua?

(M. Maeterlinek: Xinhaurrien bizitzea).

Totorika'tar Andoniri

Baldin gure egunon iraungiteon
etsaieri ezpadrauegu egin on,
arerioekin ezpagaude egon
kito, ezkarate herioz adinon.

Barka gaitzak gure zorrez; gure semer
barka gaitzatek. Eztadila ezer
gera hobenetik: hau dugu aloger
oinhazeak gaitik... emari halaber.

Zer kausituko dugu lur gibelean?
Zer aurkituko dugu haren hotzean?
Zer dateke geldirik ilhunenean?
eri, hil, ehortz, ustel gaitezenean?

Neurtzen duan neurriaz haizate neurtu.
Lotzen duan kateaz haizate lotu.
Maite duan haurrak ezuke debeiu.
Hautsirik taketa eztukek makulu.

Ahantz dezakegu eraman duguna:
mingots lakar zena orain da biguna:
indartsutu zalhuin, erbala zurruna.
Orain badugu gure primutasuna!

Baotedut orain leheneko minik?
Galtzedunek eztukete gudakinik.
Atsedenean nihoiz eztago grinik.
Arztoek eztute iaten moredinik.

Eta gure egunen izagitean,
basatzatik, kiratstatik garenean
irten ilki; pitz, itzar gaitezenean
Iainkoaren ulerrezko egotean,

hartuko dugu betiko sosegua,
gure izanen da begiratugua,
eztira izanen ura eta sua.
Izanen naizate benedikatua!

Eskatzen gatzaizkio Iaungoikoari
bitartean lizakigun aintzindari,
lemakigun iragateko bidari.
Uda eta negu gara eske hari.

Goizetik lanean abiatu dena
baizen eztate kitatuko: lehena
da lehen hasi dena, eta harena
izanen da ordaintzerik gehiena.

Menditiko minzaldia zen bukatu
—Iesusen hitz oro etziren izkribu[1]—
berbaokin: «Igurikitzen ausartu
eztutenak betiko dira dohatsu».

---

1. *Bada, oraino badire bertze hainitz gauza ere Iesusek eginak: zeinak eskriba baleitez bat banazka, ez baitut uste munduak berak ere iduk ahal litzazkeela eskribatzeko litazkeen liburuak. (Ioanesen Euangelioan, XXI, 25).*

Eta odoltearen oihal gorriak
Moskauko karriketan ziren ilkiak.
«Erhatzu, erhatzu deungeak, gaizkiak:
bizi bite guti, baina hautetsiak!».

Anhitz dugu deitu, hautatu gutixe.
Zertarakotz egin duzu horrenberze?
Erban itzazu higuindutakoak, leze
iratutzailetan eztitezen erre.

Ustel, kirats nadinean, Ugazaba, egik
Argia eztakidala itzalirik.
Iaikiko naiza nire katabutatik?
Barka gaitzak heure Bihotz beragaitik!

LUZIFER

Josu Baez

Neke,
lan eta
Nola?
Nola arraio?

Nolabait,
nolabait azaldu.

Apurtu!
Zer?
Galderak?
Ez al duk aditzen?
Itsua,
madarikatua.

Ikusiezinak,
gezurrak,
biraoak,
hireak dituk.

Ene Jainkoa,
non zaude?

Errua,
alua,
hi haiz galdua,
Luzifer!
Hainbat aldiz ikusi haut...
Bai,
ustela,
Ahi ximela!

Ah!
amorrua,
hilko haut!
Aurki!
lastoa,
etsaia,
arima galdua,
simaurra,
ijitua,
lokatza.

Kontuz!
argi!
zutik negok!
Ikusten al nauk!
Madarikatua!

Besteren ezbeharrak
pozten hauna.
Nagia eta okerra,
lotsarik ez dukana,
besteek zapaltzen ditukana,
adar oker,
sasia,
gaizto eta sugarra.

Hi erreko haut,
pizti ziztrina!
Makala!
Gaiztakeri eranskorra,
ximua,
belar txar,
uztago,
elbarria,
tripamiña,
osasun galdua,
errea eta etsia,
mindua.

Gatzagi faltako,
esne ozpindua,
gaizki hazia,
buru gabea.

Ah! hau nazka!
izkuta hadi,
usaina haundia,
lotsagarria,
Judas,
basamortu ikaragarria!

Luzifer,
ez al dituk haintzakotzat har?
hiretzat denak,
ez beste inorentzat.

Ah!
amorrua,
hilko haut!
Aurki!
lastoa,
etsaia,
arima galdua!
simaurra,
ijitua,
lokatza.

Kontuz!
argi!
zutik negok!
Ikusten al nauk!
Madarikatua!

Besteren ezbeh
pozten hauen
Nagia eta okerra,
lotsarik ez dukana,
besteek zapaltzen ditukana,
adar oker,
sasia,
gaizto eta sugarra.

Hi erreko haut,
pizti ziztrina!
Makala!
Gaiztakeri eranskorra,
ximua,
belar txar,
uztago,
elbarria,
tripamiña,
osasun galdua,
errea eta etsia,
mindua.

ZEZEN LARRUA
(Jarraipena)

(S. Espriu-ren LA PELL DE BRAU
Otsalarrek euskaratua)

XLVI

Batzutan beharrezko eta nahitaezkoa da
gizon bat herri bategatik hiltzea,
baina sekula ez da hil behar herri guzia
gizon bakar bategatik:
oroi zazu beti hau, Sepharad.
Egin elkarrizketarako zubi segurak
eta ahalegindu ulertzen eta preziatzen
zure semeen orotariko arrazoi eta hizkuntzak.
Euria erori dadila ziri-miri alorretara,
eta haizea igaro esku idekia bezalatsu,
leun eta ari zelai zabaletan.
Sepharad bizi bedi eternitatez
ordenaz eta bakez, lanean,
hain zaila den merezimenduzko
libertatean.

XLVII

Legean eta paktuan
beti gordeko duzula,
elkarrizketa gogorrean
zure mailakoekin,
eraikiz jauretxea geldiro
zure lanez,
jaso etxe berria
orubean
izenez deitzen diozunean
libertatea.

Eta zu, oraingo egunetako gizon
Sepharad-en,
ez zazula gehiago bizi heriotzarik
holdarkerizko bakez,
arriska zaite salbaltzera
zure gaitzetik.
Nabiga itzazuz itsas ekaitzak,
tximist diztirak argirazirik.
Babes-portutik urruti
esperantzaren uretan
garbituko duzu
odol guzia
hain zapaldua den
zezen larru horrena.

XLVIII

Bizi zara eta ez zenduke nahi arriskuan sentitzerik:
hain agindua seinalaturik arkitzeaz beldurrez
itsas libre zabaletik doan bidetik
heriotzaren ibar seguru hartara.
«Bizia» esan duzu, «arriskua» esan duzu,
eta hori errepikatzen zenuen alperrik hitz berdinekin.
Ez entzun oraindik hiru burudun zakurraren zaingarik,
gaueko kantarik, zikiratuen barrerik
inoiz ezer izaterik opa ez dizutenez
zeu zaren zu, zu soilik, bakarti
gizon —beste gizonik gabe— zure egiaz.
Pentsa, lan, borroka eta sufritu Sepharad-egatik,
euri eta bisuts pean, tximistaren itsas alaian.
Zeren beti izango duzu arriskutik ihes egiteko aukera
eta aurtzaka ziloari irabazi portuko tristura.

XLIX

Utz zikiratuen koipea eragiten barre antzuetatik
eta gelarazi nekatzen zaituenean, ukabila itxirik.
Zeren, zu gizona zara, gauza guzien neurri zaharra,
eta nekez bila zezake goragoko duintasunik
begiek so eginaz konprenitzen duten munduan.
Etsipenduko zaituala, zer gaitz ez dute jasango,
ontzat ematen badituzu denbora eta heriotza eta zerbitzu
ohorea, betieroko lege jatorren aginduak?
Lausengu arbuiagarriz, sariz eta irabaziz,
lan egin zazu ahaleginez Sepharad izan dadin
beti jaun gorena, inoiz ere ez ikaraturik menperatua.
Eta zure gauaren ataurrera iristen zeranean,
itzultzerik ez duen bidea bukatzean,
honako hau soilik esaten jakin dezazun: «Eskerrak bizi-
[tzearren».

L

Arriskua zabalki itsaibiliaz,
begiek aurkitzen jakin dutenean
ekaitz barnean baretasun handia
itsasoaren isilpean, eta bidea idekitzen diogu ontziari
arriskuaren azken uretatik,
jadanik ez da tristea
gure itzuleraren portu
baketsua
lortzea gauaren sarreran.
Eta gero, lehor maitatuan, iristen gara
hautsez bihotzean erroturik hazten den
arbolara arte
gauza guztien azkenez,
eta bidea amaitzen dugu.

KONTU KONTARI

L

Arriskua zabalki itsaibiliaz,
begiek aurkitzen jakin dutenean
ekaitz barnean baretasun handia
itsasoaren isilpean, eta bidea idekitzen diogu ontziari
arriskuaren azken uretatik,
jadanik ez da tristea
gure itzuleraren portu
baketsua
lortzea gauaren sarreran.
Eta gero, lehor maitatuan, iristen gara
hautsez bihotzeraino
arbolara arte
gauza guztien ezkenez,
eta bidea amaitzen dugu.

KONTU-KONTARI

URKATUAREN OINETARA

Aresti S. Gabriel

> Eta hura, gaixtakeriaren saritik egin izan da landa baten iabe, eta urkaturik bere burua, lehertu da erditik eta barreiatu dira haren hertzeak.
>
> *(Apostoluen Egintzak,* I, 18)

Biok zihoazen tarrantean; eguzki erortunaren printz, izpi argi ederrazko eslaiak, leihatila hitstu, zikindu, ezgardenetako beira ilhunetarik sartzen ziren orga barrenera, betetzen zutela oren hartako (benetan tragedizkoa hiltzera kondemnatuari azken agurra eta hitz eskerronezko sekulakoa emaitera ihoaten den orena) malenkonia, eta kadenkeria, arrosa agortutako, eta erdarazko roman sentimentalezko urrinaz. Eten gabe, orgaren lasterkeria eta arin-nahi ondoan bailebilen, gibelat-izpilua eta irioilearen artean (zigarro bat zuena ezpainetarik dingilizka amataturik) hilikatzen zen eguzki-printz bat, dolatzen zituela aize geldikorretan, ekurutan, kexagabekotan, hautsezko pizkaño dantzariak, hegaldariak iherlariak.

Biok zihoazen tarrantean: neskatila adats-beilegi eta begi-belza, eta morroina bere senhargaia. Bidezabala, izenari ohore guti emaitekotz, mehar zen, eta hertsi. Bere luzakeriak, bere artezkeriak —hain zuzena zen! (hartan ibilten zeino etziren gogoratzen ukondoak, belhaunak)—, plaun izugarri hartan hezurruts dirdiratsuen etzauntzarako egina bezala, ezpaitzegoen berze biderik zuen gurutzerik gabekeriak, ertzean zuen zuhaitz adar-bilutseko lerro akabakaitzak, meharrago-

tzen zuten. Etzen plazent bide hartarik tarrantez ihoatea uderdiko arratsalde bero hartan. Han bat sentitzen zen nola xinhaurri bat xinhaurtegitik hurrun dela, bihi, garaun, arrazakide gabe, nola erle bat ilhargirako hegaldatzean, akararik, neholako lorerik eztuela bidearen itogarriari pausu baten, atseden baten ebasteko.

Osteko iar-lekuan neskatila artega, ekurugaitz zegoen. Urduri okertzen zituen eskuak bata berzearekin, iraulten zuen ezkon-mezuzko elheztuna atzapar inguruan. Bere paparra harrotzen eta apaltzen zen, harasaren neurrian, arintki, harea-erloiuaren erortea baino arintkiago. Ezpainak, horzen perlatze gainean bustitzen zituen moment bakoitzean. Bere begi belzen misteriotik argitzen ziren ulertzeko errax etziren txinpart batzuk. Gutiziaren haragitzea zirudien. Bere tankera osoak zirudien garraisi egiten zuela, eta oihu, eta deiadar: «Arinago, leher-eraz ezak tarrant zahar honetako motorra, baina ihoa desira baino arinkiago, xist-mistaren memorioa baino».

Berzea berriz bere zigarro amatatuaren kinoan, usain nardagarrian, trankil, kexagaitz, izugaitz, andregaiaren artegakeriaren kausa ulertzen etzuelakoan, baina hala ere eztio desenkusarik haren desiraren betetzeari iminten. Beretzat etzen errax, iheri zebilen bi agoaie artean hasnasaren ez galtzea.

Zeren poeta erhaile, kriminalaren urkamendira zihoazin. Bere poema guztiak neskatilari eskeini zizkion poetarena. Eta neskatilak, behin oraindino ikusi nahi zuen, Oraindino orhoitzen zituen haren adiskidearen hitzak: «Maitasunean sinhesten dugunok, eztugu nihoiz ere andregairik erdiesten». Orain neskatilak etzekien ea lotu otezaion legegizonari poetaren hitzak gaitik, edo haiek bere ezkontza-mezuaz eginak izan oteziren.

Eta horz artean erdi-istuan dagoela nobiaren igurikite-luzeari begira zion.

«Eztute urkatuko. Eztut nahi horrelakorik. Ikusiko dut garzela-nagusia. Ikusiko dut indulto-egilea. Eta erranen diet:

Polit nauzue, eder nauzue, asko gizonek gutiziatzen eta desiratzen nau. Eta erdiets eta goza nenzakezue, baina kondizino, baldintza batekin: iminiko duzue libertatean poeta, arinduko duzue bere lepotik pisatzen den heriotzerako kondemnazinoa».

Berzeak etzuen ezer ere erraiten.

Azkenik, gezurrik badirudi ere, xedea irabazi zuten, heldu ziren bideko azken pontura. Haien aurrean presundegiko harmore gorak ailtxatzen ziren, zerua sapai nahitan bezala. Fraideen herstegia, monasterioa zirudien, zeren ezpaitzen soldadurik agertzen. Garzelako ateak zabalik zeuden, sartzera eskeinte baten bezala. Tarrantetik iaustean neska-mutilak dudazko extakit zer egin baten gelditu ziren. Azkenik iohan ziren atalera eta hartarik presundegiko patiora sartu ziren. Zoko ilhun baten zakur nekatu batek bere loa egiten zuen, bere aintzinean zegoen szenako trageditasunaren ez-iakitean. Ezen patio erdian urkamendia ailtxatzen zen, gizonaren iustitziatako orhoitgailu baten arauera. Eta hartan soka baten dingilizka, mihina kakotseragino, begitartea more, zegoen olerkaria, iraulten zela aizearen neurrian beleta bat bezala: Ipar, buelt-erdi, Hegoi, gero mendabalera begitartea geroxeago galgoiera.

Neskatilaren aurpegia zuri imini zen, gaztanberaren kolorez, odol-xirrist bat ere gabe. Bazirudien zentzuna galduko zuela. Baina oputs gogor batez eztarrian egin izan zakon korapiloa laxatu zuen eta urkamendira ihoan zen, garraisi egiten zuela:

«Baldin hire mihinak estalten badrauzkik hire ezpainak, hire praketako albeniari behintzat eginen diraukotak pot».

Eta pensatzen:

«Non dago bertuteen, mirakuiluen, sendagailen egilea? Iauna, edozer gauza ahal daidikezuna, pitz diezadazula, eta zure amorantea eginen naiz, eskatuko natzaio monxa-abatesari, egin diezadala mandatua zure aintzinean, eta plazer haundia emanen dizut: baina egizu ezlegozin nire poetaren begiak zuritan, egiten draukotela so niniek garunari. Zeren

poetek egiten dituzten gauzek eztute merezi gaztigurik, irriparre bat baizen ez».

Bitartean, belhauriko iarri zen URKATUAREN OINETARA, eta haren kaderak besarkatu zituen: negarrean permatu zen. Izugarrikiro enkoniaturik, malenkoniaturik. Poeta urkatzen duen sokak etzuela sostengatzen bi gorputzen pisua eta eten zen erditik. Urkatua erori zen, estalten zuela bere gorputzarekin otoitzgile, ainengilearena. Honen gonak agirian utzi zituen belhaunak, eta hautan erori egin zen olerkariaren mihin morea, linburkeriazko, luiuriazko prometatze nausagarri ez-betetzeko batez. Neskatilaren beldurra etzedukan gorputzak zeren tipiegi baitzuen horrelako gauza haundien edukitzekotz. Azkenik, beti bat, behar da gizonaren ausartgoa, kemena, bihotz-haunditasuna, emakumearen zorokerieri xede baten, marra baten ezartekotz. Ihoan zen giza-pilo ezain hartara, eta esku azkarrez iaso zuen urkatuaren gorputza, aurtigi alde batera. Iaiki zen neskatila; orduen berzeak zaflada bat damaio begitartean, eta egin zion odol.

«Gihoazen hemendik», mutilak.

«Bai, laztana», neskatilak.

Aterantz zuzendu ziren. Eta mendi hurrun gibelean eguzkia, oharrik egin gabe, ezkutatu izan zen.

GRANITO PUSKA

Feliciano Peláez Arregi

—Benetan beti miretsi izan ditudala gora begiratzen duten artzai jakintsuak, eta amona Prantxiska. Baita eguraldiaren gizonak. Ala hau bestearen aurretik.

Igande eguzkitsu batez arratsaldeko bostetan jaio nintzen. Farrez eta irribarrez munduari eguzkia.

Ekix gazte apala zen, hertsatua, atzera botata. Agerian hala zirudien behintzat, baina bere zain hertsi eta mugatuetatik zebilen odol gorri-gorri lodi usu indartsua korrika, oso korrika eta bueltaka zebilen Romara bakarrik daraman bi bideetako autopistan. Eroa bezala irtenbiderik ezin aurki gorputzaren guztia betetzen zuen zabaltzen zen airnena bezala bere indarkerian arintasunean loditasunean sarritasunean usutasunean energiaz bateta bizi-bizi zen, azkar.

Baina norabiderik eza... ez bait zuen nora jo esan ziokeen adimen ahalmentsu eta miragarritsurik.

Zerebru ezkuntuaren zati txokoan txikia ezik; hura zen basamortu, ideien ideologiaren errealitate objektibo ez den existitzen kontrajarzailea, disakordiotzailea. Hor, oztopo borobil iraganezina, konzentrazio zelai hertsia zuen odolak, ezin zen bada pasa. Eta hotza zen hor nagusi, izotzak egiten

zuen den-dena zuri; ezerezko txuri, txuri, txuri, esperantzarik gabeko, maitasun, berorik, etorkizunik gabeko kalean, espaloi erdian botata bihotzak hunkitu nahiean dabilen eskalea bezala edo... prejuizioz inguratutako, ormatutako, mugatutako irla zen kai zaharrean. Baina txoko hori zen guztiaren agintari, potrorik gabeko bizitza mugatu eta inaktibora bultzatzen, agintzen zuen zati txiki baina nagusia.

Eta Ekix disakordio izugarrian bizi zen. Ezinegon etengabe jasangaitzean, zereginbai baina ezean. Gelako lehiotik egunak iluntze eta argitzearen eguzkiaren betiko ibilbide neurtzaile makalean, Ekixen muturretan, begi bistan pasatzen ziren. Ezin zituen, ez zekien bere indar izugarriak non bota. Tentsiozko ordu laurdenetan guztiak etortzen zitzaizkion bere muskuloetara eta ezin euki amorru sinesgaitzaz sekulako astakeriak egiten zituen etxearen barrenean erabat mugatuta eta hertsia ia espetxeratuta. Irrika, desio izugarria zuen bizi zirraragarri, kitzikagarri mugiturako. Baina txepela ulia zen erabat hortarako zer egin jakinaren gainean ez zen ausartzen. Azkeneko momentuan atzera botatzen zen eta orduan bere bihotza inoiz baino tristeago sentitzen zen, kasa hestu batetan sartuta hertsita, ezin atera, eta bera. Kaletatik nora ezean zebilen, inor ezagunik aurkitzeko beldurrez bere etxe inguruko lekuetan soilik, beti kale berdinetarik bueltaka, ibilbidea egina zuen eta segituan bueltzatzen zen etxera larritasun min handiarekin zintzurrean, zentzugabeko bola izugarria. Ez bait zuen nahi hori inorrek jakitea, inolaz ere! Karetea, disimuloa egiten jarraitu behar zuen. Eskolan, mementu bakarretan, irekia lagun askotakoa, oso aktiboa ageri zen. Ideala besteen begietan, gizartearen gizadi gaztearen ideala, aste burutan mozkortzen dena. Eta ezin zion utzi, ezin zuen bere imajina galdu, ideala ageri behar zuen. Eta etxean itotzen zenean ezin gehiago kalera irten bakar-bakarrik; bestalde, etxekoentzat ere itxura egiteko, eta norbait kontsola lagun benetakoa izateko, beharrez esperantzaz zebilen baina inoiz ez inor ezagunik, halako norbait ikustean korrika eskapo egiten zuen ikusia izan baino lehen beste kaletik.

—Zer zabiltz-Eta erantzuna ematea jakingo ez zuela bel-

durrez, lotsaz lotsa izugarriaz, hersten zen berriro. Eta bere burua independientea zela etsitzen saiatzen zen, holan aktuatzen, besteei jakin arazten. Baina ezin, guztiz menpekoa zen, menpekoena besteen berotasunagan. «Gizona, animali soziala». Eta izugarri gorrotatzen zuen bere egoera. Ezin zuen gehiago jasan disakordio zapaltzailea. —Gizagaixoa!

Ekix betetzen ez ziren ametsetan bizi zen, ilusioz bakarrik bizi zen. Egunero-egunero berdin-berdin jeikitzen zen goizetan, itxaropenez beteta: —Zer gauza liluragarri gertatuko ote gaur? —Eta inoiz, inoiz ez zuen galtzen itxaropen izugarri hori bere bizi mardul, edo huts, betegarri izutian, ezta bere bizitzako sekula santan galduko ere. —Bai zera! jarraitzeko arrazoi bakarra zuen eta...

Baina berak ez zuen bere irrikak bete zitezen ezer egiten, soil-solik haiek beregan gerta zitezela nahi eta itxaroten zuen. Beno, Jaungoikoak eman zion jasankortasun guztiaz, baina pairant izate hori ez zen bada izango nik uste betirako.

HALA BADA-BADA BEHIN BATEAN EGIN ZUEN ETXETIK ESKAPO.

Negu beltzenean edo zurienean, hotza zen nagusi, aktibotasunera bultzatzen zizun hotza, baina batera lokartu, irudimena paisai zurietan galtzera bultzatu, denbora poetikoa.

Alaitasuna, baikortasuna, ilargiratzea automatikoa zen kalera ateratzean, zentzuek osotasun izugarria nabaritzen zutelarik. Goizetan ez ziren guztiz esnatzen nahiz kafe indartsuenarekin ere, egun guztian.

Pentsamenduen edo sentimenduen edo ametsen edo... Nagusitasun horretan aktibotasuna ametsetan eratu zen. Eta egunak norabide konkreturik gabe infinitoan hurruntzen ziren margo guztietako ardi txuri saltari eta lasai baina guztiz idealizatutakoak bezala. Eta azkenik asteburua heldu zen, ezinegon izugarriak egin zion eraso. —Benetan zela txoratzekoa! Sufrimenduz.

—Igande arratsalde geldoa telebistak zatikatua astiro-astiro baino azkarrago aurrera doa. Atseden eta lasaitasunerako edo alaitasun eta parrandarako izan behar zukeena ezin-

egon meneratzaile harrigarrian bihurtu da. Eta benetan leloa, erabat; zintzilikatua dagoela aitortuz. (Lagunek esaten duten bezala. Kontradikzio galanta!) Aktibidadera bultzatzen duen ezinegonak inaktibidade lehergarri jasangaitza ematen du fruitu bezala... AAAAAAAAAGGR!!!!!—.

Minezko amorraziaz oihu gor lehor eta errabiatsua.

Hor, gela lehiodunean sartuta ohe eskergan etzanda zapaila begira... zapailan dagoen lehio txuri, ametsetanko zuritik at, gora, ... begira. Agerian normal dirudi baina barrendik su, odolezko su energetikoa eta erretzailea da nagusi, kanporaezina, baina ez da horregatik suntsitzen baizik bizitzen erraiak karruskatzen, deusezten, belzten guztia. Disakordian ezinegona handitzen eta handitzen doa irtenbiderik gabe, puxika bezala. Explikagaitza da benetan eta zentzugabeko eta hitzetan deskribaezina, zuripen bat bezala. KLIMAX JASANGAITZAAAAAAaaa!

Eta Kanpoan agian aspertzen hasten zion elurra, elurra, elurra.

Elurra mendian
Elurra mendian
Dena zuri-zuri
Dena zuri-zuri
Elurra mendian
Elurra mendian
Dena zuri-zuri eta polit.....

Drogatuaren, mozkorraren
kordokaduran, hegan
bidai liluratuan.

ETA AZKENIK, LEHERTU ZEN.

Presioak egin zuen irabazi. Ekixek bi besoak bortizki kanporuntz irekiz egin zuen leherketaren irudi. Ukabil hertsiaren tamainuko granito puska borobil baina pikortsua puskatu, lehertu zen bat-batean, beltz iruditen barrengo erraiak «txau» gorriz margotuz, inguruko alde guztietako horma lau eta ez lauen baina bai leunen guzti guztia txipriztinduz. PUGRG! Hots motz eta lehor lehorra, basatia.

Eta agerian hondar lehor spuknikak eta harri txiki spuknikak izan beharko zirenak ikusmenerako odol gorri heze zipristinak ziren, guztia!, denbora erabilgaitz bezala hartu zuen leherketak ... guztia margotu, inguratu, hertsi edo ireki zuen margoaren hoskar, gorrarentzat harrrabotsu, 'haren arabera, horrelako bixitasun gorri-gorri indartsu eta azkenik ireki, on eskuzabal lagunkari, baina indarrik galdu gabe, 'z.

Hala ere ez zen oraindik txokotxo txiki nagusia guztiz suntsitu, zelai zati txikia edo pixka bat handiago edo txikiago irabazi zuen leherketaren bidez. Ekixen lagun jakintsua bere egoera garbi-garbi erakutsi zion nahiz inkonszienteki zeharkakoki izan. Berak honela sinetsi eta ikusi zuen nahiz eta ez jakin arrazonamendu, pentsakizun zuzena den. Baina guk ezta ezin dugu guztiz zihur jakin... halako oinarri bat guztiz beharrezko bait da edozertarako. Ala ez??

Orduan Ekixek, gordea, kanporaezinik zuen zenbait energia batera askatu eta zerbait gehiago irabaztea lortu zuen.

Eta ez banaiz explikatzen baa Ekixen askapen espirituaralen prozesuan leherketa hau ona zen, nahiz eta «El fin no justifica los medios» Dioena egi izugarri izan. Ez zen bide txarra, itxuran ez bait zion inorri kalte egiten. Edo bai, zerebruaren txokotxo independiente horri, baina hori txarra edo gaiztoa bezala kontsidera dezakegu Ekix ia deusezten zuelako, bere benetako izateko era giltzapean zuelako. Edo agian ez, beharbada txokotxo hori litzatek ebere izateko eraren oinarri. Orduan garapen pertsonal hutsa izango zen hau denborak eta egoerak eraginda!!!! Beno ba garapen hori beti hobeagora joango balitz bezala hartzen dugu, orduan prozesu delako hori ona da berez, baikortasuna (Nahiz eta nik gutxienez zenbait egoeratan ez batere garbi beriztu ona denaren eta txarra denaren artean) leherketa bezala... edo ez...

Ba, nioen bezala, Ekixek etxetik eskapo egin zuen.

Eta mendira jo zuen. Mendi zurietan pakearen bila, bere burua burutzera espiritualki, psikiko mailan, lasaitasun eta osotasun absolutuaren bila, zentzuen betetasunean. Hiriko zarata guztietatik at mendiko sinfonia liluragarrira, han goi-

ko zuritasun hotz garden baina sakon xuabe baino hotzagoan; gezurretazko bero, sarkor harkor, haizetxo fin dantzaria lasaia etsia... Lurra txuri, elurrez txuri lehen aldiz zulatua eta dastatua. Airea laino, laino itsu zuri, zuri den-dena zuri lur eta aire. Lasai ixil inoiz asmatu ez den sinfonia ederrena airean darabil, zuritasunean, haizearekin bueltaka dantzaka... Inoiz ez dena amaituko betirako ote?

Ba han etzanda egotera ametsak errealitate, ametsetan murgiltzera, berekin bakarrik nor ote den aurkitzera. Batetasun espirituala.

Eta baziohan Ekix mendira bide ezagunetik mendi ezagunenera. Eraman izan zituen lagun bi gorako bidean lagunkari, aintzindari, eztabaidari; lagun hitzak adieraz dezakeen esanahi, zentzu guzti-guztien edukitzaileak bezala. Giza limite batzuen barrenean... noski... Eta geroago... sufritzaile.

Hura izan zen egun batez beren paradisu, eskapo-toki, zoriontsu, inoiz utziko ez duzun leku, mementuan behintzat...

Baina Ekixen asmoak ez ziren beren berdinak. Haiek sakonagoak, serioagoak ziren: —Bi lagunek egun, amets soil zoragarria pasa nahi zuten soilik. Seguituan edertasun, betetasun orekatu hartaz gozatu mementuan, asetu eta eguneroko bizira bueltatu. Geroago oroipen politak gogoan izateko, itxaropen leku, ba dala bestelako mundua gogoratzeko. Elkarrizketa gai, irudimenarentzat hegoak... Baina benetako eta eguneroko hiriko errealitatean. Eta ez inoiz hango magia hartaz eramaten utzi, kontuz!! lur elur eta aire haize mendiko, bat, txuri den-dena txuri bat egiten direnean, zuri-kontuz!!; ez meneratzen utzi! —Orduan dena izango da galdua, zu meneratua. Gaztigatzen zion lagun zentzudunak: —Gaitzaren sintoma grabea, bukaeraren hurbila... Zoragarria, bake total ixila lassaia; zeru txuria hotz sumaezinezkoa, betikotasunean. Zerua. Haizearen txistu suabe zorrotz luze e luze e e ... Bukagabeko batek gidatuta gloria.

Erabat aktiboa sentitzen zen Ekix. Berotasuna, odolaren indar barbaroa, azkarra gorputz guztian zehar salto, oldarka oldartzen. Ekix espabilatzen. Eta bihotza kampora bizia bi-

zitzera gozatzera guztia bere alaitasunaz alaitzera. Taupadak kanporuntz alde guztietatik indartzen azkartzen askantzen. Ekixen bizitzaren mementu alaienak, gozatuenak, aktiboenak, askatuenak, indartsuenak, irekienak, mugituenak, bizienak... bizitzen .Lore guztiak ireki zitzaizkion batera, egin zen biztu; eguzkiari irabaziz bero eta argi izugarria askatzen zuen, eta egin zuen mundu guztiko izotz eta elur guztiak segituan urtu eta hiriak eta irlak eta kontinenteak segundu milesimetan gasa bihurtu, eta H20 konposatua unibertso infinito guztian zabaldu mundua lehor utziaz. Segundu eskas batean dena, baina hurrengo segunduan natura bizi-bizienaren superbizipen instintoak egin zuen oraindik indar handiagoz orekatu eguzki desafiatu eta mementuan irabaziaren laguntzaz; euria elurra hotza milesimetan azkar bueltatu, ura, H20 lurrataz berriz nagusitu. Eta Ekixi bere indar extranormal izugarria kendu.

Baina Ekix orduan oraindik energiaz ilusioz alaitasunaz beteago egin zuen goruntz salto, eta inguruko mendi guztiak baino garaiago heldu eta gorago eta gorago. Guztiak iraindu zituen erabat, eta horrela egin ziren lehenengo gorritu burua markurtuz, beren haunditasun, bakoitza bere lur manupekoan erregentasun'a erabat galdu. Eta ondoren bigundu eta urtu poliki poliki baina ahal duen azkarren mole izugarria eta txikitu eta ezkutatu, suntsitu lurraren barrenean zarata haundi gor etsiaz eta ahal duen ixilen, lotsaz desagertu, lurra lau bihurtu leun suabe dirudienezko gogortasunean botere nagusi eta bakarraren menpean inolako altxamendu gutizitiarik gabe... Ekix salto egin ondoren airean leku garai garai hartan geldi geldi gelditu bait zen, eta lurrak bere orbita berarekiko errotatze higiduran mendi, lurralde guztiak izan ziren irainduta lotsatuta eta mendiak suntsituta, lurra lauta; bai Euskalerriko Hiru Errege Maila baita Everest haundiosoa ere. Aldian Ekix errege gisa airean altu garai geldi besoak gurutzatuta, zutik argituta balarri batetik besterainoko irrifar totala eta harroa. Eta lurrak buelta bat eman ondoren, mendi guztiak gainditu zituenean lur guztiz borobil lau perfektoa bilarreko bola meneratura jeitsi zen, eta zenbait milesimetan errege absolutua sentitu zen. Baina segituan lur

barrena gunea, erdiak erreazkionatu egin zuen, erabateko altxamendu izugarria prestatu; presio izugarria egiten zion lurraren lautze eta txikitze horrek eta ezin zituen bere indarrak eutsi kanporuntz, orduan dena lehertzeko zorian zegoen baina bere superbizipen instintoak orain ere mendiak konbentzitu zituen kanpora ateratzeko, ez etsitzeko, errege jarraitzen zirela izaten, garaien, haundien sendoen errealitatearen sinbolo hilgaitz. Hango hura pailaso hutsa zela eta ez zuela inungo eraginik ezta eskubiderik, ez zituela oraindik gainditu, beren esku zegoela eta gainera leherketarekin mehatxutu zien. Orduan mendiek handiak bezain inozoak, izateko era ahulekoak baina batera azkarrak bizkorrak zorrotzak eta errege sendo lasai haundioso desafiatzaileek erabat konbentzituta altxamendua egin zuten; berriz ere txintxoi eta garanez bete zuten ludia, «Plop» Puxika zimurtu pegatu eta adardun baten haizatze bat-batekoa... eta guzti hau segundu bitan, geure neurrian guretzat zuentzat ulertzeko. Beste denbora neurri motelagoa erabil izan bait zuten bi gertakariek, beste leku bateko edo leku berean, ispilu kontrajarrien imajinen azken gelan...

Ekix bera ere nik uste ez zela konturatu. Ni bakarrik nere begi poetiko ia omniboteretsuaren bitartez, edo «ia»'rik gabe...!!!

Gure gorputz eta zerebruaren barrenean berez botere izugarriak bait dauzkagu norbait noizbait eriden ditzan, dirudienez. Baina afirmazio hau ere beti giza zerebru bategatik asmatua, pentsatua, intuitua, giza limiteen barruan frogatua. Ez bait daukagu beste biderik, nahiz tontor garaienetara heldu hor barrengoa da bakarrik, hor bakarrik da esistitzen jakinduria guztia. Eta hau ere nere zerebru miragarritsuak esaten ditenez, leku edo konklusio berdinera heltzen gara... ... Hara beste zirkunferentzia!. Edo nik uste bakarra dela zirkunferentzia arazo, pentsakizun, galdera... guzti-guztiei erantzunez, baina erantzun hori irtenbide edo arrazoizko soluzio ez izanik. —Desesperatzekoa! Denok hastapen objektibo basiko batzuetan oinarritzen gara norberak hortik hasita bere subjektibidade propioa, ideologia, izateko era errealitatean, errealitatearen aurrean heredentziazko geneak eraginda, egoe-

ra ingurugiro sozialak erangida, behartuta zure burua auskitzen saiatu nahiz ez inoiz aurkitu, saiatu. —Baina zer ote benebenetan zurea bakarrik den hori! -ba zure izate bera soil--soilik. Eta zure izate bera faktore guzti haietaz erabat kondizionatuta dago, orduan zure egoera da, faktore guzti horien eraginaren baturaren emaitza. Ez zeralako berez eta zuk nahi duzulako sortzen, erabat kondizionatuta, zure izatearen bizitza agian idatzia edo ez du ere hainbeste lanerako merezi, gure mugimendu guztiak dute bere izatearen zergaitia, funtzioa. Eta nor ote txontxongilo guztiak mugitzen gaituen esku bene-benetan omniboteratsua? ba benetan alde batetik ni bera. Ezin bait dezaket zihurtasun osoz ezeretan sinistu. Sinismen, uste, pentsakizun guzti hauek beti ere nere buruak errotuta beste inungo bene-benetako errorik gabe, erro desegur hauen beharra bakarrik. Gure inguruko izateen zerebru mainak edo teorian gurearen berdintsu xamare ditugula ia batere, gurea ere ez dugularik ezagutzen, bere funtzionamenduaren egitea bakarrik. Soilsoilik egin dezakeguna da elkar ulertzen saiatu, erro gogoeta ikuspegi desberdin guztiz desegur horiek konpartitu, eztabaidatu, zuritu, garatu, moldatu egi desegur perfektoagoaren bila eta bila. Agian benetako egiaegi desgur perfektoagoaren bila eta bila. Agian benetako egiaren zati txikia ezagutzera ailegatuz baina ez inoiz osoa...

Bizitzaren arrazoia, helburua, utopia dute, dugu hori eta... baldinbada. Eta guzti-guzti hau ere beti giza zerebru bategatik asmatua, pentsatua, intuitua, giza limiteen barruan frogatua. Ez bait dauzkagu beste biderik, bakoitza bere hezur eta gezurretazko horma gogor hortatik ezin da atera, nahiz tontor garaienetara heldu, hor barrengoa da bakarrik, hor bakarrik da esistitzen jakinduria guztia. Eta hau ere nere giza zerebru miragarritsuak esan, adierazi ditenez logika lege, bizitzako egoera gertakizun eta faktor guztien eraginez. Zirkunferentzia! Bai, nagusi den zirkunferentzia bakarra; zirkunferentzia txiki guztiak bait dira haundia, eta ez beren batura baizik txiki bakoitza da nagusia, bere isladapena, ezer ez argitzen ez duen arrazonamendu xinpleena. Berdina, leku berean gaude milaka erlazio berdintasun eta isladapenen inguruan. Unibertsoa den sinpletasuna konplexutasun gaitz eta

zentzugabe edo oso zentzuzkoan, izugarrian bihurtzen dutenak gure begietara. Eguzkiaren inguruanko biraka, den-dena osatzen duten atomo txiki-txikienetan isladatzen delako. Eta honela unibertso guztia eta gehiago eta gehiago, eta handiago eta handiago... Infinitoa!!; Etzanda dagoen zortziko desesperatua edo despreokupatua, multijakintsua den bezala. Gauza guztien erdia, erdigune jaun omnipotentea, eta txikiago eta txikiago eta txikitxikitxikia... Ezer ia, ezer eza baina berdina ,hori da oinarria —ez dakidan ezerri seinalatu gabe—, ez desberdina. ... Koadroa margotzen margotzen duen koadroa margotzen margotzen duen koadroa margotzen margotzen duen koadroa margotzen margotzen duen koadroa margotzen margotzen duen koadroa margotzen margotzen... baina nor ote benetako lehenengo margolaria???

Infinitok dioenez ez da benetako lehenengo margolaririk, ez lehenengo ezta azkenik. Mugak ez dira esistentzen. Baina inungo mugarik, limiterik gabe ezin bizi??.. Utopia-... Utopiak ezta ez ahal dira esistitzen.

Saia gaitezen. Ezer ez da ezinezko baina den-dena da zalantzazko.

Gauez eldarnio gogorrean. Kea darit burutik.

Eta galdu naiz. Bakarrik nabilelako galdu naiz, inor ezdudalako bidea erakuts nazan; ez dudalako inor aurrean eztabaida eta oso zalantzan jar ditzan nuere roiloak, gogoeta deiturikoak. Bestela ez nintzen hain urruti helduko.

—Ekixen indarraren, Ekixen leherketaren indarraren erakusgarri bezala—.

Eta Ekix planak egiten hasi zen bere ingurua hobetzeko gizartea hobetzeko bere gogo irrika amets betegabeko guztiak bete zitezen plan azkarrak definitiboak. Ikusi zuen bide zuzena eta erabat objektiboa helburu guztientzat, zeintzuk diren zuzenak eta zeintzuk ez. Bere utopia guztientzat bideak ikusi zituen guztiz zuzenak garbiak inungo oker ezta zalantzarik gabe. Bere ingurune guztia garbi ikusi zuen baita etorkizunerako bidea. Utopiak desagertu ziren guztiz posible eta uste osoz baina inungo aurreiritzirik gabe bait ziren. Halere berea bait zen gauza guztien gainetik.

Eta planak aurrera eramaten hasi zen, bere irrika nahi amets helburu utopia guztiak aurrera eramaten zituen, atzera bota ezta geldi arazi ziokeen inungo aurreitritzi lelorik gabe... —Azpi musika arin azkar bizi indartsu zalapartatsu ireki atengabeko, motz eta errepikatu batez—. Ekix, mendi gailur zuri-zurian zutik dunbotsaren erdian zutik begi hertsiak baina guztiz irekiak eguzkia begira besoak gurutze moduan zabalik ukabilak indarrez hertsirik ahoak eta sudurrak irekita ke zuri hotza zerion arnasaren bihotzaren taupada azkarrei indartsuei errabiatsuei. Osotasun oso-osoa, zoriontasuna. Baina bakarrik zegoen. Bakarrik sentitu zen. Bakarrik eta galduta.

Hotzak egiten zion bizitu espabilatu baina energiak irauten zizkion bitartean soilik, eta agortu energiak. Agortzen ziren, zituen.. Ekix hotza sentitzen hasi zen mugimendu fisikoaren moteltzearekin gelditzearekin batera. Nekea zetorren logurea, logure izugarria sartu zitzaion. Ekix txoko batetan eseri, makurtu zen. Eta hotza handitzen gogortzen hozten hasi zen, Ekixen hezurretaino sartzen. Hotzikara izugarriak zirgit egiten zioten Ekixi hankezurretatik gora barrengo barrendik dantza mugikor laster eta azkar heze, gogor, lehor, tximista hotz zorrotz indarrez erraiak ebakiz, argi txuri hotz dirdiraz itzalia, milesimetan mende. Ura hezurretaraino sartu zitzaion eta bertan solidotu gogortu gortuu. Dardarka, hotzez akatuta, horzkidura atengabean hozkirri agoniatsuan. Ekix sufritzen zuen erabat nekatuta nekatuta hozminduta txoko elurtsuan kikilduta burua hankartean elur maluta lodiak golkotik sartzen deusezten eta finkatzen pinu zurietako espetxe ilunean aldapan behean ur hotzaren soinu a urruntzen urruntzen..

Eguzkia zeru guztia irabazita zioten hodei gris izugarrien atzean izkutatutzen, eta batera beruntzarako bide sekularra betikoa aldaezinezkoa hartzen zuen. Eta iluntasuna erori zen, berekin hotza, ipar haize suabea baina azkona hotza sastagai gupidagaitza. Elurra erortzen hasi zen, orain berriz fin leun ixil-ixilik oso ixilik bakea zekarren irabazi zuela adieraziz. Orduan Ekix behera bueltatu nahi izan zuen, benetan konturatu

zen. Esnatze desegurra. Nahi eta ezin, bere betiko sinua. Mendian galdu zen, ez zekien nondik zebilen, bakarrik. Pinu zuriak bakarrik izan zituen lagun, eta gidatzaile. Orain zituen espetxe eta dena zuri gauaren beltzean goruntz eta beruntz sarturik kaiolaratutako txoria sentitu zen bere baso zuri mendi zuri liluragarrian gauaz preso. Eta haize bolada suabe hotz batek egin zion mehatxu, esperantzarik gabeko oihu belarrian xurxulatu, hotzikara izugarria igo zitzaion Ekixi, (hotzazkoa), oilasko sentitu zen. Batera, gelditzen zitzaizkion indarrez karraxi egin zuen; muskulo guztiak azken aldiz gogor tentsioan jarriz ahoa guztiz irekita goruntz AAAAAAHGR! Eta erortzen zen elurra irentsi zuen eta ahotsa ahuldu, deuseztu — Baina han gelditu zen oihu bertikal gorria eguratsaren loditasun gris txurian margotuta, gora eta gora zihoan hotzikara materializatua bakarrik pixka bat dardaratua, uhindua. Biak batu egin nahi izan ziren anaitasunean, baina ezin, denborak eta hotzak eraginda, elkartezina hemen, han. Eta hotzikara delakoak etsi-etsian jarraitu zuen goruntz eta goruntz zeruko laino hertsietan galtzera. Oraindik ere ikus dezakezue Ekixen oihu bertikal gorria, baina nahiko motza, hango zeruan. Betirako aztarna hilgaitz eta froga bezala... (imajinazio pixka batez...). Eta Ekix lurrera elurretara suntsitu zen. Azkeniz, txoko batetan makurtu, logureak egiten zion hartu, begiak hertsi zituen poliki-poliki.

Elurrak bere gorputza ere zuriz estali zuen.

Eguraldia nolabait bere alde zegokean, mendian hotza zen nagusi, zuria agintari. Eta bakarrik, galduta... zerebruaren txoko txiki bizkorra nahiz leherketan ondoren egin zen berriz haunditu, aginte handiagoa hartu kanpoko klima'x h'aren eraginez. Oposizioa gaizki jokatu izan zuen, zuzena ona indarrez ausarta baina beren barnean benetako gidari gudari intelijentea falta zitzaien. Beti izan ziren «Jr» maltzur berekoi alderdikero zentzudunaz kontrolatuak.

Baina hau ez mesprezuzkoki, ez bata ezta bestearen alde; —hemen nabil bi aldetako zentsurei txiri egiten etengabe, neutrala izaten saiatzen, ona eta txarra eta ezaugarri onak eta txarrak esatearen tentaziaori uko egiten saiatzen; ezin beti... baina baina, zergatik banaketarik egin?... zentzugabea.

Eta azkenik Elix bere osatsunean ez zen disakordian sentizen. Ez zuen batere ezinegonik, ez inungo kezkarik, ezta hotzik sentitzen bere itxura hotzikaratu txuri estalagtita heze lehor solido ilunean ilunarekin. Guztiz ondo, lotuta lotan lasai, zeruaren ateetan, zeru txuria amets liluragarria.

ERLAJAZIO TOTALA

Odola egin zen mementuz hoztu, baina ez gelditu bere bide'an, abiadur atxikitu gutxitu. Edo bai, polikigo polikigo ahulago, bere loditasun indar gorritasun guztia galdu zuen zarta txuri gogorra hotza solidoa haserre amorru guztiz deusezten, bihurtzen berea egiten, energiak botatzen, hozten ureztatzen ahultzen ahultzen alhultzen.

Zain mugatuen barrenean bihotza hasten zen martxa zabal-tzen, zuriagotzen, gordetzen, hozten, hertsitzen g l o r i a ezezagun infinitora irikitzen.

AAAAAAAAAAAAAAAAAAAA

(Gregorianoa belarrietan eragiten, zartatzen
polikiago jarraiago monotonoago monotonoagoo gozotzen

g lg l ori a a a a a a a a a a)

Lasaitasun infinitora, hegan ezer ez egite ezer ez den erlajazio zoragarrira. Ametsetik errealitatera, inoiz ez esnatu txuria zuria denona.

Jakinduriaren para disura.. .. Txuria zuria denona.

Eta zentzuek osotasuna, osotasun txuria geldo inaktibotasun osoa.

Lur eta aire bat egin ziren bat, esnezko ezer ezko txuri sarkari hotza..

Etzetera etzetera etzetera.

Horretan gelditu zelako.

BA IZARREK EGIN ZUTEN ESNATU, ESPABILATU.

Hodei gri seta beltzek bota behar zuten guztia bota zuten eta aldendu ziren, zeru zati hura garbia utzi zioten izoztuta zegoelarik, gaindituta.

Ekix berriz bere desorientazio osoan goruntz jo izan zuen biderik eza jakin ezean gau eta lainoarekin.. Eta laino bera behean utzi zuen, mendiaren ia gailurrean zegoen. Eta loak hartu zuenean basoan barna izotzaren irritstapen propietateagatik Ekix izotz bloke haundia, bueltaka beruntz erori zen basoaren, mendiaren agerrune, argi arin une batetan.

Eta hor zen Ekix ahoz gora argiunearen erdian. Lurreko elur erorberriek argitasun txuri fluordizdiratsu konstantea xuabea artifiziala egiten zuten goruntz, eta gauari irabazten zion jokua, eta zerua argi zen gau lasai eta isilaren iluntasun puskatuan. Izarrak inoiz baino handiago garbiago ikusten ziren askoz gertuago mendi gailurrean eta guzti-guztiak, ez zen batere falta, bakarrik ilargi bakartia. Argitasun izugarria zegoen han, egun berria zirudien baina argitasun hotza, ezin zuen horrek Ekix izotz puska urtu.

Orduan izarrek Urtzi jaun omniboteretsuak agindu zuelako, bere muturren aurrean hain hotz hain gertu ikusi zuten bizia eman nahi izan ziotela, beraien eskakizunez eta Urtzi beraren nahiaz.

Ekixi beti liluratu izan zioten izarrek. Estudiatu zituen, gizakion fenomeno hauen arrazoitzea baina benetan hauek itsuki sinistu gabe. Ezagutu. Eta sentimendu gehiago baino pentsamenduzko poesia ederrak egin zizkien izarrei, bere ederrenak, maitasunaz. Liluraz, opari bezala Urtzi handiari, bere izatearen erroie eta gauari, misteriotsu huts baina beteari, anbientatzaile fondo beltzari. Ortzeko izar bakoitzak bero eta energi gune bakoitzak izpi indartsu bat bidali zuen Ekixengan, izpi guztiak zuten helburu Ekix.. Denak jo, eragin zuten batera. Argi energi bero izpi horiak luzeak hamar milesimetan azkarrak jo zuten Ekix eta mementuan Ekixen inguruan miragarritsu ostadar aureola, astadarrezko kiola jaio

zen leun leun suabe ixil.. Urtzi handiaren koroe haundioso bizia indartsua argia lasaia ixila, alaitasunaz nabarra, kolorez egina airez baina inor baino finkatuago, bere lekuan bere unean beti maiestatearen koroe ederra, paradisu lurtiarraren bizigarri argi margo erro, bere agintearen erakusgarri, gizaki apelantzat ezjakintsasunaren misterioaren edertasunaren terioa mugarri eta batera burla, burla, unibertsoaren erregea.

Eta Ekix hor erdian senik bere txiki hotz hil, zen guztiaren zentru tiroen txurii. Esnatu!!!!

Argi izpi, margo izpi horien eraginez izotza urtu zen. Ura Ekixengandik jeisten zen ihes egiten zuen eta mendian gora ibaia sortu zuten. Ala beruntz??

Mendi guztia argitu zen, argitasun horia, zoragarria, bat-batekoa. Elurraren gainean dena izan zen argi, indar esplosio ixil zoragarri, mugagaitza. Ekixen bihotza berriro hasi bait zen benetan martxan, izotza urtu zen eta ur hotzak lurrundu goruntz ez zituen hodeirik sortu. Odola berotu berriz, irakiten indarrez azkar Ekix bizitu zuen. Begiak egin egin ziren ireki indarrez-«krak»-izotza puskatuz, eta ez ziren batere izutu itsutu argi nabar koloretsu izugarriaz.

Egun berria zen izarrek oraindik argia eta beroa bidaltzen, elurra isladatzen eta biziaren erro den urean bihurtzen eta ortzadar hura, liluratzen paradisua. Ostadarraren zazpi margoak: Gorri, laranjatu, hori, berde, urdin argia urdin ilunа eta morea. Kokatu ziren alaitsu Ekixen gainean.. Ekix zutik jarri zen. Indarra bueltatua zitzaion, eta farra, alaitasuna aurpegira, eta bihotzera. Izarrek eta Urtzi handia zetzaten begira, urgilutsu urguri. Eta han zetzan bere sinadura, izpia moztu zuten.

Mundu berri liluragarri hartan Ekix arku miragarri haren sortalde hanka bilatu, eta aurkitu zuen. Margo, izpi gorriaren berotasun indarrak luma fina bailitzan altxa zuen eta ostadarrean sartu. Ekix bero handia zuen, hartu zuen eta laranjatura pasa zen, epela gozoa eztia, izpi horiak erakarri zuen azkar... alaitasuna, eta han goran ostadarraren gainean pozik sentitu zen eta izarrak zeru urdin ilunean ikusi zituen.

ahoan irrifar ironikoa eta totala eta begiak izar bilakatu zitzaizkion mendi guztira irrifar alaiak zabaltzen... argitasun hartan.. eta han goitik egin zion burla eguzkiari, — traidore koldarra! eta ilargi tristeari bakarrari, mingaina atera zion bi eskuak sudurraren aurrean jarrita oihu lelo eta zorrotza bota zien, edonon editu zen, eta ondoren eskuak belarrietan begiak sudur aldera juntatu zituen. Burla ikaragarria. Bi astro erregek Ekix gupitetsi zuten, heudek bait dira errealitate gurearen argibide eta froga indartsuena, mugak finkatzen dituzten bi antonimoak. Mugak, errealitatea zerebrua zerebrua zerebrua behera. Tamalez, hori da, errealitatea dugun gauza bakarra. Denok kontzientzia hartu zuten.. Norbaitek linterna itzali zuen arte. Horrela behar zuelako. Eta Ekix lurrera erori zen, elur hotzera, iluntasun berdinera, bakarrik baina ezer ez zen berdin.

Ilargi tristea malenkoniatsu bakarra bakartia gogoratu zuen eta bakarrik sentitu zen, bakar-bakarrik... eta hotza, eta galduta, bere izaera praktikoa erreala zentzuduna, han behean zegoen gizartean gauzatutakoa, beretaz jabetu zen. Ezin zuen susmatu han behan ere elurra egin zuenik, hain ikusten zen urruti. Eta hain urrikalgarri, bere zorigaitzean, ikusten zen... berriz ere oihu egin zuela ahal zuen abots bortitzenaz laguntza eske, haizeak poliki poliki zeraman oihua elurretan galtzera. Inor ez zen handik, mendi ezezagun galdu haietan... gaua lasaia zen: Leku guztietako (e)-lurreko elurrak Ekix kaiolaratzen zuen behetik goruntz fluordistita zuri hotz artifizial harrigarriaz, eta belaunetaraino ehortzita. Ez zekien zer egin.. Konkista bukatu zen. Haize otz garden geldo zaratsuak atzetik jotzen zuen eta ez dakit nolatan pinu baten adar baten elurrez betetako esku irekitik elur plasta jauzi zen zarataz haizearen ixiltasun hartan zebilen haizea temati bukatutako bataila zelaia errepasatzen lur guztiz konkistatua; lur hila meneratua, gorpu hilez landatua hodeien azken elur tanta finak dantza mugimenduan geldo azkar airean pozik. Atzekaldetik eta goitik zetorren arku leun bat aurrean egitera, lur elur arrasean arin soinu ingurzgarri luze luze xirulari hotz, hauts fin zuria hurrupatuz eta ondoren berriz gora dantzan zirimolaka zuzen arku leuna lur berriak, zaha-

rrak... argi mugatu hotz txuri gori liluragarri hil hartan, preso.. egoera lasaitasuna hileta tajutzen giroa protagonizatzen putre lazgarria, espetxean haizea libre lasai.. bihotzen sentipen mingarriei leku eta desafio eginez tristurari. Tristura soilik. Han.

Eta birresnatuta bere burua begiratu zuen, jantziak gogortuta jelaz. Ezin zen gelditu, bidea ikusi zuen elurretan eta oitnez ibili eta ibili zailki monotonikoki beruntz begira, bidea aurrera beti aurrera beti aurrera. Begirada altxa zuen eta argi bat ikusi zuen han urruti gau betegabean, baina gertu zirudien, (baserriren batekoa edo), eta berriz ere oihu egin zuen. Animatu zen, eta aurrera beit aurrera bidean. Behera joan nahi zuen berriz halako zibilizaziora. Eta bidetik basoetan zehar sartu zen eta aurrera beti aurrera, ibili eta ibili. Baina inoiz ez zuen behera jotzen bide hura, ezta beste batzurekin gurutzatu.. itsu. Ez zuen pentsatu nahi bueltaka ari zela. Mementuetan elur ilunean paisai berberak ikusten zituenean, bidetik, angustia izugarria igotzen zitzaion eztarrira, ezin arnasa hartu. Argi hau gertuago hala urrutiago berriz ere??. Eta bere gurasoetan pentsatzen zuen, nola ibiliko ziren hain kezkatuta, eta agian zenbait jende bera bilatzen. Ez zuen pentsatu nahi. Eta lasaitzen zen aurrera jarraituz beti aurrera, pasatzen zitzaion. Nekea ez zen inoiz agertzen bere hanketan, ez bazen gelditzen... eta pinu zurietako basoa berriz lainoz estalita ez zen inoiz bukatzen; pinuetazko aldapa bortitzean, mendiarena, nagusia mozdura bat eta txingurri bakartia lainoen artetik, hor, katiuskak elurretan kriskitatzen, han behean erreka txikia erabeorki bere soinua eta bestaldean beste aldapa izugarria, beste mendia han urruti...

Eta Ekix, bukatzeko, eta hala diodalako, ezin bait da ezer ere ez guztiz arrazona eta ez dut kaxkarkerietan erori nahi. —Hara arrazoi bat!... Utz dezagun!!... BAA HAN GELDITZEN DA!!

...«Egia esan, denborak neurekoikeriak, harrotasunak, eta benetako komunikaziorik ezak, beste zenbait zergatiren artean, harrapatu naute. Eta hauen kontra altxatu behar dut nere burua, gauza batzuri hainbeste garrantzirik eman gabe.

Bizitzari, gaurko ume kozkor eta jolasti haien antzera, irribarrez agur egin nahi eta behar diot,

—Ekix nazkatuta. Azkenik azkenik azkenik aurkitu uste izan zuen egia soluzio eta guk ere.—Zoriontasuna! nahiz batzutan irribarre serioa izan...» (Nere lagun Patxi Zubizarreta'ren «sentipentsalaipenak» ipuietik).

Aukerak, aukerak, bizitza aukeraz bete beteta dago. Eta inoiz ez zara zihur izango aukeratu duzun aukerabidea zuzena ote den zure helbururako. Ezta zure helburuez. Zure helburu horiek dira —bidean— konbentzimendu osoz zihurren dakusazun gauza. Utopia dira. Ezin inoiz horra hel, baina beti ahal behar horra iritsi... bukatzean. Bukaera guztiak hasiera dira... beldurra dio aldaketari. Utopia gloriosoari. Beldurra ezezagun denari bakarrik ahal da. Eta hori da roiloa ba.

Bizia bizi behar dela nahi eta nahi ez! Ez hil. Hori da gure kondena, ezta suizidioa da soluzio, ezta gutxiagorik ere... Kotxearen lehiatilak beltzez margotu zituen eta aurrera gidatu gauez beti gauez aurrera inorkaso egin barik.

...«Inoiz ez nuen laket izan gatozen lekua, zerbait berria behar dugu, dinamita pixka bat behar dugu.

Ibilaldi bat egingo dugu nerabezaroa deituriko deskapotable batetan eta aro buruz garbi batetara zuzenduko gara.

Eta haiek nora goazen galdetzeko gelditzen bagituzte, gauean zehar gidatzen dugula esango diegu.

Eta eguzkia dena argitzen hasten bada, guk beltzez pintatuko ditugu lehiatilak ea horrela beti gauez gidatu ahal izango dugu»...

«Drive all night». Elliot Murphy (abesti bat).

MENDIAN GELDITU ZEN BAI

Mendian gelditua jeitsi zen.

Mendian gelditu, ta jeitsi zen.

Ez zuen zibilizaziora bueltatzeko gogorik izan. Handik —lazgarria— iruditu zitzaion. Par egin zion zibilizazio deiturikoari, guztiari par eta irribar zoriontasun alaitsuz. Eta Tarzan berria han Tarzan berria. Ez da inungo lelokeria. Zoriona Ekixena, inbidia diot, inbidia. Oraindik ez da aurki bere egote zihurtasun osoan... Betirako! Betirako!!!

Eta zein ederra! Zein ederra! Han dena poeta harentzat poeta harentzat. Dena popatik hartzea hartzea hartzea hartzea.

Argi egin zen azkenik. Eguzkia atera zen argitasunaz txuri baina gero hori hori, farrez eta irribarrez. Ekix itzaletik atera zen, eguzkiak begiak argitu zizkion eta ferrez eta irribarrez, farrez eta iribarrez bizitzari aurpegi eman zion. Gaua joan zen. Zein zoriontsu! Paradisua Ekix! ez zuen susmatzen dena bukatuko zela azkar eta berriz dena berriz dena berriz aspertuko zela bere egoera asozialataz. Eta materialismoa, haragizko irrika delakoa berotasuna edonon edonon aurkitzen da maitasuna eta gorroto haundiena. Dena da berdin, inor ez da normala. Asumi gaiztezen gure egoerara hala ez gaitezen asumi baina berdin izango da... Itxaropenak ez du esperantzarik. Zein ederra!

Eta txapa bat inbentatu zuen: eta zure roiloa bilatu, atsegin uste duzuna eta jarraitu jarraitu jarraitu bizia ezertarako bizitzeko. Hil arte. Hil ondoren jarraitu... eta dena amaitu zen haragizko irrika batez..

Baina baikortasuna behar dugu. Jarraitzeko eta bati aurrera aurrera. Eta sariak irabazteko, polita ez txapuza...

Eta ala zein ondo! Sareiak sariak. Hemen hauen sarien aurkako protesta.

Eta konpetizioa...

Eta dena dena jarri nahi nuke hemen bukatzeko.

Nazkatuta. Munduko edertasun guztiak. Beste baterako.

—Pasatuko zait...

Pasatu zait. Eta ni hemen behean oraindik galduta, —galduta! ?????

«Intrépido y sereno, había entrado con su ciencia y su experiencia en el maravilloso recinto cuya construcción es compendio y abreviado resumen de la inmensa arquitectura del universo. Era preciso hacer frente a los más grandes misterios de la vida, interrogarlos y explorar las causas que impedían a los ojos de un hombre el conocimiento de la realidad visible...» (Benito Pérez Galdós'en «Marianela»'tik).

Aurkitu zuen azkenik bere burua, bere izateko era ez zuen inoiz gehiago zalantzarik ezta disakordio ezta ezbairik. Ados azkenean ados han, mendian.

Itxurakeri edo hipokrisia deuseztu. Beti esango eta egingo zuen handik aurrera egia sentituko pentsatuko zuen guztia garden garden edozeini. Prejuizio guztiekin akabatu, baita beregan izotz guztia edonorgan.

Gezurra orduan guztiz bukatu zen, dena zen orduan errealitate gardena han mendian liluragarrian. Hori bait da dugun gauza bakarra aurrean kaxa miragarria, errealitate objektibo den ez dut onartzen bere fantasia da bada dena. Baina oinarriak beharrezkoak ditugu. Lojikoa.

—Eta barkatu, barkatu guztiagatik...

Ez zen bada inoiz gehiago galduta ibiliko, bere bidetik guztiz ziur beti nahiz ez jakin nora, eta mendian egon zen hura frogatzen zoriontsu, zoriontsu, betirako. Gero konturatu zen gizartea zela bere leku. Gizartean zela gizakia. Aldatzeagatik batipat. Munduko gizakiarik liluragarriena han behean guztiarekin... konturatu zen behean, hirian ere elurra egin zuela.

Amaiera

OHARRA: Hau da nere egonezinaren fruitu, disakordioarena, nahitaez'ena. Denbora luzean eta moztuetan. «Total patatas».

ASPALDIKOA

Patxi Etxeberria, S. I.

Arrietaberriko alaba zaarrenak aurra izan zuen. Mutikotxoa. Amonaren isillean. Bestela onek ittoko zuen neska eta ama lasaka. Auzoko agintariekin itz-egin ondoren (askotxo itz-egin ere bai, zoritxarrez), aurra erriko apaizarena zala esanez asi ziran. Bai ari eraman ere.

Goi-Goikoak egunero itz-egiten zion aguretxo agurgarriak auxe besterik ez zuen esan: Ongi da! Ongi da!

Auzo guztian izugarrizko erasoa sortu zan. Ziotelarik: Zer apaiz gartatu zaigu? Olakorik! Eta eliztar asko ies abittu ziran. Aldameneko elizatara ioaten. Eskerrak orduan eguneroko berrilaririk ez zala.

Ama berri oni, etxean zuen amona il zitzaion. Ongi zekian, iankozko gizonak etxekandere ona aukeratu zuela, eta mutikotxoa ari utzi zion azi zezan. Eralkizun guztiak ordainduko zizkiola: illero artu-emanekoak garbi-garbi zeramazten.

Ama, beti ere ama izan, eta gure neska lasakari ere bere semea etxera eramatea gogoratu zitzaion. Lenago bezela auzoko agintariekin apaiz agurgarriarengana agertu ziran, mutikoa bere amari itzuli zizaiola esanez. Oraingoan ere gizon iankotiak besterik ez zuen esan; ONGI DA! ONGI DA!

1986.III.13

GERTATZEAR DAGO ZERBAIT

H. Böll

Nire bizitzako gertakaririk bitxienetako bat Alfred Wundsiedelen fabrikan enplegatu nengoenean gertatua dut. Joera handiagoa dut, neurez, olgeta eta gogoetarako lanerako baino, baina lantzean behin ekonomi estualdiek behartzen naute —olgetak bezain errenta eskasa ematen bait du gogoetak— enplegu deitu ohi dena onartzera. Beheraldi horietako batean aurkitzen nintzelarik berriro, lan agentzia baten esku utzi nuen arazoa, eta Wundsiedel fabrikara bidali ninduten zoritxarreko beste zazpi kiderekin batera, han gaitasun froga bat egin ziezaguten.

Fabrikaren ixurak berak fidakaitz bihurrarazi ninduen: Fabrika osoa zen kristalezko blokez eraikia, eraikuntza argiei eta espazio argiei diedan aiherra, ordea, lanari diodan aiherra bezain handia izaki, are fidakaitzago sentitu nintzen, hala ere, iritsi bezain laster kantina argi batean, kolore alaiz margotuan, gosaria atera zigutenean: kamarera oso guapa batzuek arraultzeak, kafea eta tostadak ekarri zizkiguten, eta laranja zumoz betetako pitxar apain batzuk zeuden: arrain urre kolorezkoek akuario orlegi argien pareten kontra estutzen zituzten beren aurpegi axolakabeak. Kamarerak hain alai zeuden ezen bai bait zirudien pozez leher aginean zirela. Borondate ahalegin handi batek bakarrik —hala iruditzen zitzaidan— galerazten zien denbora guztian kantulanean ari zitezen. Entonatu gabeko abestiz beterik, oiloak errun gabeko arraultzez adina bazeuden.

Berehalaxe ohartu nintzen nire zoritxarreko kideek ohartu bide ez zutenaz: gosari hura bera ere frogaren zati zela; eta horregatik arretaz mastikatu nuen, bere organismuari balio handiko sustantziak ematen ari zaiola jakinaren gainean dagoen pertsonaren erantzukizun osoaz. Bestelako zirkunstantziatan mundu honetako beste ezerk eragingo ez lidakeena egin nuen: laranja zumoa edan nuen baraurik, utzi nuen kafea, arraultze bat eta tostada gehienak, jaiki nintzen, eta sasoikiro korritu nuen kantina goitik behera guztian.

Esamina izateko zen gelara eraman zuten lehena izan nintzen. Mahai zoragarri batzuren gainean prestaturik zeuden galdera paperak. Hormek bazuten halako berde aire bat, dekorazioren amorratuei «eromenezkoa» bat lapurtuko ziekeena ezpainetatik. Ez zen inor ikusten, baina hain nengoen seguru begira nituela, ezik ekintza gizonak inor begira ez duela uste duenean egiten duen bezalaxe jokatu bait nuen neuk ere: atera nuen urduri luma patrikatik, eseri nintzen hurbileneko mahaian eta tabernatako kontuekin gizaseme zitalek ohi duten bezalaxe neureganatu nuen galdera papera.

Lehendabiziko galdera: Ongi al derizkiozu pertsonak bina beso bakarrik, bina hanka, begi, belarri izateari?

Lehendabiziko aldiz bildu nituen orduantxe nire gogoeten fruituak eta zalantzarik gabe idatzi nuen: «Lau beso, hanka eta belarri ere ez nituzke aski nire ekintzarako. Gizonaren hornidura, arlo honetan, xurra bait da».

Bigarren galdera: Zenbat telefono erabil zenezake aldi berean?

Lehen graduko ekuazioa ateratzea bezain erraza zen honetan ere erantzuna: «Zazpi telefono besterik ez dudanean —idatzi nuen— urduritu egiten naiz, bederatzirekin bakarrik sentitzen naiz guztiz nahierara».

Hirugarren galdera: Zer egiten duzu zuk zure jai egunetan?

Nire erantzuna: «Jai hitza ez dut ezagutzen. Hamabost urte betez gero borratu nuen nire hiztegitik, hasieran, izan ere, ekintza izan bait zen».

Lortu nuen lanpostua. Izatez, bederatzi telefonoak ere ez nituen aski. Hotsegiten nuen mikrofonotik: «Ekiozu oraintxe bertan» edo «Egizu zerbait». Gertatu behar du zerbait — Gertatzera doa zerbait — Gertatu da zerbait — Gertatu behar luke zerbait». Erabiliena, ordea, aginduzko forma nuen, bazirudien giroari hobeto egokitzen zitzaiola eta.

Oso interesgarriak ziren eguerdiko tarteak, kantinan, alaitasun isilez inguraturik jaki bitaminaz aberatsak jaten genituenean. Jendetza inurritegi bat zen Wundsiedel fabrika, beren bizitzako gorabehera guztiak kontatzeko irrika bizian erio zena, ekintza gizon handiei gertatzen zaien bezala. Egin dutena garrantzia handiagokoa da halakoentzat bizitza bera baino; botoi bat sakatzea da aski eta berehala hasten dira beren ekintzak goraipatzen.

Wundsiedel-en ahalduna Broschek izeneko bat zen, bere kabuz halako ospe bat lortu zuena, ikasle zenean zazpi haur eta emakume paralitiko bat mantendu zituelako gauez lan eginez, aldi berean lau ordezkaritza zeramatzala, probetxu handiz gainera, eta eginak zituen, hortaz aparte, bi urtetan bi oposizio arrakasta bereziz. Galdegin ziotenean kazetari batzuek: «Eta noiz egiten duzu zuk lo, Broschek?» «Loa pekatu da» erantzun zien hark.

Wundsiedel-en sekretariak aurrera aterarik zituen, puntu eginez, gizon elbarri bat eta lau haur, aldi berean Psikologia eta Geografian doktoratu, polizi zakurrak hazi eta kabatereko kantari bezala famatu egiten zelarik Vamp 7 izenez.

Wundsiedel bera ere esnatu bezain laster zerbaiti ekiteko prest dauden horietarikoa zen: «Ekin behar diot zerbaiti», pentsatzen dute, albornozaren gerrikoa gogoz lotzen duten bitartean. «Ekin behar dio zerbaiti» pentsatzen dute, bizarra moztu eta makinatik jaboiarekin batera kentzen dituzten bizarrei gailenkiro begiratzen dieten bitartean: bizar hondakin horietxek dira beren ekintza afanaren lehen kaldetunak. Ekintzarik bakarrekoenek ere atsegina ematen diote horrelako jendeari: ura badoa, papera erabiltzen da. Gertatu da zerbait. Jaten da ogia, arraultze oskola kraskatzen da.

Gauzarik hutsalenak ere ekintza itxura hartzen zuen Wundsiedelengan: Sonbreroa jazteko era, berokia lotzeko modua —indarrez gainezka—, bere emazteari ematen zion musua: ekintza zen guztia.

Bere bulegora sartzen zenean, oihuz egiten zion diosala sekretariari: «Gertatu behar du zerbait». Eta umorez erantzuten zion hark: «Gertatzera doa zerbait». Gero joaten zen Wundsiedel lansailez lansail bere «Gertatu behar du zerbait» alai hura botaz. «Gertatzera doa zerbait» erantzuten zioten denek. Pozez egiten nion oihu neuk ere bulegora sartzen zitzaidanean: «Gertatzera doa zerbait».

Lehenengo astean hamaikara jaso nuen erabiltzen nituen telefonoen kopurua; bigarrenean hamairura, eta asko entretenitzen nintzen goizean tranbian nindoala, agindukera modu berriak asmatzen edo «gertatu» aditza aldi eta modu guztietan, subjuntiboan eta indikatiboan konjugatuz; bi egun oso eman nituen esaldi bera errepikatuz, bikaina iruditu zitzaidan eta: «Gertaturik behar luke zerbaitek» eta beste bi honako honekin: «Honek ez zukeen gertatu behar».

Benetan gustora sentitzen hasia nintzen eta orduantxe gertatu egiaz zerbait. Astearte goiz batez —ondo eseri gabea nintzen artean— sartu zitzaidan Wundsiedel bulegora, eta jaurtiki zidan bere «Gertatu behar du zerbait» hura. Baina aurpegikeran igarri nion zehaztezinezko zerbaitek zalantza eragin zidan egokia ote zen, gero, aginduta zegoen bezala «Gertatzera doa zerbait» alai eta bizkor erantzutea. Luzeegi egin nuen duda, zeren Wundsiedelek, deihadar egin ohi ez bazuen ere, orroe egin bait zuen hartan: «Erantzun ezazu. Erantzun ezazu aginduta dagoen bezala, zuk». Eta erantzun nuen, ahots beheran eta gogoz kontra, haur bati esanaraziko balitzaio bezala: «ni mutiko gaiztoa naiz». Ahalegin handia eginez lortu nuen esaldia ahoskatzea: «Gertatzera doa zerbait», eta esan ere apenas egin bait nuen, ze gertatu bait zen benetan zerbait: Wundsiedel, erori lurrera, jiratu bere gain eta luze geratu zen ate aurrean. Berehalaxe ohartu nintzen neure begi bistan gertatuaz, mahiari buelta emanez han zetzan gizonarengana nindoala: hilik zegoen.

Buruari eraginez igaro nintzen Wundsiedelen gainetik, abiatu nintzen Broscheken bulego aldera, pasilotik geldiro ibiliz, eta deitu gabe sartu nintzen.

Bere mahaian eseririk zegoen Broschek, telefono bana zuen esku banatan, boligrafo bat ahoan, block batean oharrak idazteko zerabilena, oin hutsekin, berriz, mahai azpian jarria zeukan puntu egiteko makina bati eragiten zion, bitartean. Era horretara familiaren jantziak osatzea lortzen zuen.

«Gertatu da zerbait» esan nuen ahots beheran.

Broschekek jaurtiki zuen tuka boligrafoa, laga zituen bi bi telefonoak eta kendu zituen oinak puntu egiteko makinatik.

— Zer da gertatu den hori? —galdegin zuen.

— Wundsiedel jauna hil egin da —erantzun nik.

— Ez —esan zuen Broschekek.

— Bai —nik—. Zatoz nirekin.

— Ez —beretsi zuen Broschekek, baina labaindu zen zapatiletan barrena eta nire atzetik etorri zitzaidan pasiloan zehar.

— Ez —esan zuen berriro Wundsiedelen gorputzaren aurrean ginenean. «Ez, ez». Ez nion kontra egin nahi izan. Eragin nion kontuz Wundsiedeli ahoz gora, itxi nizkion begiak, eta pentsakor geratu nintzaion begira.

Ia samurturik geratu nintzen beragatik, eta lehendabiziko aldiz ohartu nintzen orduantxe ez niola gorrotorik izan inoiz. Bazuen aurpegikeran zerbait, haurrek ohi dutena bezalakoa, papa Noelengan sinestea utzi nahi ez dutenean, la-

gunen argudioak hain komentzigarriak iruditurik ere, hartantxe tematurik.

— Ez —errepikatzen zuen Broschekek—. Ez.

— Gertatu behar du zerbait —esan nion ahots beheran Broscheki.

— Bai —esan zuen Broschekek—. Zerbait gertatu behar du.

Gertatu zen zerbait: Wundsiedeli lur eman zioten eta ni izendatu ninduten, arrosa artifizialezko koroe bat eramanez haren zerraldoaren ondotik joateko, olgeta eta gogoetarako joeraz aparte, traje beltzarekin oso ongi egokitzen diren halakoxe aurpegikera eta itxura halakoxea bait ditut izan ere. Egundoko efektoa egin bide nuen, Wundsiedelen zerraldoaren atzetik eskutan arrosa artifizialezko koroea neramala nindoalarik. Hileta konpainia dotore batek hartan sartzeko eskaintza egin zidan: «Hiletari peto petoa zara zu» esan zidan konpainiako zuzendariak. «Jantziena gure kontura izango da. Aparteko bikaina duzu aurpegia».

Broschekenetik aldegin nuen, aitzakia harturik han ez nengoela guztiz nahierara, nere ahalmenetako batzuk, hamairu telefonoak arren, alferrik galtzen zirela. Nire lehendabiziko hiletari lana egin nueneko jakin nuen: «Hauxe duk hirea, hauxe duk hiretzako heukan postua».

Zutik egoten naiz, gogoetatsu, lore sorta soil bat dudala eskutan, zerraldoaren atzean, bitartean Haendel-en Largoa jotzen dutela, behar adina jaramon egiten ez zaion musika, horixe. Kanposantuko kafetegia dut denbora gehiena egoten naizen tokia. Hantxe igarotzen dut nire profesiozko eginbeharren artean geratzen zaidan astia, nahiz eta batzutan joaten naizen, hala ere, beste enterru batzuren atzetik ere, haiekiko betebeharrik ez izan arren, erosten dut neure dirutik lore sorta bat eta herbesteraturen baten zeraldoaren atzetik doan benefizentziako enplegatuari elkartzen natzaio. Wund-

siedel hilobiari ere egin ohi dio bisita, tartean behin, harixe zor bait diot, zor, nire benetako lanbidea aurkitu badut, gogoeta komenigarri eta olgeta derrigorrezkoa duen lanbidea.

Handik puska batera kontutara etorri nintzen ez niola sekula jaramonik egin Wundsiedelen fabrikan egiten zen produktuari. Jaboia edo, bide zen.

Itzulpena: *J. M. Zabaleta*

OHARRA: Aurten bertan hil berria dugun Heinrich Böll idazle alemanaren ipuin hau «Doktor Murkes Gesammelte Schweigen und andere Satiren» (Kolonia, 1958) liburutik hartua da. Testu hau, ordea, ez dago hartatik itzulia, Alianza Editorialek (Madrid, 1973) «Los silencios del doctor Murke» itzulpenetik itzulia baizik. Hala ere, H. Böllek ohartxo batean kabitzen direnak baino gehiagoko merezimenduak dituenez —idazlea estimatzen duenak ezagutzen ditu, eta ezagutzen ez duenak ez du ohar baten estimazioa merezi—, ohar baten omena baino mereziagoa zuen bere testu baten itzulpena. Euskaraz, izan ere, banakoaz aparte, P. M. Zabaletak itzuli eta oraindik argitaratu gabe dagoen «Katarina Blumen ohore galdua» beste itzulpenik ez dago, nik dakidalarik behintzat, H. Böllena.—*Itzultzaileak.*

ATEZAIN ESKOLATUA

Pello Zabaletak euskaratua.
Txejov-ena.

Zutik sukaldearen erdian, Filipp atezaina bere sermoitxoa botatzen ari zen. Lekaioak, orgazaina, etxeko neskatxa biak, sukaldaria, sukaldarisa eta sukal mutil bi, Fillippen semeak biak, zituen entzule. Goizero jaulki ohi zien atezainak bere hitzalditxoa. Eskola zuen mintzaldigai egun hartan.

—Zerrien arrazako bazinete bezala bizi zarete guztiok —zioen atezainak kapelua eskuetan—. Zuen egunak hementxe, zulo honetan igaro ohi dituzue; ezjakintasunaz aparte, ez da zuengan zibilizazioaren haztarnarik batere. Mixka dama-jokoan etengabe. Matriona urrak kraskatzen. Mikifor hortzak erakusten. Hauek al dira adimenaren seinaleak? Ez dira adimenaren seinaleak, ez, ergelkeriarenak baizik. Zuek ez duzue adimen gaitasun izpirik ere! Eta badakizue zergatik?

—Egia dio, bai, Filipp Nikandritx —sukaldariak areago—. Jakina da, zenbat adimen izan genezake ba guk? Muzhik batena. Zerbaiten berri sakonik ba al dakigu ba guk?

—Eta badakizue zergatik ez duzuen adimen gaitasunik? —jarraiki zuen atezainak—. Benetako oinarria falta zaizuelako, hara. Ez duzue libururik irakurtzen eta idazketaren arrastorik ere ez duzue. Libururen bat hartu, eseri eta irakurri egin behar zenukete. Letra inprimatua deszifratzeko hainbat eskola baduzuela uste dut. Zuk, Mixa, liburu bat har zene-

zake eta ozen irakurri. Zuretzat onuragarri litzateke, eta gainerakoei atsegin gerta lekieke. Gauza oro aurki dezakezu liburuetan. Izadiko edozer gauzaren, Jainkoaren eta munduko herrialdeen berri zabal dakarte. Hau zerez eta bestea zerez dagoen egina, nola mintzo diren hizkuntza ezberdinetan munduko herrialde ezberdinak. Eta idolatriaz ere bai. Nahi izanez gero, guztia aurki dezakezu liburuetan. Baina zuek sutondoan jarri eta jan-edanean pasatzen duzue bizitza. Piztiak bezalaxe benetan! Utikan!

—Nikandritx, goardia egitera joateko ordua heldu zaio —ohartarazi zion sukaldarisak.

—Badakit. Eta ez da zure egitekoa hori niri gogoraraztea. Bada, esaten ari nintzaizuena, adibidez, besterik ezean har nazazue neu. Zeri heldu bestela nire adin honetan? Zerez ase nire izpiritua? Horretarako ez da liburua edo egunkaria bezalakorik. Oraintxe bertan goardia dagokit. Eskaratzean hiru bat ordu pasa beharko ditut. Ahozabalka gogaiturik edo emakumeekin lelokeriak esaten ihardungo naizela uste al duzue? Ez horixe, ez naiz ore horretako opila! Eramango dut liburu bat nirekin, eseri eta munduko atseginik handienaz irakurriko dut. Esaten dizuedan bezalaxe.

Filippek atera zuen liburu oso erabili bat armairutik eta golkoan gorde zuen.

—Horrelaxe entretenitzen naiz. Txikitan ohitu nintzen. Jakinduria argia da; ezjakintasuna, iluna. Ez al zenekiten? Halaxe da, ba...

Kapelua jantzi, urruma egin eta marmarka atera zen sukaldetik. Eskaratzera joan, eseri aulkian eta bekaina zimurtu zuen, aurpegia hodei bat bezain beltz jarriz.

«Hauek ez dira pertsonak, astakume zikin batzuk baizik», murmurikatu zuen, sukaldeko jentilajea burutik aldendu ezinik.

Baretu zenean, atera zuen liburua, hasperen sakon egin eta irakurtzeari ekin zion.

«Hain dago ongi idatzia, ze ez dagoen hobeto esaterik»

—pentsatu zuen, lehen orrialdea irakurri ondoren buruari eraginez—. «Zenbat argi isurtzen duen gure Jaunak».

Ona zen liburua, Moskun argitaratua. «Zain mamitsuen hazkuntza. Harbi beharrik bai ote?». Lehen bi orrialdeak irakurri ondoren, buruari adierazkor eragin eta eztul egin zuen.

«Oso ongi dago idatzia!».

Hirugarren orrialdea irakurri eta pentsati geratu zen Filipp. Eskolaz pentsatzeko gogoa sentitu zuen, eta nork jakin zergatik, eskola frantziarrez. Burua bular gainera plegatu zitzaion eta ukondoak belaunetan bermatu. Begiak biratu zitzaizkion.

Filippek amets egin zuen. Guztia aldatu egin zela ikusi zuen: mundua lehengoa bera zen, etxeak lehengo berberak, eskaratzak ere lehengoak, pertsonak ordea guztiz bestelakoak. Guztiak ziren eskolatuak, zozorik inor ez, eta kaleetan frantzesak ari ziren pasa eta pasa. Urketariak berak ere dio:

«Neu, egia, eguraldiaz ez nago batere kontent eta begiratu bat eman nahi diot termometroari», eta liburu lodikote bat dauka eskuan.

—Egutegia irakurtzea da zuk egin behar duzuna —dio Filippek.

Zozoa da sukaldarisa, baina hura ere solas jakintsuetara biltzen da eta komentarioren bat tartekatzen du inoiz edo behin. Komisaldegira jotzen du Filippek maizterrak errejistratzera, eta harritzekoa, hain leku zurrunean ere eztabaida jakintsuak soilik erabiltzen dituzte eta mahai guztietan liburuak begien bistan. Eta hara non hurbiltzen zaion Mixa lekaioari pertsona bat, bultzatu eta oihu egiten: «Lotan? Zuri ari natzaizu, lo al zaude?».

—Goardian zaudela, lotan, kaiku hori? —entzuten du Filippek trumoi ahots bat ari zaiola—. Lotan al zaude billau asto hori?

Harrapaladan zutitu eta begiak igurtzi zituen Filippek; aurrean polizi-komisariaren laguntzailea zeukan.

—Lotan, beraz, eh? Amanda jarriko dizut, urde hori! Irakatsiko dizut, bai, nik zerbitzuan zaudela nola lo egin, ergel horri!

Bi ordu geroago atezainak komisaldegian presentatu behar izan zuen. Ondoren, sukaldera itzuli zen. Han, bere predikuez hunkiturik, guztiak mahaiaren inguruan Mixari entzuten eta hau zerbait letraka-letraka ari zen irakurtzen.

Filipp, zakar, aurpegia gorri, hurbildu zitzaion Mixari, hatzaparkada batez liburua astindu eta uzkur esan zuen:

—Jaurti hori!

JAN - EDANAK

—Lotan, beraz, eh? Amanda jarriko dizut, urde horil Irakatsiko dizut, bai, nik zerbitzuan zaudela nola lo egin, ergel horril

Bi ordu geroago atezainak komisaldegian presentatu behar izan zuen. Ondoren, sukaldera itzuli zen. Han, bere predikuez hunkiturik, guztiak mahaiaren inguruan Mixari entzuten eta hau zerbait letraka-letraka ari zen irakurtzen.

Filipp, zakar, aurpegia gorri, hurbildu zitzaion Mixari, hatzaparkada batez liburua astindu eta uzkur esan zuen:

—Jaurti horil

JAN - EDANAK

JAN - EDANAK

Juan San Martin

Jan-edanak deritzaion saila ez da berria *Egan*-en. Beraz, hau ez da sukaldaritzaren hastapena; baina oraingo hau ez da ere jarraipena. Hori bai dela gure pena.

Edorta Agirrek uste zuen *Sukaldaritzako hastapenak* zeritzan bere liburuxka harekin mende luze baten ondorenezko ekintza zela, gure literaturaren jarraipenez. Baina, gai hau, gure adiskide eta lankide dugun Federiko Krutwigek aspaldi esan zuen, eta ondo esan ere, sukaldari liburuetatik aparte ezer guti idatzi dugula euskaldunok garrantzizkorik. Garrantzizkorik ez dakit, baina sorketaz ezer eskaini badugu sukaldaritzan izan da.

Gai hau, izenburu beronekin, bikain bete zigun Antonio Arrue zenak hogei urteren buruan, 1954tik 1975.era bitartean, heriotza ondorean bilketazko lan eder bat osatuko zuena: *Jan-edanak,* 1979an argitaratua eta *Egan*-en 1978-1979. alearen 329. orrialdean komentatu genuena.

Jale onak gara euskaldunok, baina irakurle txarrak nonbait. 1889an Tolosan argitaratu zen *Kozinan ikasteko liburua* publikatu zuenak, uste zuen lehen aldiz argitaratzen zela gastronomia liburua euskaraz, baina hogetabost urte lehenago, 1864an, Baionan argitaratu zen *Eskualdun kozinera* zeritzana. Euskaltzaindiak ere, bere lehen publikapenen artean du 1920an argitaraturiko *Osasuna, merketza ta janaritza,* Ju-

lene Azpeitiak egina. Horregatik hasi ote ziren «bazkaltzaindia» deitzen? Dena dela, Euskal Herri honetan batak besteari hori deitzea, zartaginak eltzeari ipur-beltz deitzea bezalakoa da.

Orainarteko sukaldaritza liburuetan, euskaraz, denen gainetik jartzekoa da Arruerena. Errezeta ugariz gainera, balio literarioak erantsi behar zaizkio. Hein batean, hainbeste argitalpen izan zituen Manuel M.ª Puga y Parga (Picadillo) zenaren *La cocina práctica*-rekin parekatzekoa da, tarketa-marteka pasadizo eta istoriorik anitz kontatzen duenez. Edizio horrek hutsik izatekotan bat baizik ez du. Ekonomiaren urbitsetan bizi diren Aurrezki Kutxakoei bakarrik bururatzen zaie hitzaurrea frantziskotar bati eskatzea. Esan ohi denez, fraideak uste omen du guziak bere gisako, eta kasu hontan alderantziz gertatu zen. Frantziskotar peto-petoa izaki Fr. Luis Villasante; berakin maiz bazkaltzen dugunok ondo ezagutzen dugu, eta harek gai hortaz ezin besterik esan A. Arrue zenaren gizatasuna baizik. Liburua irakurtzera iritsi bazen, lepoa jokatuko nuke sukaldaritzan erabiltzen diren hitzetarik laurdenak ez zituela ezagutzen. Izan ere, «bazkaltzaindiko» buru delarik ere jangartzu edo melenge hutsa bai da gizona. Hala ere, ez dagokio eibartarrok mihiaren puntan beti erabiltzen dugun «ez jan eta ez lan». Hemen ere alderantziz, baina eibartarrok aurrezki kutxakoak baino barkagarriagoak gara, guretzat burulana ez bait da «biharra».

Euskalarien Nazioarteko Jardunaldien azken egunean, 1980ko abuztuaren 29an, Jaizubiara jo genuen afaltzera eta guziori eman ziguten *Kantabria Gaskuina itsasertzeko gastronomia* liburuxka argitara berria (Gazteleraz, euskaraz eta frantsesez idatzia, 20 x 10,5 zm.; 82 orr., urte berean Hondarribian argitaratua), J. M. Busca Isusi eta J. J. Lapitzek egina. Antton Zavalak ere lan ederra eskaini zigun Auspoa Liburutegiaren bidez *Jan-edanaren bertsoak* (1982) bildurik. Ikus urte berean *Egan*-en 185. orrialdean egin genion aipamena. Gordailuk 1975ean argitara zituen bi liburuxkak ere hor daude, *Edariak* eta *Janariak*. E. Agirreren *Sukaldaritzarako hastapenak* (1983) deritzanari ere ez diogu bere baliorik kentzen, «Aurreproposamena edo» delako hitzaurre haretan agertzen

zuen ausartasuna gora-behera. Gure aburuz gogortxo hartu bagenuen 1983ko *Egan*-en 205. orrialdean, gure orrialdeotan tokia eskaini genion, A. Arrue zenak utzi zigun hutsunea betetzeko eta gaia bera gogozkoa zaigulako. Zeren, ez bai zaigu ongi iduritzen euskaldunok geure ahalmenez zerbait sortu dugun gaia ere erdararentzat uztea. Haagatik, arrazoirik aski badugu sail hau berriz bultzatzeko, eta orrialdiok eskaintzen ditugu hortan saiatu direnentzat, bereziki Edorta Agirrerentzat.

Egan-en, sail honen eza, hutsune larria da benetan. Hutsunea ez ezik, tristura erakusten duen barau aldia esango nuke. Eta A. Arrue zenak gai hortarako hain maisuki zituen dohainak faltaarren mahaia prest dago zerbitzeko, janariz eta edariz hornitu nahi duten euskal idazleentzat. Panurgo-ren ahotik Pantagruel-i aditzera eman zionez: «Jauna, handien gauza guzietan behar da erremedio». Erremedio ederrik aurkitu zuen gero eta haagatik zion: «Laguna, edatera».

Gaurkoan, bidea emanez, nire herriko zerbait eskainiko dut, zeren eibartarrok ere, jatorrak baino aisago gara jaten onak, eta behingoan eten dezagun *Egan*-en barau luzea, asealdiak hegan egiteko ahalmena galeraziko digun bildurrik gabe.

* * *

ZENBAIT OHAR EIBARTARRON GASTRONOMIAZ

1791. urteko udaran, Gaspar Melchor Jovellanos Eibarrera agertu zenean, bertako armagintza hurbildik zuzenean ezagutu guran, Juan Esteban Bustinduiren etxean bazkaldu zuen. Abuztuaren 21a zen, hotzik gabeko eguna, baina jakiak, kaloria aldetik, kantitatez eta kalitatez, negukoak ziruditen. Bazkaldiarrak: Andres Mendizabal, Juan Andres Gabiola txispagina, Bizente Aldekoa kañogina, Juan Garagartza arma merkataria, Jovellanos eta bere laguntzan etorri ziren Peñalva aita-semeak. Eta, jakina, J. E. Bustindui bera.

Umore ona eta janari ona: okelerrea, txibiak, aingirak, amorrainak, urdeiazpikoa, gisadua eta frutak; besteak beste, okaran haundi batzuk, oilo arraultza hainakoak; doratuak ziren klaudien antzera, ondo helduak, saborez leunak, baina ez klaudiak bezain finak, hain eztitsuak eta mamitsuak. Ardo oparoa, bizkotxo melatuak eta gozokiak; azkenik, aniseta.

Fede eman nahi duenak irakur beza Jovellanosen *Diarios*. Urdail onekoak nonbait, eta bazkalondoan ez zuten ezer «armatu»; bereala armak ikustera joan bai ziren.

★ ★ ★

Zer zela uste duzute postre ondoreko edaritzat hartzen zuten aniseta? Eibarren bertan Fernández eta Diegok Bidebarrietako 14.ean zuten inprimategian 1913. urtean argitaratu zuten *Manual del arte de cocina, útil para aprender a componer de comer con perfección y economía* zerintzan liburutxoan dator «Anisete»-ren errezeta: Bi ontza anis, beste bat txarrangilla deritzaion hormabedarra *(cilatro)*, kanela baten erdia, bi itze-kanela *(clavillo)*; morkoan zanpatuz xehe-xehe egin ondorean azunbre bat pattar edo koñaketan ipini eta bi libra azukre ihota gainetik bota eta hilabetean infusioan

laga, tapaz ondo estalirik; hilabete geroztik txanoan edo oihal sarratu batetik pasatu eta botillan gorde.

Hura bai dela edaria hura! Ura ez den mama goxoa. Jovellanosen egunkariko aipamen soila ez da ezer. Neurriz edanaz, bidaia jarraitzeko kemenik emango zion, noski.

Baina, holako edari goxoan, errezetaren neurria zaintzea erraz ezta. Elgetakaleko Manuelak hor izaten zituen kontuak; aniseta gozoari neurririk hartu ezinez. Joakin aguazilak esaten omen zion, anisetaren pizgailuak *(especia)* berez ez zuela kalterik egiten, anis eta koiñak edo pattarrak baizik. Ah! bi ontza anis eta azunbre koiñak horren espirituz ipintzen zen Manuela trantzean, hitzak nahasturik eta lau haizetara deihadarka: «Biba la koiña dela Niseta!».

* * *

Aipatu dudan *Manual del arte de cocina* horretan era guztietako janarien errezetak datoz: Lapikokotik hasi eta postreak arte, kazuelako, zartaineko, parrilleko..., salda, sopa, baba, okela, arrain, hegazti eta abar, edaririk ere falta ez dela, 33 errezeta guztira.

Baina bada etxeko sukaldean ezagutu ditugun zenbait janari arrunten hutsunerik. Eta hain arruntak ez direnena zer esanik ere ez. Hara hemen adibidetxo soil bat:

Esate baterako, berenjenak albardaturik, bizi guztian ezagutu bai nituen. Egia esan, denborarekin konturatu nintzen etxe guzietan ez zela normala. Askorentzat, berenjenak, oso arraroak ziren eta zenbaitzuen ahoetatik inoiz entzun ere bai: «Kastillanuen janarixak dittuk horrek». Eta ni, mutiko nintzena, lotsaz.

Ig. Domènech-i irakurri nion *Gran libro de la cocina* (1979) haretan, berenjenak XVII. mendean sartu zirela Europan eta gehienetan okela edo gisadoen lagungarri erabili dela. Hor ba; nik uste nuen aintzina gure Eibarko arbasoak Espainiatik az-

ken moroak botatzean hegoaldera saltzen zituzten armen trukean edo ekartzen zutela janari hau; baina Iñasi Domènech-i jaramon egin behar badiogu, ez zen nik uste nuen bezala. Ustea, beti erdi ustela.

Denboraren arazoa izango da bitarte. Baina uste dut ez nenbilela guztiz oker. Maria Dolores Camps Cardonak duela dozenerdi urte *Cocina española* (1980) agertu zuenean, hara non aurkitzen dudan 42-43. orrialdeetan «Berenjenas y tomates a la moda de Eibar». Arraioa! Errezeta erraza ezta eta beste baterako utz beharko dugu. Holako sukaldaritza liburu batean lekukotasun hau aurkitzea ez da gutti.

★ ★ ★

Jose Mari Busca Isusi adiskideari aspaldi entzun nion euskaldunok guti bezain abilak ginela sukaldaritza kontuan: Ternuatik ekarritako makailoak, Erriojako piper eta tomatez, eta Andaluziako olio piskatekin «plato nazionala» asmatu genuela.

Saltsa horren gorritik eta makailo aragiaren zuritik ez ote zuten asmatu bilbotarrek bandera?

Baina, hor ere eibartarrok espezialak. Guk, bilbotarrak baino gutxiago ez izateagatik, ez Bilbo eraz eta ez pil-pil, guk makailoa gaztarekin. Arrapazak! Eibarko *Manual del arte de cocina* horretan dator, 13. orrialdean, baina ez uste zenbaki horrek sorte txarra ematen duenik. Eibartarrok, hilkor guziak bezala, gure akatsak izango ditugu, baina superstiziorik gabeak gara; aspaldi espabilatuak. Oroi, Eibarko pistoleri esker alde zutela betiko sorginak Euskal Herritik.

Makailoa gaztarekin errezeta laburra da: makailoa egosi ondorean gazta karrakatua, ogi mamiz estaltzen da eta kolorea ematen zaio.

Eskua hartu behar zaio eta eibartarrak ez dute nahi pro-

mosionatzerik. Bestela, auskalo! Lehen ere horregatik dago hainbeste kanpotar: etorri, probatu eta gelditu. Itzultzerik nahi ez. Tati! Gero, eibartarrontzat ere lekurik ez.

★ ★ ★

«Arroz con leche» ere, guk, espeziala: kuartillo bat esneri liberdi azukre bota; sutan berotzen ipini lapiko berri batean kanelarekin, limoi eta laranja azal karrakatua, makats esentzia *(esencia de bergamota)*, eta irakinez hasten denean arroza bota, aurraz gatzakin erdi egosirik dagoela, eta etengabe eragin esnea ebaki ez dadin.

Hura bai dela izatekoa. Esku-liburu hori argitaratu geroztiko kontua, jakitekoa da.

Baserritik jeitsi zuten gurasoak ofizioa ikasteko sasoian zegoen mutil koskondua, Eibarren lantegirik lantegi. Hobeto esan: taillerik tailler, erabili zuten ofizio mota guztiak erakutsiaz gogozkoena hauta zedin, eta han pintxe edo ikasle sartzeko asmoz.

Eguerdian Badeteneko jatetxean bazkari eder bat gurasoekin, bere nahia lasai ager zezan. Halako batean, aitak, zer ofizio gustatuko zaion jakin nahirik, galdea:

—Beno, mutil; esaidak, zer gustatu jak gehien?

Semearen erantzuna:

—*Arroz kon letxe.*

★ ★ ★

Eibartar askoren artean nahikoa zabaldua dago gerra aurreko auzo edo kalekoek elkarturik bazkariak egiteko ohitura, aintzinako denboren oroitzapenez.

Arrandegi kalekoek (Arrañekalekoek) ere, besteak baino gutxiago ez zirela ta, pentsatu zuten bazkaria egitea. Egundoko asmoekin hasi ziren bilerak egiten eta jakitekoa zen haiek antolatzen zuten menua *Egan*-en sail honetarako. Baina, bazkaria organizatzeko bederatzi afari egin zituzten eta, azkenerako, bazkaria suspenditu.

ADABAKIAK

Eibartar askoren artean nahikoa zabaldua dago gerra aurreko auzo edo kalekoek elkarturik bazkariak egiteko ohitura, aintzinako denboren oroitzapenez.

Arrandegi kalekoek (Arrañckalekosk) ere, besteak baino gutxiago ez zirela ta, pentsatu zuten bazkaria egitea. Egundoko asmoekin hasi ziren bilerak egiten eta jakitekoa zen haiek antolatzen zuten menua *Egan*-en sail honetarako. Baina, bazkaria organizatzeko bederatzi afari egin zituzten eta, azkenerako, bazkaria suspenditu.

ADABAKIAK

MARKATIK KANPORAKOA.—Txominek agertu zidan lehengo batean, aurreko Adabakietan «Euskaraz hautsi zure marka» zeritzan artikuluan ez genituela era hortako guziak sartu. Ez ba. Etorriak eta datozenak, guziak sartzen hasiko bagina, gu geu ere ez gara libratuko, eta libratu ezik kiloka baino aisago toneladaka material bilduko genuke. Hala ere, Txominen ustez, badira iragarkietan bitxikeri nabarmenak, jaso gabe utzi genituenak artean eta horietatik berezienetakoa Bizkaiko Batzar Nagusien bulegoetan jarriak.

Zer jarri zuten Txomini galdetzean, honako hau izan zen erantzuna:

—*Grupo Político de las Juntas Generales*, «Batzar Nagusien Erriketa Taldea». Aurre aurrean.

Manuelen ustez, oso ondo jarria omen:

—*Erriketa* hori Mendaro aldean erabiltzen den *Errieta (=reyerta)* hitzetik jasoa izango denez eta egungo politikoentzat ondo betetzen duelako; beti erriertan ari direnez, «Errieta Taldea».

Baina, guk, hori ezin ba sartu euskaraz markak hauste horretan, hori markatik kanporakoa denez.

DONOSTIARRAK KAXKARINAK?—Manuelek aditzera eman digunez, zenbait donostiar kexaz omen dira aurrekoan (*Egan*, 1986, 1-2 zenb., 156 orr.) «Kaxkarinak direla esan ohi dutela» jarri genuelako. Gure aldetik ez da asmo txarrik egon ordea. Beraz, ez dezatela txartzat hartu. Guk ez dugu ezer asmatu. Gustatzen zaien ala ez, hori beste gauza bat da. Agian, «kaxkarinak», «kaskoinak»-en deformazioa ez ote? Denok dakigu garai batean kaskoinik anitz bazela, eta «Donostiarrak kaskoinak» bidezkoa dirudi.

BIRAOA ETA LIZUNA, HIZKUNTZAREN OSASUNA?— Iragan apirilaren hastapenetan Espainiako telebistatik Camilo Jose Cela astoaren penak ziren euskaldunon epaigarri, Meliá andereñoak euskararen biraorik eza aipatzean: euskarak ez omen du biraoetarako ahalmenik, hori omen gure hizkuntzaren pobrezia eta horrek gure kultura tipiagotzen. Gurean ere ezer sobera bada, takoak dira.

C. Jose Cela-k harrotasun haina jakituria balu, ez zen eroriko xinplekeria horietan. Euskaldunon ahoetan maiz erabiltzen den «alua» zer den baleki, bere arinkeriagatik «izorraturik» aurkituko zen. Baina sabelaundi zentzu kaxkar horregantik besterik zer espero genezakean? Garai batean alkandora urdinez dotorezian ibili zen Espainiako intelektualik hoberenak isil, presondegian edo exilioan zeudenean.

Modus vivendi-k eraginikako beranduko damuak eta literatura zikinaren bidez ospea puztera etortzeak inoiz ez du justifikatuko Franco-ren zentsuran partaide izatearena. Bere ustez, nonbait, birao eta lizuna naro erabiltzetik dator gaztelerazko literaturaren aberastasuna; beste norbaitentzat aberetasuna baldin bada ere. Baina, dena dela, horregatik zetorkion tipi bere gailegoera jatorra. Eta, hori horrela ez bada, handi-mandiaren gaitza izanen da.

Gure kulturaz ezer jakitekotan gastronomiaz soilik daki tripazai horrek. Eta ez daki guk tripazaiak mokofinengandik berezten ditugunik. Baina zer jakin lezake *biraoa* eta *zina* berezten ez dakitelako bientzat *juramento* erabiltzen badute?

Alkarriako mintzaira ez da gurea, eta ulertze kontua bakoitzaren baitan dago; ez ordea berak ulertzen ez duen hizkuntzaz eritziak ematean.

Zoritxarrez, behin izan nuen Camilo Jose Cela-rekin pertsonalki mintzatzeko aukera. Zelako sarrera, halako harrera. Haizeak altxa zituen eta ekaitza jaso zuen. Kultur munduko

jendearen bilera batean zen, erregearen deira urtero ohi den horietakoa, demokraziaruntz abiatu ginenetik. Ikustekoa zen Camilo-ri zein jaramon guti egiten zion Madrid-en bildu ziren intelektualek. Une batean ni nengoen taldekoengana hurbildu zen, nok jaramon egingo zionari begira. Zerbait esan beharrez, nongoak ginen galdetu zigun. Bakoitzak bere jatorria agertu zion eta nik euskaldunarena. Orduan, oilarraren antzera burua altxatuz esan zuen: «*El país vasco no ha dado hombres de cultura*». Hitzetik hortzera erantzun nion: «*Hombres*, ematea ez zela guti Iberiako eremuan». Baina, jadanik, Pio Baroja eta Unamunogatik ez zuela hori esango. Banakarenbat eman direla aitortu zidan. Baina, orduan iritsi zen nere txanda, banaka hori bere jakintza mugatuaren ikuspegitik eta gaztelera soilaren bidez ezagutzen zuena baizik ez zela, erantzun nion; baina, euskararen bidez zer? «Ba, euskara —mesprezuki ihardetsi zidan— kultura klerikala». Hainbeste aldiz «*Hable en cristiano*» esan diguten hizkuntzatik hori ere entzun behar. «Camilo, gureak ere, edozein herrik bezala, aurpegirik anitz badu. Gaur egun edonor daiteke antiklerikal, lehenago zentsuran partaide izandu zirenak ere bai; baina, ni, Franco-ren garaian Espainiako Estadu barnean zibilezko ehorzketak egiten ziren hiri bakarrekoa nauzu, eta hiri hori Euskal Herrikoa da». Hori entzutean harritu samar begiratu zidan, «Zein hiri», galdetuz: «Eibar», erantzun nion. Eta, jakin dezazun, norbait ondoezik denean ez dugu esaten: «*Hoy, no estoy muy católico*» edo antzerakorik.

Bereala, ingurutik alde egiteko gogoa nabari zitzaion. Sineskaitza bada ere, gauetik goizera mundu guzia oso demokrata bihurtu den Espainian holako gertakariak posible dira, beren buruak orain demokrata intelektualtzat dituztenengandik. Posible ez zena, zera zen, guztiok hain demokrata izanik berrogei urtez diktadurapean bizitzea.

Gure elkarrizketa entzunaz, ingurukoen artean izua, harridura eta irrifarra nabari zen. Hala ere, giroak bare iraun zuen, baina ez ordea tripazaiaren barrenean. Barkatzerik eskatu ezik, barkamenik zor ez. Bera haritik landa irten zenez, nik beste hari bat eskaini; baina amuarekin. Horrela erori zen izurde hura.

Bueltak hartuz galde egin nion ea oroitzen zen aspaldi Zarauzko Itxaropena Argitaldariko Patxi Unzurruntzagari kontsultatuaz, euskaraz *orina* eta *pis* berezten ziren eta zer izen zuten. Patxiren itaunari erantzunez *gernua, garnua* eta *pix* eta *txiza* eman nizkion, bere zikinkerien bildumarako, noski. Zeren *pis, chis, pipi* eta antzerakoak bilduz Europa guzian ikerketa egin nahi omen zuen guziok iturri ber-bera dutenez. Jakina baietz iturri berdinetik datozela. Baina ez keltatik sortuz sajonaren bidez edo uste duen bezala. Don Camilo jaunak holako kamelorik ez digu sartuko, hitz horiek onomatopeya edo eginaren hotsa dute sustrai eta ez halako edo holako hizkuntza. Zuentzat «*kikirriki*» dena, guretzat «*kukurruku*».

Bere burua kulturaduntzat zuenaren ahotik arinkeria horiek entzutea sineskaitz egiten zait. Era eta tonu hortakoak izan ziren nere azken hitzak eta laster ospa egin zuen gure ondotik.

Atagatis bakoitzarentzat beti omen da Trioti bat, eta geroztik ez zait hain txarra iduritu Felix de la Fuente y Marquínez de Beltrán-ek *Universitas*-en 28. orrialdean eskaini zion soneto hura:

Cenceño y comba espiga de Camilos,
Aguanta chaparrones de sus vientos,
Madura captaciones de momentos,
Intriga baconiano a los tranquilos.

Legítimo bull-dog de los vesilos,
Otea decisivo los intentos,
Jalea con su sorna los aventos,
Obtiene partición de los esquilos.

¡Sacúdase Camilo muchas veces
El polvo! ¡Yo le debo verdad digna:
Centavos del haber que me consigna!

Erguido en mundo indocto de memeces
Le vi «girar al bies» su vista un poco
A ver a quien «los vainas» llaman loco.

Horiek dira kontuak biraoa eta lizuna, hizkuntzaren osasuna direla uste dutenena. Piarres Lafitte zenak Gazte bati Literaturaz idatzi zuen gutunean erakutsi zigun C. Jose Cela-ren haina, literaturgintzaren eremua zein zabala zen, eta Ramon Etxezarretak bere hiztegi erotikoan C. Jose Cela-ri gustatzen zaion uztarren berri. Urri bada, hizkuntzaren eremuaren urritasunagatik izango da, baina inola ere ez ahalmenik ezagatik. Bere burua kulturaduntzat duenak horrenbeste jakin behar luke. Duela bederatzi urte eman nuen horren berri bi artikuluren bidez (gero *Bidez* deritzan liburuan bildu nituenak, ikus 254-261 orrialdeak). Han ere esaten nuen, erotikaren gordintasunean Hita-ko Arziprestea tiki gelditzen zela gure Detxeparen ondoan. Hori jakiteko ere euskaraz irakurri behar. Eta, herri literaturaz aparte, Etxeparez gainera zikinkeririk ere isuri da osasungarritzat den ala ez kontutan hartu gabe. Euskararen indarra nabariagoa izanen zen garaiz eskubidetasuna izan balu. Baina, zentsurak izan du gizonik garaiz damutu behar zenik, eta noizbait damutuak beste muturretik jo behar beren gaiztakeria estaltzeko. Hau ez ote C. Jose Cela-ri gertatua?

Orain, nazioen kulturak berezteko, C. Jose Cela-ren aburuzko baremoak erabili behar baditugu, gertakari ezagunaren araberazko konparaketak beharko ditugu: Adibidez: Autoz zijoan inglesa, semaforoa berdez jarri ondorean ere lasai, eta atzetik zuen espainola larri. Handik hurrengo semaforoan ere berdin, inglesa bere parsimonia osoarekin pipia erreaz, patxadan, eta espainola egonezinezko urduritasunez. Haruntzago, gauza bera; baina, ez bat eta ez bi, espainola hasi zitzaion oihuka, bizkorraraziz, eta inglesaren hitzak honakoak izan omen ziren:

—Pazientzia, birtute handia da (William Shakespeare).

Eta espainolak ihardetsiz:

—Puta-seme aluori (Camilo Jose Cela).

Hein batean hori da idazle batek eta besteak beren kulturaz mundura agertu duten itxura. Azken batean, C. Jose Cela-ren ospea, hospela.

BIBLIOGRAFIA OHARRAK EDO *UNIVERSITAS*-EN UKA EZINEZKO UNIVERSALTASUNA.—Ez dakigu zerk ematen duen askoren ahotan maiz erabiltzen den «universaltasuna», baina hori inondik ere ezin zaio uka arestian aipatu dugun Félix de la Fuente Marquínez de Beltrán-en *Universitas* liburuari, egilearen zentzutasuna alde batera utzirik.

Gainera, liburu hori ez da agertzen gure bibliografia zerrendetan eta zenbait ohar merezi du lerro hauen bidez.

Denok universokoak izanik ere, zenbaitzuen ustez, guk gu izateari utzi behar diogu nortasun zabal hortaz jabetzeko. Holako aburuz mintzatu zitzaidan bati, behin honako hau erantzun nion: Hobe zenduke gu zu garan neurri berean, zu gu bazina. Eta ni ez naiz «Euskalduna naiz», «Euskaraz badakigu» eta horrelako iragarkiak bulegoko mahaian edo horman jartzen dituena, ez; nik, jartzekotan ere, «Erdaraz ere badakigu» jarriko nuke, herbestekoentzat baino etxekoentzat premiazkoago den ustean.

Universora idekirik egoteak ez du balio norberari hertsirik badago; norberetasunik ez duenak ez bai du nortasunik.

Iragan den apirilean Mircea Eliade jakituna hil zen, baina gure inguruko egunkarietara begiratzen badugu, hainbeste «universalista» enteratu gabe zendu zela ageri agerian dago. Bazirudien «vasco universal» eta «español universal» horiek bat batean itzali zirela, zeren bestela nola daitake inor ez oroitzea?

Askotxo horien ahotan maiz erabiltzen den universaltasuna, besteen kulturak ezagutzearen neurri araberazkoa baldin bada, Félix de la Fuente Marquínez de Beltrán irakasleak lehen maila behar zuen. Baina, hara hor bere *Universitas (trifinii pronominisque)* bibliografia zerrendetan sartu gabe. Egia esan, ez du argitalpenaren urterik, ez eta ere orrialdeen xehetasunik, seirehun burutuarren. Valladolid-en

Editorial Gerper-ek argitaratu zuen mila bederatzirehun eta hamargarrenetan «Absoluto-relativismo»-ren egile zenaren liburu hori.

Bitxia benetan, gehiena eskuizkribuz konposatutako liburu hori. Gazteleraz eta latinez ez ezik, griego, ingles, frantsez, italieraz, hungrieraz eta alemanez ere zenbait idazki eta hiztegi biltzen dituen liburua. Bere universaltasunez inork zalantzarik badu ere, erudiziorik ezin uka, *Complutense* hura baino poliglotago denari. Crisostomo Eseverri Hualderen haina grekera ez du izanen. Hainbeste ez genioke eskatuko. Baina metodologia zerbait gaineratu balio, probetxugarriagoa ziteken.

Ogetako seme Prof. Félix de la Fuente Marquínez de Beltrán-ek liburu horretan zer ez du ikutzen? Geroago, 1963an argitaratuko zuen *Episemion* deritzan hura tipi gelditzen da *Universitas*-en ondoan. Bere teoriazko «Absoluto-relativismo» horren bidez arimaren mekanismoetara garamatza, liburuaren hasieratik, eta hori iresten duenarentzat aurrera jarraitzea ez da gauza zaila, zeren ondotik «Buby nire alaba»-ren ehun hamalaudun edo soneto dakartza, erretolikazko analisia burutuz. Don Jaime Etxebarria Uribek «sua sponda»z lasterka batean piloto argiak adarretan dituela erretolikaren irudiz egindakoaren aburuak tartean sartzen dituela. Horretan, 102. orrialdera iristen gara, baina ez larritu, zeren hor arnasa lasaitzen zaigu «La región de los pastores vascos en Norteamérica» (Galdetzekoa litzake universalagoak nortzuk diren, hango artzaiak ala hemengo hiritarrak). Lau orrialde baizik ez ditu gai hortaz. Hala ere, harritzekoa da adiskide Jon Bilbaok honen berririk ez izatea. Artikulu horren gaia: euskaldunak noiztik eta non zabaltzen diren, izakera, folklorea, jazkera, ohiturak eta abar, amerikano bakoitza Cid edo Kixote Mantxako (?) sentitu arteraino. Gainera, jazkerok, euskaraz mintzo direnen artean baizik ez omen dira ikusten.

«Buby nire alaba» sonetoak inglez, griegoz eta latinez ematetik azken hizkuntz horietako klasikoen zatiak ere hor jasotzen ditu. Klasikoenak ere, grekera klasikoetatik hasita. Hortik pasatzen da Timesmon japoneraz ematera. Harun-

tzago ezin ninteke joan. Zuk esan, irakurle ia hori ez den universltasuna.

F. de la Fuente Marquínez de Beltrán, hizkuntz irakaslea, griego erakasteko «Cháritas» metodoaren sortzailea genuen. *Episemion* deritzan hartan agertzen du bere sistema, teoriaz eta praktikaz, hizkuntza hilen sintaxia ikasteko, griego eta latinean oinarriturik. Lastima euskarari aplikatu eza. Arauok ez dakit zenbateraino balioko zuten, baina bere garaian ez zen gaizki etorriko, bertan isuritzen duen umoreak ere on asko egingo bai zigun.

Gaztelera zurrupatzailearen berri bazuen, Antonio Tovar-ek 1951an idatzi zion gutunak erakusten digunez: «*Al cabo de tantos años y de tanta historia pasada desde entonces, celebro mucho encontrar al colega De la Fuente y Marquínez de Beltrán en los mismos románticos afanes de intentar enseñar lenguas (alpha, beta, gamma... y hasta el omega) en este país que lo único que hace es procurar imponer la suya. ¡Admirable constancia la suya, manifestada en el método Cháritas, cuyas jenofontiacas hojas para el tomo delta y épsilon examino gustoso y aplaudo!*». Baina, halakoak ziren urte haiek.

Liburuaren erdialdera, ez dut esanen zein orrialdetik hasita, baina bai larogei orrialde luze betetzen dituela, «Trifinium» (Treviño) deritzan kapituluak. Bertako historiaz, toponimiaz, mintzatzen diren (edo ziren) jergaz, egilearen leinuaz...

¿Sería huéspeda de Muergas
Doña Berenguela
en ca de los antepasados
de tia mi abuela
la Doña Manuela?

Eta jatorriaz pozez idatziko du, zeren «Soy trevinés» (Soy el rey mismo) esatea hainakoa zenez. Holakoa omen zen tribinoarren ospe eta ohorea.

Liburuaren azkenaldera zenbait hitzaldiren zati hautatuak eskaintzen ditu. Adibidez, 1932an Gasteizen esistentziari buruz eman zuenarena, bere ondotik «Concepción definitiva del espacio, tiempo y movimiento», 469. orrialdean, zenbait exenplutzat euskara harturik. *Huts* ikertu zuen, Anjel Goenaga jesuitak baino lehen. *Neu, zeu, deu...*, aditzetatik oso erraz eta bizkor eramaten gaitu *zeu, deu*-ren bidez sanskritozko *diu*-ra eta hara hor Jainkoaren aurkikuntza. Lastima Santo Tomasek euskararik ez jakitea, zeren idazlana asko erraztuko bai zuen.

Bere ikerlana hor ez du bukatzen, ez. Gure egunotan hor dabil Rementeria ingeniaria zenbakien bidez euskararen sorrera aurkitu duela uste duena, baina laburrago eta zehatzago aurkitu zuen De la Fuente Marquínez de Beltrán-ek hizkuntzen sorrera, 470. orrialdean dakarrenaren adibidez.

Hitzen jokoaz ederki mintzo zen 1935ean Donostian eman zuen hitzaldian, ikus 484-491. orrialdeetan, Erregetza eta errealitatea gaitzat harturik. Atzerago, Donostiako Café de París (lehena Raga zena) zenari poesiak eta artikulu bat datoz liburuaren azken partean.

Ezin esan liburu hau entretenigarria ez denik.

Bertsoak eskaintzen ditu tarteka-marteka, zenbait pasarteren oroigarri. Hortarako berdin zaio Mungiako komentuko monjeri edo Gasteiztik igaro zen batean hango lagunekin egin zuen txikiteoari. Denak ditu literaturagai.

Bukaeran Odon de Apraiz zenaren eskuizkribua dakar, euskaraz idatzia. Hau dio:

«Nire adizkide on Ogeta'ko philologo edo izkuntzalari bikaña dan Lafuente edo Iturria ta Markiniz'tar Belixeri bihozki».

A.'tar 0.
Gasteiz'en 1954 Irailla

Nork eta zerk mugatzen du gizonon arteko universaltasuna? Ni bai eta zu ez, dioanari; ni zu naizen neurri berean,

zu ni zeranean mintzatuko gara, erantzun bakarra. Baina, usteak uste, bibliografietan ere hain jaramon guti egin zaion Féliz de la Fuente Marquínez de Beltrán-en *Universitas*-i inork uka ezin bere universaltasuna, izenburuak dionez eta edukinaren poliglotasunagatik.

ETXERAKO DIRUA?—Donostiago Aurrezki Kutxak bideetan «Etxerako dirua» eskaintzazko iragarkiak jarri ditu aurten. Izan ere, krisi luze honen ondorean holako laguntza beharrezkoa zen.

Aurrezki Kutxa horren zenbait sukurtsaletan txanda hartzean izan dira istiluak eta atsekabeak. Etxerako dirua jasotzeko asmoan joan eta eman ez. Zelako desiluzio. Etxerako ez, etxearentzat eskaintzen omen da, eta ez errediturik gabe. Hor ba; ustea, erdi ustela.

TRADUCCION SIMULTANEA.—Roiz Olabeguenagakoaren ustez, «traducción simultánea»-ren erabileran, euskaldunok ez omen diogu katalanei zorrik. Haien teknikak hainakoak edo hobeak omen dira hemengoak.

Justo Egiategi, harri eta zuhur: Hala diotenez, egia izanen da. Diferentzia bakarra, hango politikoek itzulpen simultaneoa erabiltzen dute katalanetik gaztelerara eta hemengoek aldiz gazteleratik euskarara.

Nork esan du euskarari aukerarik ez zaiola ematen?

ASTERIX KOMIKIAK ETA G. ARESTI.—Aurtengo apirilaren 12an, adiskide Angel M. Ortiz Alfau-k «Miscelanea vasca» zeritzan artikulu bat argitaratu zuen Bilboko *El Correo Español*-en, beste zenbait gauzaren artean Gabriel Arestik

Ediciones Júcar-eko Silverio Cañada-ren bidez Asterix-en obrak euskaratzeko eskabidea hartu zuela eta lanori zertan zen galdetuz.

Hara hemen zenbait ohar gai horretaz dakidana agertuz. Itzulpen enkargua hartzetik laster hil zen G. Aresti. Zenbait zirriborro prestatu omen zituen baina lanik apenaz burutu zuen. Horietarik zerbait pasatu zen Jesus Mari Arrietaren eskuetara, argitaratzaile arduradunagandik. Ezin nezake ziurtatu itzuli zuen guzia ala parte bat. Baina Jesus Mari berak ezan zidanez, guti aurkitu omen zuen aprobetxagarririk eta goitik behera berriz itzuli beharren aurkitu omen zen.

1976-tik 1978-ra Coscinny-ren egiletzan, Uderzo-ren marrazkiz, Dargaud etxearen jabegopean Mas-Ivars Editores, S. L.-ek, argitaratu zituen baina itzultzailearen izenik gabe, euskal itzulpenen jabe eta banatzaile bakartzat Iñaki Beobide. Argitaratutako liburuen izenak: *Asterix. Buruzagien burruka; Asterix-en ibilaldiak; Asterix eta Kleopatra; Asterix Legionarioa; Asterix eta normandoak; Asterix Helvetian; Asterix galesa; Asterix eta godoak* eta *Asterix eta urrezko igitaia.* 29,5 x 21,5 zm. neurrizko liburuxkak, 48 orrialdekoak, kartonez enkuadernatuak.

Uste dut argitalpenok ahituak direla. Dena dela, hori da eman genezakean argitasuna.

«BADAKIGU EUSKARAZ».—*Egan*-en zuzendari izanik bulegoko mahaiaren gainean euskaldun askok ohi bezala «Badakigu euskaraz» zergatik ez dugun? Iragarki hori ghetto baten parapetoa iduritzen zaigulako. Guk, jartzekotan ere, «También sabemos castellano» jarriko genuke.

Eta ia euskaldun berriei eta hain berri ez direnei nork irakasten dien, *ghetto baten* parapetoa eta *ghetto batean* parapeto ez dire gauza bera. Hortik ikus *batetan* non koka.

LIBURUAK

LIBURUAK

JOSEBA SARRIONANDIA.—*Ni ez naiz hemengoa.* Akademia Sekretuaren Liburuak. Pamiela Editoriala. Iruña, 1985.

Iragan urtean Iruñean plazaratu eta hiri nagusietan aurkeztua izan zen liburu hau. Aurkeztza orkestatuak inoiz ez dio onik egingo euskal literaturari eta gutiago egileari. Jon Juaristikin gaude pundu horretan, mitorik ez sortzearen alde eta erantzun kritikoaren alde. Joseba berak ere hori nahi bai du, J. Juaristik Jacques Rigaut oroituz eskatzen zuenaren arabera.

Hala ere, gure egungo asmoa ez da kritika zehatz bat burutzea, zenbait ohar egitea baizik. Itsumustuan ari direnen abururik anitz irakurri ondorean ez baita erraza behar bezalako kritika egitea, edo kritika behar bezala jasotzea. Emaileak haina prestutasun behar bai du hartzaileak, eta kaso honetan ez gaude egoera egokian. Uste dut, Joseba berak argi ta garbi agertzen digula bere mezutza zertan datzan: «Ene gisara ordenatu ditut letrak, baina letra arteak zeuk antola ditzazula eskatzera nator. Ez uste izan ene izkribuetan, zeuk zerbait utzi gabe, ezer aurkituko duzunik. Nik buztinezko untzi bat ematen dizut, zeu zara bete behar duzuna».

Egileak laberinto batean sartzen gaitu eta zernahitarik aurkituko dugu horma meharren artean, irtera emateko asmorik gabe. Gizonontzat haina herrientzat balio duen laberinto saretsua. Izan ere hala da gure mundua.

Han-hemenkako irakurketaz egiten dituen gogoetak, edo gogoeta sintesiak, eskaintzen dizkigu Joseba Sarrionandiak, zalantzazko galderaz beterik, irakurlea kezkatzeko eta irakurleari pentsarazteko bezalakoak. Alde hori oso positiboa du. Probetxu handikoa litzaiguke euskaldunok irakurketarako ajerik ez bagenu. Baina hori da gure ahulezia.

F. Urondo-ren bertso batetik hartzen du bere titulua liburu honek. Eta, Ebangelioko «nire erresuma ez da mundu

hontakoa» gogorazten digu. Esaldi horren ideatik Unamunok eritzi ederrik eman zuen abertzaletasunen aurrez-aurre bere *La agonía del Cristianismo* liburuaren sarreran. Nork uste du abertzaleok Unamunogandik ezer ikastekorik ez dugula? Bakoitzak komeni zaion eran erabili du gizon ospetsua, eta zentzudunok ez dezagula egin beste horrenbeste Sarrionandiarekin. Gainera, adinak berak ez dio ematen era hortako saiakerak behar duten haina erudizio. Horregatik, irakurketak agertzen ditu, sakabanaturik eta solte, bereri buruz sugerentzia haina subjektibotasun erakutsiz. Horrek egiten du segidan irakurtzeko nekegarri ez ezik aspergarri ere bai, gaiak jauzika laburretan datozenez. Tarteka-marteka zatiak irakurtzea atseginagoa da.

Klasikoen zabalkuntzaz, polita ez ezik eder egiten zaigu, gai horiek, bereziki saio gisa, guti erabiliak ditugulako (kasik erabili gabeak esango nuke); baina, inoiz sakontasuna falta zaie.

Kuriositatez beteriko liburu da, gai eta ideen elkartasunik gabekoa. Horrek ematen digu laberinto misteriotsu kutsua, baina era berean seriotasuna murriztu.

«Soneto bat hizkuntza bitan» (87-90. orr.) delakoan salatzen duen aintzinakoen joera ustela kontatzean egoki zetorkion *Egan*-en aspaldi gogorazi genuen Klaberiaren bertso hura, XVII. mendearen lehen partean idatzia (ikus, *Egan*, 1954ko 2-4 zenbakiaren 24. orrialdean):

Burlatzen naiz Garibai-ez
Bai halaber Etxabe-z
zeinak mintzatu baitire
Erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenak geroztik
Eskaldunak hek biak
Eskaraz behar zituzten
egin bere historiak.

Eskaraz egin dituzu,
Etxeberry, zure obrak
Ohoratu nahiz zeure
ahalaz herritarrak.

Euskaldungoaren politika buruzagien eta kulturgintzan ari direnen artean, bereziki euskal idazleekin, komunikaziorik eza da gauzarik izugarriena. Nekez eta atzerapenez iristen dira intelektoen ideiak populuagana, eta politiko agintariek iraganean mugaturik dabiltza. Hori da gure arteko errealitate larria. Euskararen reinbindikapenekin oihartzunak, baina talde politiko abertzaleek erdaraz egin. Madrid-eri errua; eta guri erroa falta. Kulpak kanporatzeak ematen bai digu barne lasaitasuna.

Oraingoan, Sarrionandia, bertako etnologiaz ere ari zaigu, gehienetan bere herri eta gurasoeneri mugaturiko eraskinak agertuz. Horregatik, batzutan, harrigarria iduritzen zaigu sinonimiaz «haur», «hume» eta «sein» nola lotu dituen «txotxo»-gana (25. orr.), funtsean «txo» baizik ez dena; «bai» den bezala eta ez euskaldunogandik hain maiz irtetzen den «baibai» errepika. Holako gauza bitxirik bada. Ondoreko orrialdean bezala (26. orr.), seaska kantan ez dut ulertzen nola ez den konturatu «lololin» hori, «lolo-in (egin)» baizik ez dela. Orri berean, «obé» eta «oba»k ere ez dute bestelako misteriorik, Bizkai-Gipuzkoetako mugetan ezagun den «Obea» = *ohea* baizik.

43. orrialdean ere bada euskalgaitik aparteko alperrikako errepikatze bat: «grabadorearen xilografia». Baina, gizona!, xilografia beti da grabadoa! Eta, gai berean, sinbologiaz ari denez, Apokalipsian zaldiak dira sinbolo eta ez zaldunak. Hortarako, bukaeran berberak jartzen duena du adibiderik ederrena «Beren atzeko zangoak ez dira ikusten, beraz, ez dakigu nondik datozen. Ez da ikusten zer begiratzen duten ere, zaldunen begiek». Zaldunenak ala zaldienak?

T. S. Eliot poetaren *Lur Eremua*, eremua soilik ez ote zen aski? (45. orr.). Eremuak berez bait du lurra berakin. Pentsatu gabe ere erraz ikus daiteken gauza da. Baina, bestalde, «Literatura Historikoaren gainean» deritzan artikulua inork uka ezin oso ona ez denik. Eta, liburua zehar, holako gora-beherak agertzen dira. Kalitate orokorra desorekatuz. Hizkuntzaren aldetikoak gehien larritzen gaitu, joria eta ugaria izanik, ideiak argi eta garbi agertzeko ahalmenik falta ez

zaiola ere, atzizkietan huts nabarmenak ageri dira. Durango aldean ezer jator erabiltzen bada, hori da hain zuzen, eta huts horiek adierazten digute gazteetan erori dela nonbait. Berrogetahamaboskarrenean dion bezala, «anakronikoa da, denbora haro desberdinak nahasten dituelako». Aro desberdinez gainera, alperrikako du «XV.mendekoak bertakoak», mende bertakoak aski denez. Baina, *peccata minuta.*

Arthur erregea aro konkreto batekoa ez izatea, naiz norbaitzuk zehaztatu, oso normala da etnologiaren alderditik begiratuta. Mircea Eliade aipatzen duenak horrenbeste jakin behar du.

Rafael geroztiko «Prerafaelistak» ordea, gure irakurlegoaren aurrerako oharpen geiago merezi zuen, eta John Everett Millais-ekin batean Holman Hunt zela sortzaile.

Koloreetaz baditu zenbait saioerazko irizpide (84. orr.). Jartzen dituen adibide batzuk zehaztasun gehiago behar dute. Bestela, badakizute zer gertatzen den gure artean: doktrinak hala jartzen du eta kitto. Salbu Ermuan edo, «begizuri» erabiltzen den lekuetan ezik ezagutzen da urdina. Nafar-giputz begi urdin, Bizkaian begi zuri.

Lamina-rekin ere bada holako nahaste bat (ikus 89. orr.). *Maitagarri,* ordezko bezala, joan zen mendeko erromantikoek asmatua da. Lamia, erromaniko elizen irudietan agertzen zaigunez, gehienetan gerritik beherakoa hegaztiz duen emakumea da, gutiagotan arraina. Baina gerritik beherakoa arraina duen emakumea bada itsasotik aparte ere, lehor barneko ibaietan agertzen zena, gure mitologia zaharra lekuko, eta Bertiz haraneko harmarrian dugu argi asko, Hondarribiakoan geroago gehitu zuten ber-bera. Horretaz, Barandiaranek nahikoa argi ematen digu *Diccionario Mitológico vasco* delakoan.

Croce-gandik hasita «Egungo pentsamenduaz» ematen duena oso polita da. Bertako irudietan, kultur tradizioan eta moderno adierazgarri direnetan, Kandisky aipatzea falta zaio, zeren marrazki bidez nork eta nola eman dezake argiago?

Guk berriz ere, penaz aitortuko dugu, hizkuntza jori ho-

rri norbaitek orraztapena ez ematea. 115. orrialdea adibide, irakurleak esango dit ia hainbeste «egin» ez ote dagoen sobra. Egunkariaren propagandaz bada, isiltzen naiz; baina, bestela mingarri zait: «...hil egin zituen», «...herbesteratu egin zen», «...itzuli egin da». Zuk esan, irakurle, «egin» horiek gabe ez ote zegoen hobeto. Orrialde batean, batabesteraren ondorean, hainbeste «egin» pentsaraztekoa da. Baina, oraindik gehiago da R. M. Azkueren kantu zaharren bilduma badela (120. orr.) jakitea. R. M. Azkuek bilduak ez ote? -ek eta -ren ez bai dira gauza bera, Durangaldean behintzat.

Horiek gora behera, liburu ederra da. Ez sinbologia sakondu duelako, baizik gure mendeko kezkak aztertzen dituelako, edo behinikpein planteatzen dituelako.

Urak inoiz ez dira gelditzen lehenean, usteltzeko ez badira; eta, neurri batean, korrontari berea egiten uztea dugu etorkizuna.

J. S. M.

OHARRA: Zoriona opa diogu kaiola barrutik «egan» egin duen euskal idazleari. Eta, xori ona den aldetik erakutsi bekigu guri ere *Egan* hobeto egiten.

★ ★ ★

MARGUERITE YOURCENAR.—*Hadrianoren oroitzapenak.* Eta eraskin gisa Hadrianoren oroitzapenei buruzko oharbilduma. Itzultzaile: Joxe Austin Arrieta. Erdal Literatura. Elkar. Donostia, 1985.

Marguerite Yourcenar-en eleberri hau ospe handia hartuz zetorren 1951an lehen aldiz argitaratu zenetik. Eleberri hori asmatzeko Flaubert-en gutun batean irakurri zuen esaldi batek sortu zion kezkaren ondorioko ideetatikoa omen: «Jainkorik ez zen ia, eta Kristorik ere ez oraindik, eta Kikeron-rengandik Marko Aurelio-ra hutsune bat izan zen gizona bakarrik aurkitu zena». *Hadrianoren oroitzapenak* eleberriaren egileak horren arabera agertuko zuen beste esaldi hau: «Nire bizitzaren parte bat igaro dut definitu nahirik, gero deskribatu nahirik, alderantziz guztiekin harremanetan jartzen den gizon bakarti hau».

Eta esaldi horiekin aurkezten zuen gaztelerazko argitaratzaile zen Julio Cortazar-ek bere itzulpena.

Arrietarenak beste honako hau dio: «Erromatar enperadore handi baten oroitzapenak irudikatuz eta birsortuz, egilearen asmoa zera izan da: XIX. mendeko arkeologoek kanpotik egin zutena barnetik berregitea, berak dioskunez. Bere giza bizitza eta bere obra politikoa zorrozki epaitzen dituen Hadriano honek badaki, jakin, bere Erroma handi hori, handia izanik ere, egunen batean suntsitua izango dela; inoiz ez dio uko egingo, alabaina, erromatar errealismoa eta Grekoengandik jarauntsitako humanismoa gidari dituelarik, azken bururaino pentsatzen eta zerbitzatzen jarraitu beharra dagoela diotsan sentimendu sakonari. «...Munduaren edertasunaren arduradun sentitzen nintzen», dio heroi honek, zeinaren problemak, izan ere, noiz-nahiko gizakiak ohi dituen berberak bait dira: zibilizazio eta kulturak oro kordokarazten dituzten bai barnetiko bai kanpotiko herio-arriskuak, zoriontasunaren eta «diziplina augusta»ren artean, adimenaren eta nahimenaren artean, abeniko edo adostasun harmoniatsu-

ren bat bilatzeko ahaleginak. Liburu hau hamazazpi hizkuntzatara izan da itzulia, hamazazpigarrena euskara delarik. Elkar Editorialak pozik asko eskaintzen dio euskaldun irakurlegoari, Joxe Austin Arrietak eginiko itzulpenlan bikainaren bitartez, XX. mendeko literatura obra baliotsu hau gure hizkuntzan dastatzeko aukera».

Horrenbestez ez dugu ezer gehituko eleberri ospetsuari buruz. Testu oparotsua izanagatik, gehienok irakurri dugun erdarazkoa du etsai. Joxe Austinen euskara, ederra ez ezik aberatsa da. Beste inork nekez egingo zuen lan hori hobeto, baina hala ere erderazkoaren erritmoa falta zaio. Beste gauza bat da parte askotan ulerkaitz izatea eta beste batzutan itzultzaileak berak ondo ulertu ote duen edo zer nolako zalantzak izan dituen. Zeren itzulpen lan hori burutzea ez bai da izan txantxetakoa. Ukatu ezinezkoa zaio euskararen aberastasuna, eta beti da ongi holako obrak euskaraturik edukitzea. Hala ere, gure itzulpen ahalmenen saioa baizik ez da. Beste batek hobeto nekez egingo zuela jakitea aski zaigu gure ahuleziaren adierazgarri.

Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailak literatur laguntzetarako ematen dituen beka gisako diru laguntzarekin egina da. Lastima laguntzok gehitu beharrez urritzea eta sorketazko literaturatik zerbait apartatzea iker-lanekin nahastuz; iker lanak baldin badira aurten eskaini dituen ETB entzulegoari buruzkoak.

Parentesi honekin berriro salatu nahi dugu literaturgintzan ari diren egileenganako begiramenik eza hizkuntza bereizgarri nagusia duen herrian.

Holako saioak beharrezkoak zaizkigu literaturgintzan aurrera egingo badugu, eta Joxe Austinek hartu duen nekea ez da alperrikakoa izanen. Hobetuz datorren zerbaiten adierazgarri da eta era berean gure sorketaren suspergarri.

J. S. M.

SALBADOR ZAPIRAIN «Ataño».—*Espetxeko negarrak.* Auspoa Libututegia. Tolosa, 1984.

Auspoa liburu saileko 179. zenbakia osatzen duen honek Bordazar baserria darama bere azalaren apaingarri. Hor sortua da egilea eta protagonista, horko gertaeratik hasten du penitentziazko historia larria.

Gerra zibilaren hasieran zen zoritxarra, Nafarroatik reketeak sartzean. «Bizkai aldean zebiltzan anaiak, aiek asmatu ziteken; ez guk. Iltzen baziran ere, bero-beroan ilko itun. Ez gu bezela, odol otzean, jaberik gabeko zakur zikin batzuk bezela, etsaien begien asegarri. Beren aberriaren alde ixuriko ziteken odola. Atsegin ori ere etzegoken guretzat». Hara hor herioa non eta zelan atseginago aurkitu zezaketen kezka idatziarazia. Izugarria benetan ehortzeko aukerarik eza. Gerraren zerga hori ere, gerrarik zitalena, anaiartekoa.

Etxean gelditu ziren anaiei ihizarako eskopeta eta perdigoi gehitxo aurkitzetik zetorkien oinazea eta hondamendia. Gainera: «Nori eman ion ire botoa?». Horiek izan ziren pakearen alde zirelako etxean gelditu ziren anaien pekatu nagusiak, gaizkile gisa espetxeratzean.

«Ataño», liburu honen egilea, maleziarik gabeko gizona nonbait, eta esperientzia izugarriak bizitzera iritsi zena. Heriotzara kondenaturik: «...utziak izan ginalako, al zutenen partetik. Nai zutenak, berriz, ezin ziteken». Gauero atea noiz joko, patiora atera eta paretaren kontra afusillatuak izateko. Gauero, hots berdina: «*Está usted liberado, prepárese*», esaldi maltzurra entzuteko beldurrez, gezurrezko dei horren ondorena bai zen heriotza. «Banaka-banaka, eun baño geiago ikusi genizkin txulo artatik, betiko joaten». Eta egilea harritzen zuena: «...berak ziotenez, katoliko ta kristauak...» izaki gorrotoa lege hartuaz odolez ase ezinik zabiltzanak. Gainera, «Ataño»ren ustez, zibilizazioa edo aurrerapena kristautasunaren ezaugarrietako bat zen, abere eta gizonaren berezkuntza

Jaunartzearen baitan zegoenez (ikus, 141-142. orr.). Sineskaitz zaio hiltzaileak katolikoak izatea, eta salatzailea auzoa edo ahaidekoa. «*Homo homini lupus* esan zuenak, bazekiken, nik orain arte ez bezela, gizonen griñaren berri. Neri ere ederki erakutsi zidatek orain». Eta horrela joango zen ilusioak galduz.

«Beren sasoirik onenean, ogei ta zortzi ta ogeita bederatzi urterekin, joan itun erru gabeko nere bi anaiak». Ondarretako kartzelan afusillatuak, ehundik gorako hilketa haien artean. «Errenderi'ko udaletxeak (*Udalak*, esan nahi du) etzin ikasi ere (hemen ordea, *jakin ere*, esan nahi du), noski, gu espetxean geundenik. Ori uan ortarako al guztiduna. Alkate zegona, gu gaztetxoak giñala, gure lengusu maitearekin maiz etortzen uan gure baserrira. Gurekin perretxikutan ibilli ere bai inguruko baso aietan. Egun aiek joan itun. Orain etzin gure bearrik».

Larrialdi ederrak pasa ondorean: «*Condenado a cadena perpetua*»-k lasaitu zuen gure gizona, gertakarien lekuko den liburu hau idazteko ere berrogei urteko diktadura igarotzeko zain egon zena.

Naturaltasunik zuzenenean idatzia da, erarik herrikoienean, eta haririk galdu gabe, pasarteetan tentsioa goraka eramanaz irakurleak azkeneraino interez biziarekin iharraitzekoa.

★ ★ ★

SALBADOR ZAPIRAIN «Ataño».—*Zigorpean.* Auspoa Liburutegia. Tolosa, 1985.

Gerra eta gerraondoari buruzko bigarren liburua da. Gerrateko kronika gisa idatzi direnetan, berrogei urtean, alde batekoak baizik ez dute izan zerbait idazteko aukera eta diktaduraz bukatzean ongi da bestaldekoetatik kontatzeko bizi direnak zerbait esatea eta hau izan da «Atano»ren bete beharra.

Bigarren liburu honek ez du lehenaren emozio hura, bizitza bera jokoan zegoenekoa, baina kartzelako oinazeaz aparte gauza harrigarririk kontatzen digu. Eta, berez, hein batean, *Espetxeko negarrak* zeritzanaren jarraipena da.

Ondarretatik Iruñeko San Kristobalera eraman zuten, eta zer zen bere harridura «Eliza zaitzera atera ziran auek, oraindik gizon iltzen ari baiziran» (70. orr. eta 83.en oraindik harriturik) sinets ezinik jarraituko zuen kapeillau baten predkiuak: «—Jainkoak gure lan onak eta txarrak astailluan pisatu ditu, eta txarrak askoz astunagoak ziran onak baño. Beraz, odol geiago dago ixuri bearra, Jainkoaren asarrea apaltzeko».

Bizaraingo San Markos eta Txoritokieta bitartean den Bordazarretik gazte mundura irtetzean bost urteko espetxea aurkitu zuen; beste mundurik ez, etxeko sukaldea, herriko maisua eta erretora, bere kondutaren etika eta moral markatzaile. Oraindik etzekin bakoitzak berari komeni zitzaion neurrira zeramala Ebangelioa, eta bi liburuotan nabari denez hortikakoak zituen bere gogoaren ezbeharrak.

Han zen, San Kristobalen, 1938ko maiatzaren 22ko ihesa gertatu zenean. Kapitulu hori du bizienetakoa. Hori eta horren ondotik datozen erasoa eta ihesaren biharamuna. Ihesaren ondotik, afusillamenduez gainera neurri gogorrak hartu zituzten. Hortaz zerbait bagenekin, han ziren zenbaiti ahoz

entzuna. Oroitzen naiz besteak beste, Fernando Zuloaga eibartar medikua (Inazio pintorearen iloba) preso zelarik bere ofizioa nolabait betetzen zuela eta zeldan zituen liburu guziak kendu zizkiotela. Bat baizik ezin omen zen eduki eta hauta zezala. Eskuartean beharrezko zitzaion «Consultorio médico»-ren bi tomoak eskatu eta bat bakarrik eman, «*cuando lea el primero ya le daremos el segundo*» esanaz. Halakoak ziren beren ustez zibilizazioa zekartenak. Ongi dio «Ataño»k: «Militar aien joera, jolasean dabiltzan umetxo batzuena uan. Zoritxarrez, umekeri gaixtoa».

Gerra bukatu ondorean, San Kristobaletik Orduñara; zorritegi batetik bestera. Presondegi berri honetan, «arimazaiak» arduratsu misioak antolatzen, eta «Ataño»ren pentsamenez: «Emen, lenengo, gorputzari begiratu bear zaiok, ikusten danari alegia, ikusten ez dana salbatuko bada»; lojika horren arabera agertuko ditu bere eritziak bi liburuak zehar.

Libertatean jartzeak etorri ziren garaian ere politak dira bere kontaerak, gaileko bakar soil hura atera zenekoa adibidez, hainbeste denbora kartzelan eman ondorean nora joan etzekiela: «Nora joango nauk? Emaztea bi aurrekin utzita sartu niñun; geroztik beste bi jaio dituk». Edo, kartzelako bikario hark uste zuena, San Pedroetan askatasuna izango zutela agintzeaz, zeruko ate zaina bazen kartzelakoan ere ikustekorik izango zuela. Maila horretara jeisten bai zuten apostolua ere.

Kartzelatik irtetzean Orduñako geldokian artzai karlista bati entzuna ere ez zen txarra: «Zuek eta gu, beste katolikorik etzegok España'n». Hil da gero, salda bero.

* * *

XIPRI ARBELBIDE.—*Piarres Lafitte.* Elkar. Donostia-Baiona, 1986.

«Orhi» Literatura sailean eman du Elkarrek liburu hau, Lafitte zenaren bizia aztertzen duena. Lanaren oinarri: hiru ordu t'erdiz Mixel Oronos baigorriarrak egin zion magnetonozko grabaketa *Herria* astekaria sortzez, lehen urtetako nekeak eta ondoko eragozpenak tartekatuz. Hor, N... kalonje delakoa nor den argi jarri balu, ez zen gaizki izanen. Aurpegiak ere agertu beharrezkoak dira.

Bestalde, Jokin Apalategik zuzenean grabatu zion ordu t'erdiko zinta, Luzien Etxezaharretakin izan zuen elkarrizketa eta Xabier Diharce Iratzederrek idatzitako artikulua ditu oinarri, aintzin solasean egileak aitortzen duenez. «Iker» soil soilik aipatzeaz, uste dugu, Euskaltzaindiak P. Lafitteren omenez argitaratu zuen liburua izanen dela, *Iker-2*, 1983an argitaratua; zeren 87-95. orrialdeetan berargitaratzen bai du han eman zen bibliografia.

Horrez gainera, egilea mintzatu zen Lafitte hurbildik ezagutu zuten zenbaitzukin: Dubosq eta Haira uztariztarrak, Mestellan lehunztarra, Légasse, Xarriton, Etxamendi, Larzabal..., Eugène (ikus 5. orr. azken lerroaren bukaeran eta 6. orr. hasera loturarik gabea) delakoa ordea ez da izanen Lafitte bera, hor datorrenez. Bada hor inprimategiko jauziren bat, gure inprimategi hauek zein gaizki lan egiten dutenaren agiritzat. Euskarazko liburuetan ez ezik, erdaraz egiten direnetan ere hori nabari da. Hasi ta beste gabe 5. orrialdean hori ikusteaz beldurtu ere egin ginen ondoko orrialdeak zehar holako huts egiteak izango zirelata; baina, tira, nahiko ondo zaindua dela esan behar, gaizki ohituak gaituztenaren barnean; han-hemenka ohizko huts tipi horiek gora-behera, orokorki begiraturik aski ongi dago.

Lafitteren aitaren sortzeaz trunpatzen da egilea, 7. orr. Baigorriko Buzkingorrian sortua (ez zortua) jartzen du eta

ondoko orrialdean Buztinaga. Baina ama Uruñako Buztingorrikoa. Hortik ohar daitake huts egitea.

Liburuak duen ederrena, Lafittek bere buruarekiko borrokak nola gainditu zituen adieraztea, haurtzarotik hasi eta «apaiz gorri» izatera arte, euskaldun berritik igaroaz. Liburutegia osatzezkoa oso bitxia da. *Aintzina* (lehen aldikoa) aldizkaria eta Menditarrak elkartea bere gaztaroko ekintzetarik interesgarrienak ditu ondoko urteetakoak markatuko zizkionez; era berean Tolosaldean apaizgoaren hastapenetan jende mixerable haren inguruan eman zituen urteak. Horiek moldatu zuten gizona: euskaltzale, abertzale, gizarte auzietan behartsuaren alde eta bereziki jerarkiaren gehiegizkoen salatzaile eta kritiko. Baina, gainera, ibiliak erakutsi zion lana ahalik maltzurren bideratzen, beti helburueri begira eta zintzo jokatuz. Maltzurkeri ona eta garbia erabili zuen beti boteretsuean aurrez-aurre. Denen gainetik Ebangelioko Kristo zerbituz.

Ezagutzekoak dira bere arartekotasunak ere, Espainiako gerra zibila baino lehen hasita gerra guztiaren zehar. Ez zuen lan erraza hango eta hemengo eskuindar eta abertzaleen artean ararteko lana egin beharra. Gero, horren jarraipenez, 1939ko gerratean erakutsi zuen bere jarrera.

Liburu atsegina da. Gustora irakurtzekoa. Anekdotaz beterik dator, Lafitte ezagutzen genuenok bagenekien haren eztenkadazko umorea zer zen. Xipri Arbelbideren idazkera argi eta biziak ondo laguntzen du haren izakera adierazten. Hala ere, liburu honetan, Piarres Lafitte zenaren ideologia eta aldizkarigintza eta horien inguruan izan zituen jarrerak nabarmentzen dira, baina ez Lafitte ikertzailea. Hizkuntza irakaslea, gramatika eta hiztegiaren egilea baino zerbait gehiago zen Lafitte ikerketaren munduan. Ez bait da ageri hori bedori tokatzen zitzaion neurrian, eta horrez gainera testu zaharren aurkitzaile eta argitaratzeila, zenbait autore zahar eta horien testuak ezagutarazteak, bio-bibliografiaz, euskara

eta euskal literaturari dagokionez. Era berean, etnografia lanak ikerketa mailan, aintzinako historiaz. Askotan, zer-nahi ikertzeko eskaintzen dituen iturriak heurak beste gabe erakusten digute egin zuen lan gaitza ikerketa kontuan, dena bururatu ezinik adibideak eskaintzeaz. Baina, liburu honi ezer kentzeke, behar bada, beste alderdi hori erakutsiko duen bigarren liburu bat eskatzen du biografiatuaren gizontasunez bere dimentzio osoz jabetzeko. Hara hor beste iker lan bat. Eta, hartarako ere lagunduko du liburu honek. Horrenbeste merezi du euskal letretan eman den gizonik garrantzitsuenetakoa den aldetik.

Liburuak, azalean, José Ignacio Trekuk Lafitteri egin dion potreta dakar, argiz, jestoz eta egituraz itxura onean burutua.

J. S. M.

★ ★ ★

JOSE LUIS ALVAREZ EMPARANTZA «Txillardegi».—*Leturia.* Translated by Maddi Alvarez Forcada. A Publication of the Basque American Foundation. 1986.

Izenburu jatorrez *Leturiaren egunkari izkutua* deritzan eleberri hau duela hamazortzi urte, euskarazkoa argitaratzetik laster, behar zuen erdarazko itzulpenez plazaratzea. Baina hori ez zen lortu bere garaian eta gure literaturagintzan maiz gertatu zaigunari jarraiki esan dezagun, gure gogoaren engainagarri bederen, inoiz ez dela berandu.

Mende honetan hizlauz gurean sortu eta besteetara eskaini ditzakegunetan lehen mailakoa dugu Txillardegiren eleberri hau. Esistentzialismoa Europan indarrean zegoen garaikoa izatez, etxe eta kanpo itzala, ospea eta errespetua irabaztekoa bai zen.

Garai haretan euskaldungoan genbiltzanok guti ginen baina garai bereko orduan arituz, denbora haretako mugimendu orokorretik hurbil. Zuzenean edo zeharka, *Combat* eta aldizkari honen inguruko lanak ezagunak genituen eta horren kutsua nabari zen. Bestalde, filosofia kontzeptuak, K. Mitxelenak eleberri honi egin zion hitzaurreak erakusten digunez, inglesezko argitalpen honi ere ez zitzaion gaizki etorriko.

Leturia's secret diary hau Espainian bertan Ediciones Beramar, S. A.-k argitaratu du eta Ameriketan edo ingles mintzairadun herrialdeetan izan dezaken zabalkundea zalantzan jartzen dut, zeren Basque American Foundation delakoaren zuzendariak han zerbait badela oihu eginaz hemen eskarietarako hotsa lortu nahi luke, eta ohi duen taktikaz beste *show* bat baizik ez dirudi. Hala bada ere, gure literaturaren hedakundez beste urrats bat da eta ongi etor bedi.

J. S. M.

The Susa News. 1. zenbakia. 1986.eko ekaina. Donostia.

Hain aspaldi ez dela, *Egan*-era kolaborazioa eskainiz zetorren gazte bati entzun nion, *Susa*-ri bere lanak emateaz asperturik zegoela, gazte itxuraz agertuarren beraiek uste baino zaharkituagoak zirela mentalitatez. Baina nik ez dut holako eritzirik. Gaztetasuna uka ezinezkoa zaio *Susa* taldeari. Bai, *Egan*-en igaz kolaboratu zutenetarik gaztenak hamazazpi urte baizik ez zituen, baina zaharrenak larogei. Egia esan, guk ez dugu mugarik jartzen, ez adinez eta ezta ere modaz. Baina, aitortu beharrezkoa zaigu, *Susa*-koek orohar gazte direla, beren adin inguruko mugimenduen ordezkari eta hori oso inportantea dela euskal literaturarentzat. Hala ere, Gunilla Von Bismark izenpetzen duenaren esanak esan, Omar Khayyam, Omar Nabarro bera baino gaurkoagoa iduritzen zaidala. Eta eritzi hortara (ez hortero) heltzeko urteak behar badira, hori merke eta nahi baino lasterrago berez datorren gauza da. Beraz, gaitzik baldin badu ere, zendakai erraza du eta ez da inor larritzekoa. Bitartean, P. Lafittek hil baino lehenxeago egin zitzaion omenaldian eskerrak ematen esan zituen hitzak oroituko ditugu: «Biba gazteak!».

Mundu honetan, pentsatzen duen gazteak sufritzen du eta horrek ematen dio gazte delarik ere mentalitatez zahar itxura. Baina, sorkundezko literatura garatuko bada, hala behar ere. Gutienez ere badakite burua ez dela txapela erabiltzeko egina eta horiegatik ezingo da esan: txapela buruan eta ibili munduan.

Ale hau egunkari gisa agertu da, 42 x 31,5 zentimetro neurrizko lau orrialdek soilik osatzen duela. Taxuz aurkeztua

dator eta biziki gustatu zait. Aurre azalpenean dionez: «Konplizitate hari bat osatu nahi genuke orain jaio den publikazio honen bitartez, abiapuntu gisa honoko hau erabiliz: literaturak duen oinarrizko premia bakarra, ahalik eta jende gehienaren animoa da, idazteko nahiz irakurtzeko, eta bide batez irakurle izatetik idazle izatera dagoen distantzia jende gehienak uste duena baino askoz ttipiagoa dela. Mito asko dago literaturaren munduan, eta idazle izateko ez dakigu zein baldintza behar direla pentsatzea horietako bat da. Idatz eta publika itzazu ipuin pare bat eta ondoren hitzegingo dugu ea horretarako balio duzun, ez pentsa kontrakorik frogarik egin gabe».

Zeharo bat gatoz aitormen horrekin eta ezer erastekotan ere, idazle bezala zerbait izan nahi duenarentzat, irakurri, esango genuke. Asko irakurri eta bere ingurumena gogotsu so egin. Ez dago beste misteriorik, kontatzeko zerbait biltzea baino, naiz kanpotik bereganatzen duenetik eta naiz bere gogoeta soiletik sortzen duenetik. Eta, *Susa*-koek ondo egiten dute, oso ondo, hain guti irakurtzen den herri honetan ere gaztea idazle izatera bultzatzea.

Idazletza bultzaratze hori ez da idea txarra, baina ahal delarik alearen atzekaldean datorren editorialeko eskribidorearena eredutzat hartu gabe. *Susa* aldizkarietatik harturik hain zati egokiak datozen ale horretan kaka-mokordoa dirudi editorial horrez. Beno, ongi letorke bederatzigarren dialektoa sortzea helburu badu. Bestalde, lastima handia litzake euskara batuari eta ifarraldekoei gibela ematea. Baina, editorialgintzan ari direnek gibelandiak baldin badituzte, behar bada hala izanen da.

Dena den, idea ona izan dute beren ekintzen zabalkunderako, lehen *Susa* aldizkarietan argitaratutako zati hunkigarriekin irakurleak, batez ere irakurle gazteak, zirraraeraziz adizkari hau plazaratzea. Eta, era berean, *Susa* liburu sailak edo naiz bestek, gazte jendeari begira argitaratzen dituzten liburu berrien erreseñak agertzea, bakoitzaren gai eta edukinez informatuz. Hauenak dira titulu berriok: Andolin Eguzkitza, Iñigo Aranbarri, Eukene Martin, Gotzone Sestorain,

Xabier Mendiguren Elizegi, Alfonso Sastre, Mikel Dupac, Jean Louis Davant, Peter Bichsel eta Itxaro Borda.

Meriturik aski badute *Susa*-koek beren ekintzetan eta, gure aldetik ez pentsa, irakurle, ezelango bedeinkazio edo gomendiorik behar dutenik, zuriketarik gabe esan genezake beren bidearen berri badakitela gure aitapontekotasunik gabe ere, eta gomendiorik ematekotan irakurlearentzako emango genuke, harpidetza eginaz lagun dezaten. Gogoan izan gaur egungo euskal kulturaren munduan abandonatuen daudenak idazleak direla eta hala ere beren kabuz ari direla ahal bezala aldizkariak bultzarazten. Ez genuke nahi inondik ere *Literatur Gazeta*-rekin gertatu dena gertatzerik. Horregatik, beste inongo laguntzarik gabe, harpidetza soilarekin irauna-raztekoa baldin bada, guk ere eskari hori luzatzen dugu *Susa*-ren alde. Beren aldizkariak irakurle amorratuen eskuetan erori nahi duelarik, horrenbeste eskatuko genioke euskal irakurleari.

Otsalar

ANTZERKIA

Xabier Mendiguren Elizegi, Alfonso Sastre, Mikel Dupac, Jean Louis Davant, Peter Bichsel eta Itxaro Borda.

Meriturik aski badute *Susa*-kook beren ekintzetan eta, gure aldetik ez pentsa, irakurle, ezlango bedeinkazio edo gomendiorik behar dutenik, zuriketarik gabe, esan genezake beren bidearen berri badakitela gure aitzapentekotasunik gabe ere, eta gomendiorik ematekotan irakurlearentzako emango genuke, harpidetza eginaz lagun dezaten. Gogoan izan gaur egungo euskal kulturaren munduan abandonatuen daudenak idazleak direla eta hala ere beren kabuz ari direla aba! bezala aldizkariak bultzarazten. Ez genuke nahi inondik ere *Literatur Gazeta*-rekin gertatu dena gertatzerik. Horregatik, beste inongo laguntzarik gabe, harpidetza sollarekin itxunaraztekoa baldin bada, guk ere eskari hori luzatzen dugu *Susa*-ren alde. Beren aldizkariak irakurle amorratuen eskuetan erori nahi duelarik, horrenbeste eskatuko genioke euskal irakurleari.

Otsalar

ANTZERKIA

Jean ETXEBERRI: Arroltze Ohoina (Sara, 1884)

AURKEZPEN HITZAK

Patri Urkizu

Euskalerriko Iparraldean pastoralak, ihauterietako trajikomeriak, astolasterkak, eta maskaradetaz aparte izan zen ere beste «herri antzerti» bat zenbait lekukotasunek argi eta garbi adierazten digutenaren arabera. Esate baterako Wentwort Webster-ek kontatzen digunez Luhusoko gazteriak 1867. urtean Hego Ameriketatik zetozen gazteei ongietorria emateko antzerki bat antolatu zutena [1], eta, antza denez, ohitura hau ez zen bakarrik Iparraldekoa Bizkaiko Diputazioko liburutegian dagoen eskuzkiribu batek dionaren legez:

> «SENTIMIENTO de un bascongado al abandonar los patrios lares por buscar fortuna en Montevideo. Canción cantable... (Composición poética en vascuence vizcaino representable y alegórica. La acción pasa en Urruña, 1853» [2].

Tamalez, luhusoarren antzerki testoa ez dugu ezagutzen (nik bederen). Mutilak bezala neskatxek ere, ohiturari jarrai-

1. W. WEBSTER, Les Pastorales Basques, La Tradition au Pays Basque. Donibane Lohizune 1897.2.arg.Elkar, Donostia 1982 244.or.

2. Euskera VI, Bilbo 1962, 252.or.

kiz, ikastetxeetan antzezten zituzten antzerkitxoak euskaraz, eta hauetariko baten berri demaigu Webster-ek. Saran, 1884. urtean, eskolaren atarian eta egunez, bertako neskatxek Jean Etxeberri Uztaritzeko komentuko kapelauak prestatu zien euskal antzerkitxo bat antzeztu bitzuten, Wesbster-ek ikusi eta bere idazlan batean aipatzen duena:

> «Cette pièce fut jouée en plein jour devant l'école par les petites élèves des soeurs de l'école à Sare, vers 1884. L'autheur en est M. L'Abbé Etcheverri, aumonier du couvent d'Ustaritz. Je la crois une traduction ou adaptation de quelque pièce française. Le MS je l'avais copié de l'original de Mlle Louise Sellé de Sare» [3].

Jean Etxeberri hau dugu, noski, Vinsonek dioskunez euskarazko lehen aldizkaria, egutegia edo almanaka sortu zuena 1848.urtean izenburu honekin: «Escualdun laborarien adiskidea», 1891.erarte urtero argitaratu zuena [4], eta beste zenbait libururen egilea ere bai [5], hala nola d'Abbadie jaunak Urruñan 1858.urtean antolatu zituen euskal jaietan «L'Empereur et la France» izeneko bertsoarekin parte hartu zuena, eta hemen ikusiko dugun bezala Iparraldean gontserbatzen den XIX.mendeko antzerki zaharrenaren moldatzailea. 1898. urteko urrilaren 6an hil zen Baionako apezen aldizkariak dioenez [6].

---

3. P. URKIZU, Euskal Antzertia, Donostia 1984, 118.or.

4. J. VINSON, Essai d'une bibliographie de la langue basque. Paris 1898, II, 642.or.

5. S. ONAINDIA, Euskal Literatura, II, Bilbao, 1973, 194.or.

6. Bulletin Religieux du Diocèse de Bayonne. 30 Sept. 1908. Ephémerides Nécrologiques 6 oct. 1898, Jean Etcheberry, chanoine honoraire, annuarie des filles de la Croix d'Ustaritz.

Bere antzerki xume honen helburua, ohi zen legez, gaztetxoak libertiaraztea zen alde batetik, baina baita ere zenbait dotrina hedaraztea ,hala nola Lapurdiko apezak hainbeste kezkatzen zituzten herri sinesteak, eta sorginkeriarena batipat uxatzea. Euskara dotore eta bikain batez idatzirik dago eta moldaketa ongi eraikia dago, dirudielarik horrelakorik egiten antzea eta artea bazeukala gure Jean Etxeberri apezak, Iparraldeko lehen antzerkigile ezagunak.

duçun cerbitçuarentçat eta madamaren permissio-
neareguin, çato igandean enegiun bazcaltcerat;
hartuco dugu berriz ere cafea bere ondoco ttottarekin.

Marion — Mila esquer, andrea, ez segur errefusatceco.

Franchun — Horra beraz non ditugun gure sorguinac eta
aztiac; madamec edergin arguitu ditu guciac.

Mr Mendigorry — Orai akhabatcean, hitz bat bakharric. Ez-
içan izpiritua hain flaco non sorguinac eta
aztiac ikhusten bartutçue gança gucietan.
Ez da sorguinic debrua baicic eta haregiun
pacto eguiten dutenac. Guiristinoen artean
ez litake holacoric aiphatu behar ere;
bertçalde egungoa eguin dena beçala, finiteen

ARROLTCE OHOINA [1]

Jean Etcheverri

EMAANTZEZLARIEN IZEN-DEITURAK

Noms et Prénoms des Actrices

Ostalersa	:	Larçabal, Marie
Janeta	:	Borda, Catiche
Marion	:	Gelly, Marie
Luchina	:	Etcheverry, Joséphine
M.me Mendigorry:		Goyetche, Marie-Anne
(Chuli) Fillea	:	Sorrondo, Dominique
Franchun	:	Hirigoyen, Marie-Anne

OHARRA: Eskuizkribuaren lehen orrian horrela agertzen da antzezlarien zerrenda. Horrek erakusten digu antzeztu zela, eta merezi du partaideen oroitza hemen argitaratzea.

1. Baionako Hiri Liburutegiko eskuizkribua, M. S. Webst nº ff bezala katalogaturik dagoena.

ARROLTCE OHOINA

(par M. l'Abbé Jean Etcheverri, Aumonier du Couvent des Filles de la Croix à Uztaritz. Chanoine Honoraire décédé... 6 Oct. 1948) [1].

OSTALERSA.—Janeta, miatu ditutcu goicean oillo cafiac?

JANETA.—Bai, etcheco andrea, bainan badu ya hamabortz egun ez dudala arroltceric hatchemaiten.

OSTALERSA.—Bitchi zaut hargatic, orai arte, ene oiluac erroile onac ciren, eta orai batere ez arroltceric; Hemen bada cerbait jukotria. Bizquitartean neronec cerratcen dut oillateguia: ongui gakoturic uzten dut, cerbait debruqueria bada hor, nundic heldu baitare. Gau da, heldu çaut ideia bat; Janeta, çohaz Mendigorrirat, hango artçaitsa chaharrac omen du sorguin edo azti aire bat erran behar dioçu othoi phasa dadin hemen arthaldiarequin dohalaric, behar dudala mintçatu.

JANETA.—Jesus! etcheco andrea çuc re baduzu holaco izpirituco flacotasuna? Bizquitartean jaun errotorac predicatu dauzu aurthen behin ez dela holacoetan içan behar sinhesteriric.

OSTALERSA.—Asa, guero, Janeta, eguiten çure eguitecoa eta ez niri escolaric eman. Pagatcen çaitut ene manuen eguiteco. Zohaz larstersco ene erranaren eguiterat.

JANETA.—*(Dohalaric)* Alfer da horri deusen erraitea ez duaditcen bere burua baicic; balinba atso zehar, zango makhur, sudur zikin, hortz handi, motho luze; sorguin delaco harrec ederqui pagaracico ahal dio... surguinkeria;

---

1. Eskuzkiribuak 1848 esaten badu ere 1898 behar du izan, gure ustez ez baitugu ezagutzen beste Jean Etcheverri-rik, Uztaritzeko kapelau zenik eta hau urte hortan hil baitzen.

merechi du segur.
(Aurreratcen da Mariunequin); Etcheco andrea, huna Mariun, jaquiterat ethorri da hea cer placer duzun.

OSTALERSA.—Ah! hor çare beraz Marion. Sar çaite, gaichoa, sar çaite, behar nauzu pena handi batetic athera possible bazaut.

MARION.—Nic dezaquetan gucia, hain ongui pagatcen ditutzu cerbitzu guciac, ez balitz ere bertceric, baicen, çure cafe ona ondoco ttottarequin, nor ez litaque lehia curi cerbitzu ttipi bat eguiterat. Beraz, cer da zure cerbitcuco?

OSTALERSA.—Oh! pena handi batean naiz! segurki beharrez galdetu çaitut; khondatuco dautzut ene istorioa, cafia hartcen dugularic eta cafe ona daquizun beçala.
Janeta, ekharratzu laster bi cafe presa eta badaquigu çu ematen dut bertzçalde?
Janeta, ekharratzu laster bi cafe presa eta badaquiçu çer ematen dut bertçalde?

JANETA.—Cer, haskarot olioa?

OSTALERSA.—Preseski, eta nic ere behar dut ttottatto bat, izpirituaren ernarazteco, bertcenaz tonto nindaque gauzen erraiteco. (hemen nescatoac cerbitcatceco diote cafia, aguardienta eta hartcen dute biec buruz buru gochoki. Finitu dutenenean): Allo, orai adiçaçu, ene istorioa: badut oilo tropa bat, orai artean, erroiten zautatean nahi nuen arroltcea. Bainan badu hogoi bat egun ene oillo cafiac bethi hutsac aurkhitcen dithuala. Neure ustez hartzen ditut precocione guciac: oillategico gakua bethi sakelan dabilat. Oilluec badute chilotto bat heinecoa cafialat yuaiteco; ongui baztatcen ditut, goicetan cantu franco eguiten dute, bainan arroltceric batere. Bada edo ebasten nauzquite eta ez diot compreni nola ez norc, edo bada cerbait sorguingueria affera hortan. Orai beraz, Marion, pentsatcen ahal duçu certarat ekharraraci caidudan; badaquit baditutçula bertceac ez becalako abileciac eta phodereac, eguin behar dautazu fagorea ene arroltce ohoinaren atcemaiteco. Satifatuco çaitut segur, sinhesten

MARION.—*(irri carcaila batequin)* Ah! ah! ah!... beraz etcheco andrea, nahi badut eta ez badut, çuretçat sorguigna behar niz. Badaquiçu bada cenbat aldiz holaco cerbitçuac galdeguin dauztazun eta bethi errefusatu dautzudala, bainan oraicoan entseatu nahi nauçu ohoineren hetchematerat. Hargatic hitz eman behar nauzu ez duçula nihori deusic aiphatuco, guciz ene etcheco andreari, bertcenaz deusic aiphatuco, guciz ene etcheco andreari, bertenez seculacotz galdua nindeque; bertceac bertce, gure madama arras debota baita, firrintan etchetic khasa nintzaque, balaqui sorguinquerietan hari naicela eta guero nic nun edo nola behar nuke bici.

OSTALERSA.—Zaude trankil, Marion gaichoa; segretua beguiratuco dut lehialqui; ene hitzari fida çaite.

MARION.—Lehenic behar naiz mintcatu ni baino abilago batequin; buelta baten buruan jinen niz çuri erraitera cer eguin behar duzun; ecin beharco dithuçu eguin nic erran guciac eta chuchen. Sarri artio.

OSTALERSA.—Cer ikhusi behar othe dugu! orai duda gabe bertce sorguin çahar cembaitequin conseiles atchiqui behar du ez bada seguric cembat debruequin mintcatcen.

JANETA.—Eta erraçu atheco andrea, nahi cinuque onic ere, debruaren ganic?

OSTALERSA.—Emaçu cure lanari elhe untcia, cer behar duçu ene afferetaric. Jainco edo debru, nic arroltceac behar tut.

JANETA.—Bon, bon! nic ez dut deus beharric balinba çue moltsac pekhatuco ditu.

MARION.—Hemen niz bada, ni ene hitcean.

OSTALERSA.—Ongui, ongui Marion! hea beraz cer dugun eguiteco?

MARION.—Sarri ilhuntcean emanen duzu oillateguico borthan chirigo bat phisturic, bortz liberaco bat haren ondoan, gakoa borthan utcico duçu hamar orenetaraino; guero

khenduco duçu nahi baduçu; bainan etci goiz artean ez duçu hango arroltceric unkituco. Eguin guero, nic erran guciac chuchen eta orai banoa ene ardietarat. Agur *(badoha trinculin-trinculin).*

OSTALERSA.—Ayi! Ayei! harritzen naiz. Cer ifernuco ceremonia eguin behar othe duen hor.
Ah! goicic ikhusi behar dugu cerbait.
(Atheratcen dire Janeta eta biac).
(Hor heldu da nescatcha bat erruma guisa bestitua).

LUCHINA.—Atch!... oficio itchusi bathi lothu naiz, bainan nor egonen da ikhusi eta tratua cer polliqui dohan. Orai, ikhusten dut acheri chaharra beçain abil naizela. Hain gochoqui eta errechqui ene sakela bethetcen da sosez; balaqui Ostalersa gaizoac bere arroltceac saltcen dazcotala. Uste du bada abila dela; gakho du oillateguia, bainan nic ere badut gakhoa, (gakhoari musu) gako maitea, hain justoqui dohana; ez nioque sal hamar luisetan. Laster baduquet beztimenda eder baten saria, orduan juanen niz ederqui dantzatcerat, Anguelurat edo Camborat; ene herri huntan uste dute prestua naizela; hortan ere behar naiz acheri abil içan ete ene jocoaren hobequi gordetcero, ez dut ene burua Congregacionetic khasaraci behar. Concienciac cembait hausiqui eguiten nauzqui, eguia da, phou balimba! Confesatuco naiz hil baino lehen; presentsian hain gocho da lanian lehertu gabe bertcen gostuz bicitcea... Ah, bainan tenorea badoha. Ostalersa goicetic cafearen eguiten hari da; badaquit ez dela atheraco echetic bere ondoco ttotta hartu gabe, bainan guero laster (eguinen du oillateguirat) Ago istant bat, ez ditun ez, mintzatuco aintcinduco nitzaun. (Altheratcen da).
(itçuli bat eguineta turnatcen da escueri joca ari dela).
Oh! oh! hauche da fortuna! seculan baino guehiago fortuna eguin dut baditut bi dotzena; banahoa bezitcerat merkaturat abaitceco. Bainan lehenic josatu behar naiz hemen gaindi phasatuco naiz; segur naiz egun ere gaizo horrec bere arroltceac erosico dituela.

OSTALERSA.—*(desolatua, otharre handi bat besotic, buruari*

joka) Oh! Oh! hau da lastima; ez naiz gaski hatchemana; nihau juan ni zoillateguira otharrea harturic, ez nuen dudatcen aspaldico orde içanen nuela exeguina arroltce errecolta eder baten biltceco.

JANETA.—Cer duçu etcheco andrea, gucia asaldatua çare ez duzu nasqui uste cinduen fortuna eguin çure sorguinequin.

OSTALERSA.—Othoi ez neçaçula guehiago khecharaz, asqui khechu bainaz hola ere, Arçaintça zahar, zango makhurra, hambertce hitzeman çautan eta ez dut arroltce bakhar bat hatzeman oraino ere. Bertceac bertce, oillasko bat hila hatzeman dut. Oillascoa, passo; lehembicico praticari janaracico diot erreric; ez dut hortic calteric; bainan arroltceac, arroltceac!... Den beçalaco falxu tçarra, hipokrita, haugui berriz ene bistarat! eracutsico diot nic, cer den hola yendez trufatcea! Ohoin zango makhurra, ez dauzkit oraino ederqui hatcheman, eta cafea eta aguardienta eta bortz liberacoa! Itsusi tçar den beçalacoa!...

M.ª MENDIGORRI.—Cer da furia hori, andre Ostalersa; cer! eneiçat ditutçu ahopaldi pollit horiec? Uste nuen adisquide on bat cinduala, emazte odol ezti eta bihotz on bat cinela. Ez nuen guxiz phensatcen mihi gaichtoa cinduela.

OSTALERSA.—Oi cerua! cer madama, çu cintudan hor, harritua naiz; bainan othoi sinhexaçu ez nintzela çure contra mintzo, sobra ohoratcen eta estimatcen çaitut, madama; zure cerbitzari humila naiz, madama; zure artçaintzarantza nintean orai ongui haguin gaichtoan. Judasec beçala enganatu bainau.

M.ª MENDIGORRI.—Ho! Ho! ene artcaintzarentçat ere ez caizquit sobraric eder ahopaldi horiec; horra cer den colera. Emastequi batec behar du yaquin bere buruaz nausi içaitea; norbait bere coleraz ez denean nausitua ez du guehiago arroçoinatcen, bainan erraiten dire behar direnac eta behar ez direnac ere. Gucien buru jaquin behar dut cer duçun gure Marionen contrat; ez çaut iduritcen capable dela nihori hoben handiric egitea. Hea! mintça caizquit odol hotcean eta arrozoina adituz.

OSTALERSA *(humilqui)*.—Ez dut, ez dut handiric haren contra ere.

M.ª MENDIGORRI.—Hox, hox! yaquin behar dut cer den; deusic izan ez bacindu, ez cinduen horrenbertce mihi colpe emanen harrentzat.

OSTALERSA.—Bainan, madama, asarretuco çaizquit ene istoria aditueta, trompatu haiz; bai nasqui, eta segur ere, trompatu naiz; ori deusic ez da, ez du balio erratea.

M.ª MENDIGORRI.—Horra, horra batean sobera, bertcean ez asqui. Oraiartean behar baino guehiago erraiten; orai nic galdeguiten dautzudana erran beharra, ez duzu erran nahi; iduri du Jaincoaz baino beldurrago çarela enetaz. Hox, fite erran niri cer diren çure errengurac Marionen contra, guero, nic eguinen baitut behar dena.

OSTALERSA.—Ori, hola hertsatcen nauzunaz gueroz, erranen dautzut bada, cer içanen baita guero ere, behardut ene estomaka hustu.

Badut oillo hainitz, madama; orai arte erroiten çautaten nasai ez nuen arroltce erosteric; bainan hogoi bat egun hontan ene arroltce guciac galtcen tut eta ez daquit nola. Çure artçaintza chaharra erakharri dut hunat, eta othoiztu dut lagun neçan ahal balu ene ohianaren hatcemaiten, hitz eman daut eta araiz ene hobequi ttuttulatceco, bi oren seguric phasatu ditu ene oillateguico borthan. Chirigo bat benedicatua erre daut. Cafea eta aguardienta cintzurraren pherecatceco eman dazcot, bortz liberacoa khendu daut; ez nuen dudaric milagruac ikhusi behar guintuela, bainan harc erran tenore berberean juan naiz cafien miatcerat egundaino beçala ene arroltce guciac galduac.

JANETA.—Bai, eta bertçalde oillas...

OSTALERSA.—Icho, ichilic, mihi lucea!... Orduan, osoki hasarretu naiz eta hatcheman nauzu ene lethanietan hari nintcela. Bainan othoi, madama, erran behar dioçu sorguin çahar harri, bihur deçan ene bortz liberacoa eta paga

detçan milicatu tuen cafea eta aguardianta eta erre duen chirigoa.

Mᵉ MENDIGORRY.—Horra beraz cer cindaukan golkoan; bada, gauza horiec astiz behar tugu arguitu. Orai yaquinçaçu mezatic heldu naizela, goiz yaiquia, barura eta gosea naicela.

OSTALERSA.—Axeguin handi bat da enetçat, madama, çu beçalaco andre baten gosalarazterat. Cer hartuco duçu, madama, asqui duçu galdeguitea, ez da deus escas içanen çuretçat etche huntan. Nahuçu cafea? badut hobenetic.

Mᵉ MENDIGORRY.—Ez duçu bertceric?

OSTALERSA.—Zaude, madama ... nahuçu ogui fresquoarequin Malaga? badut eguiazcoa eta ona Pariseco marchant abilenac eguina.

Mᵉ MENDIGORRY.—A, ah ah! ederra da hori, uste nuen Malaga, Espainiaco arno on bat cela.

OSTALERSA.—Eta cer da bada, madama, Espainiaco arnoa baicic?

Mᵉ MENDIGORRY.—Eta Pariseko marchantac eguina? zozua, certaco erraiten duçu bederen?

OSTALERSA.—*(burua aphalduric)* Barkha çadaçu, madama, uste gabean erran dut.

Mᵉ MENDIGORRY.—Horra beraz cer confiencia merechi duten çure gochoqueriec.

OSTALERSA.—Ori, madama, badut oillasco bat ederra; hura erreco cuchian, nahi bauçu.

JANETA.—Bainan etcheco andrea, ez daquizu...

OSTALERSA.—Zaude ichilic, salserua, çuc behauçu gure artean sartu? Zohaz çure lanetarat.

JANETA.—*(Dohalaric escuaz meatchaturic).* Ah! cer puticoa çu! othe da zu baino sorguin gaichtoagoric?

Mᵉ MENDIGORRY.—Cer dio nescato horrec?

OSTALERSA.—Bego, madama, zozoa da erdia, ez daqui cer derasan erreco dut oillascoa, madama.

Mᵉ MENDIGORRY.—Ori, guciac baino errechago litaque, emaitea bi arroltce cuchkian.

OSTALERSA.—Oi, cen çorigaitzeco eguna dudan hau! eta presesqui erran dautzut eta madama certaco ez nuen arroltce bakhar bat etchean.

Mᵉ MENDIGORRY.—Booh! deus ez duçu escas eta galdeguiten dautzut gaucetan den chimpleena eta hura ez duzu. Ori, banoa etcherat *(atheratceran egiten du).*

OSTALERSA.—*(gueldiarazten du escuac juntatuz).* Othoi, othoi, madama, iguricaçu, istant bat, ikhusico duçu cein laster içanen tudan *(nescatoari):* Janeta!

JANETA.—Baantzut, etcheco andrea.

OSTALERSA.—Zohaz,laster eguiçu Luchina ganat, eman deçan dotzena bat arroltce.

JANETA.—Ori, presesqui hemen doha hirico alderat otharrea besoan.

OSTALERSA.—*(Luchinari besoaz kheinu eguinic).* Hunat, hunat, Luchina placer baduçu.

LUCHINA.—Cer placer duçu, etcheco andrea?

OSTALERSA.—Haurra, baitutçu arroltceac saltceco?

LUCHINA.—Bai eta frescoac eta ederrac, orai banindohan hirirat saltcerat, han eguinen dut hamasei sos dotzena.

OSTALERSA.—Hox, hox, espantu handi! ez daquin ni ere pratiqua naicela, eta nihun ibili gabe hemen bethi saltcen tunala? emaitçan sobana eta guciac hartcen tinat.

LUCHINA.—Ez çautzu bada conciencia niri horrembertce galaraztia, uste duçu nasqui nic kitoric ditudala.

OSTALERSA.—Hox, eman otharre hori, khondatcen daunat dirua.

LUCHINA.—Bethi çuc nahi duçuna eguin behar dut; eta ez duçu hemen khondu osoa.

OSTALERSA.—Khonda, khonda onxa, ikhusico dun ez dunala deusic escas.

LUCHINA.—Otsuac jan bacintza! ... merkegui sal eta oraino cembait sos escas! ... bekhatu gorri da çurequin tratu eguitea.

Mᵉ MENDIGORRY.—Nungoa çare ene haurra?

LUCHINA.—Borda gorricoa, andrea.

Mᵉ MENDIGORRY.—Badaquizu nun den gure etchea?

LUCHINA.—Segurki, andrea, çure jaureguia ez daquit bada nun den?

Mᵉ MENDIGORRY.—Zohaz beraz eta erroçu ene filleari ez naicela etcheraco eguardi arte; eta datorla ene bilha. Utz çaçu hemen çure otharrea.

LUCHINA.—Gogotic, andrea *(badoha).*

Mᵉ MENDIGORRY.—Çatozte laster biac, pagatuco çaitut ongui.

LUCHINA.—Bai andre.

OSTALERSA.—Orai cuchian erreco dira arroltceac, madama; ongui pena dut çu haimbertce iguriquiaraztea, bainan orai asqui da ehunen khondatceco artea.

Mᵉ MENDIGORRY.—Zaude, eracuts aitçu niri arroltceac, neronec hautatu nahi tut.

OSTALERSA.—Huna non diren, madama, hautatçu nahi tutçunac.

Mᵉ MENDIGORRY.—*(hautatcentu biga eta dio)* Ori, horiec erre edo egostzatzu, bainan laster, gosetua naiz.

OSTALERSA.—Bai, madama, cerbitçatua çare istantean *(Janetac ematen du mahaina behartuen guciekin). (Ostalersa hel-*

du da bi arroltceac plat batean eta dio): Yar çaite horchet, madama eta yan caçu; segur ez duçu goizegui.

Mᵉ MENDIGORRY.—*(hausten du arroltce bat eta dio):* Ah! gaizoa, utci tutçu sobrachet erretcerat *(hautsi duenean bothatcen du plateran).* Oh! fa! cer arroltce dire hauc? beira zurda bat badu barnean.

OSTALERSA.—Ez da possible, madama.

Mᵉ MENDIGORRY.—*(Lunetac emanic behatcen dio)* Oi cerua! cer erran nahi da hau! Nola miraiculu horratu da zurda hori? hea ikhus bertcea.

Mᵉ MENDIGORRY.—*(hausten du bigarrena)* beha! hor ere bertce bat nundic athera ditutçu arroltce guisa hauc!

OSTALERSA.—Ayei! ayei! ni ceren ikhusteco sorthua naiz mundu huntarat!...

Mᵉ MENDIGORRY.—*(Otharretic atheratcen du hirurgarren arroltcea eta ematen dio Ostalersari)* Ori, hautsaçu oraino hori.

OSTALERSA.—*(hausten du plat batean)* ah! mila miluinen bisaia! hemen ere zurda! ... cer da hau bertceric baicen sorguinen lana? Erraçu guero ez dela behar içan holaco sinhesteric; datorla, datorla, Jaun erretora niri erraiterat ez dela sorguinic. San Thomasec berac ere sinhes leçaque hau ikhusiric.

Mᵉ MENDIGORRY.—Guciac gatic gosea bainaiz, yan behar tut erre ditutçun horiec, zurda khendu eta.

OSTALERSA.—Madama, beldur naiz! nic ez neçaque deusetan ere yan horietaric.

Mᵉ MENDIGORRY.—Bego ene gain hori; urusquı Jaincoac ez daut eman çuri beçain izpiritu ttipia. Ni hemendic athera gabe behar da misterio hau arguitu. Ni naiz egun çure sorguina.

OSTALERSA.—*(bere buruari sucalderat dohalaric)* Balimba! ez da Madama hau bera sorguina!

LUCHINA.—*(heldu da fillea eta nescatoarekin, nescatoac baduela burdin saardea escuan).* Huna andrea, çure fillea eta nescatoa ere ethorri da laguntcerat.

Mᵉ MENDIGORRY.—Ongui da, haurra, yar çaite hor instant bat.

CHULI (FILLEA).—Cer guerthatu caitçu, madama? balimba deus gaichtoric. Khondatu dautet etche hontan miracuiluac guerthatcen direla eta gaichtoac ibiltcen direla. Othoi çato lehen bai lehen etcherat; neroni ethortceco beldurrez ekharri dut Franchun lagun berac erranen dautçu cer derasaten bide hortan.

Mᵉ MENDIGORRY.—*(irriz dagoela)* Cer diote bada?

FRANCHUN.—Bai, madama, çuc irri eguiten duçu, bainan diote sorguinez hautatua dela etche hau. Oilloac eta arroltceac charmatuac direla, hargatic ez çaitugu bakharric utcico, eta çuri deusic eguin nahico duenic yaquinen tu ene burdin saardearen berriac.

Mᵉ MENDIGORRY.—Allo, allo, holaco enuchenqueriac utci niri; badaquiçue ez çaizquidala sobraric guisa; yar çaitezte hor eta ene ustez comedia ttipi bat behar dugu ikhusi.

CHULI.—Ayei ayei, madame, cer othe da? icitzen naiz!

FRANCHOUR.—Zaude tranquil, Chuli, harma hunequin ez niz ez sorguinen, ez debruen beldur.

FILLEA.—Ni segurago naiz habitua eta arrosorioarequin, çure burdin saardearequin; deus guti litake hori debruaren contra.

FRANCHUN.—Hargatic hobe dugu ceinatcea, eguia dioçu.

OSTALERSA.—*(Heldu da sucaldetic eta Luchina ikhusten du; erraiten dio):* Erran, erran, malurusa, nundic ditun arroltce madaricatu hauc?

LUCHINA.—Eta cer dute?

Mᵉ MENDIGORRY.—Andre Ostalersa, zaude othoi ichilic eta guelditic istant bat; enequin behar da andrechea hau min-

tçatu, enequin du eguitecoa oraicotic. *(Luchina lotsatzen da).*

OSTALERSA.—Horren gazteric haur tçar hau sorguinequin da nasqui.

LUCHINA.—Çu cira sorguina içaitecotz eta ez ni.

OSTALERSA.—*(makil bat harturic badohaco)* Ago istant bat, impertinenta.

M.ª MENDIGORRY.—*(makila khentcen dio)* Erran dautzut eta erraiten dautzut egoiteco ichilic eta gueldiric, nic eguinen dudala behar dena.
(Luchina besotic hartcen du) Erran niri orai nundic ditunan arroltce hauc.

LUCHINA.—Cer da bada? nic neure ustez arroltce onac ekharri tut.

OSTALERSA.—Bai, cembait sorguini harturicaco arroltceac.

Mᵉ MENDIGORRY.—Asa, baçauzque nombait ichilic utciric sorguin solas bitci horiec, bertceinaz ikhusico duçu zehoni çarela sorguina.

OSTALERSA.—Madama, estonatcen nauçu; cer erran nahi cinuque?

M.ª MENDIGORRY.—*(Luchina makilaz mehatchatcen duela)* Gastaguin tcharra, arroltce hauc ebatsi tun, baçaquinat segurki ,bainan behar dun orai hemen hiaurc aithortu, bertceinaz karotsa aldi eder bat segur dun. Erran fite nun hartu ditunan.

LUCHINA.—*(nigarrez)* Ayei! ayei! seculacotz galdua naiz! Aaah! aaah! aaah!

M.ª MENDIGORRY.—Nahi dun erran fite nun hartu ditunan! bertceinaz hasten nun.

LUCHINA.—*(bethi nigarrez)* Ez da eguia beçalacoric. Hor, etche huntaco oillateguian.

OSTALERSA.—Bada possible! lephua bihurtu behar diot!

M.ª MENDIGORRY.—*(Ostalersa guibelarat phusatuz)* Emekiche, emekiche, ez dautzut bada erran utz neçazun ni, behar denaren eguiterat? *(Luchinari)* Erran, galdu, tcharra, nola hartu ditun oillateguia gakhotz delaric?

LUCHINA.—Gakho heineco bat hatchemanic! *(belhaunicatcen da)* Bainan, othoi, othoi, barkha! ez dut berriz eguinen seculan eta guciac erreparatuco ditut.

OSTALERSA.—Infame atrebitua! niri arroltceac ebats eta nihauri sal! preso, preso! Janeta, habil jandarmaketa.

M.ª MENDIGORxY.—Apacea çaite, apacea çaite; ni cargatcen naiz hunen gaztigatceaz.

OSTALERSA.—Eta arroltce horiec, ene oilluac erronac badira, beraz ene oillo guciac sorguinez charmatuac dira? Ah! cer ikhusi behar dut?

M.ª MENDIGORRY.—Emazte bitchia, çaude ichilic çure sorguinequin; hemen ez da sorguinic çure izpirituan baicic. Huna cer guerthatu den: Ene artzaintza Marion, ethorri çaut herenegun desolatua erraiterat cer galdeguin cinioen eta cer hitzemen zautzun, eta lagun neçan arroltce ohoinaren hatchemaiteco cerbaiten phentsatcen. Orduan bildu ditugu ahal tugun arroltceac eta orrhatz mehe batekin pollikitto chilatuz, zurda fin bat sarthu dugu arroltce bakhotcharen barnean. Baguindaquien nori erosten cintuen arroltceac eta esperantça guinduen hatchemanen guinduela zure ohoina eta ez gare trompatu, ikhusten duzun beçala, arroltcetto horiec çure cafian eman baiguinituen.

OSTALERSA.—Beha! Beha! norc erranen çuen?

FILLEAC.—Bego bethi yende escolatua; ez dituzte errechqui enganatuco. Haur tcharra horren gaztea eta ya galdua!

FRANCHUN.—Eta norc erranen du bere aire mitucha ikhusi eta, holaco barnea duela; nori fida egungo egunean?

FILLEA.—Ni, çu banintz, madame, utz neçaque cembait egunez itçalean exemplu baten eguiteco.

M.ª MENDIGORRY.—Hox, haur hau oraino gaztea baita, esperantça dut leccione hunec on handia eguinen dioela; bertceac bertce presondeguiac nihor guti ontcen du. *(Luchinari)* Erran beraz, ceru lurren aintcinean, hitz emaiten dun hemendic aintcina ongui gobernatuco haicela?

LUCHINA.—Bai andre, segur hemendic aitcina lanean arico naiz eta ene bicia onhesqui irabacico dut, eta ene zor guciac pagatuco ditut andre Ostalersaren alderat.

M.ª MENDIGORRY.—Habil bihar berean confesatcerat eta comberti hadi, cinez nic khasu eguinen dinat hire conduitari eta itcultcen bahiz lehengo urhatsetarat, enequin mintçatuco haiz.

OSTALERSA.—Bizkitartean ni ez naiz hola sobraric content.

M.ª MENDIGORRY.—Andre Ostalersa, ene ustez Jaincoac baduke çuri ere cer barkha. Examina caçu çure conciencia ikhusico duçu ez çarela soberaric leyala Jaincoaren cerbitçuari eta çure ostatuco eguinbideere. Diote ez çarela maiz hurbiltcen sacramenduetarat. Sinhesten banauçu, eguiçu çuc ere confesio on bat eta çuc barkhatcen baititutçu bertçer beren hobenac, Jaincoac çurri ere barkhatuco dauzkitçu çure bekhatuac.

OSTALERSA.—Hox, barkhatcen diot beraz eta milesquer, madame, çure conseiluez, ahalaz seguituco ditut.

LUCHINA.—Mila esquer, andre Ostalersa, i khusico duçu ez cautçula urrikituco.

JANETA.—Hobe segur, gure etcheco andrea comberthitcen bada; ni ere oraitic juanen naiz errechquiago eliçarat orai arte beçain bat erran aditu gabe.

MARION.—Agur etcheco andrea, hatcheman duçu beraz çure ohoina? ori, ori çure borts liberacoa. Jocoa hobekiago eguiteco hartu dautçut, bainan ez segur atchiquitceco.

OSTALERSA.—Ez dut segur hartuco, Marion, beguira çaçu cer nahi içanic, borts liberaco hori eguin duçun cerbitçuarentçat eta madamaren permisionearequin, çato igan-

dean enequin bazcaltcerat; hartuco dugu berriz ere cafea bere ondoco ttottarekin.

MARION.—Mila esquer, andrea, ez segur errefusatceco.

FRANCHUN.—Horra beraz non ditugun gure sorguinac eta aztiac; madamec ederqui arguitu ditu guciac.

Mᵉ MENDIGORRY.—Orai akhabatcean, hitz bat bakharric. Ez içan izpiritua hain flaco non sorguinac eta aztiac ikhusten baitutçue gauça gucietan.

Ez da sorguinic debrua baicic eta harequin pacto eguiten dutenac. Guiristinoen artean, ez litake holacoric aiphatu behar ere; bertçalde egungoa eguin dena beçala, finitçen dire istorio horiec oro. Luchina, condatcen dinat hire hitçac atchiquico tunala, bai eta çuc ere, andre Ostalersa.—Agur beraz.

— AZKENA —

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País)

España

Suscripción anual	1.500	ptas.
Número suelto	800	»
Número atrasado	1.000	»

Extranjero

Suscripción anual	1.800	»
Número suelto	1.000	»
Número atrasado	1.200	»

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	500	ptas.
Número suelto	300	»

Extranjero

Suscripción anual	600	»
Número suelto	400	»

MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales «Aranzadi»)

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150	ptas.
Años 1962 y siguientes ...	200	»

Público en general

Años 1949-1962	250	»
Años 1962 y siguientes ...	300	»

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Palacio de la Diputación Foral de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN